

GERTAKARIEN LEKUKO

I Alea

GEZAKARITZEN BERTULO
1985

Azala: Seurat

HARANBURU EDITOREA, S. A.

Askatasunaren Hiribidea, 1, 1.º-A

DONOSTIA

I. S. B. N.: 84 - 7407 - 224 - 7 (Lan osoa)

I. S. B. N.: 84 - 7407 - 225 - 5 (I. alea)

Legezko Gordailua: 242/85

Inprimatzaile: IZARRA Inprimategia

36. Industri Poligonoa - Usurbil

TXILLARDEGI

GERTAKARIEN LEKUKO

I Ælea



Haranburu - Editor, S. A.

AURKIBIDEA

Beharrezko azalpena	9
----------------------------	---

I. ZIENTZIAZ

Betikoaz agian (1958-II-24)	13
Denborari buruz (1967)	18
Illargirakoan (1968-XII-4)	48
Nork egia? (1969)	49
Gero eta ziurrago (1969)	51
Eztabaida zahar bat (1969-III-15)	53
Zientzia eta hipotesi (1970-X-13)	55
Kosmoari buruzko azken berriak (1971-X-14)	58
Oraindik ere Einstein harrigarri (1971-X-28)	62
Monte Palomar-en ondoko gogoetak (1982-IV-4)	65

II. ZENBAIT IDAZLEZ

Unamuno eragille (1957-III-28)	71
Lekuko bikain bat il da (1960-III)	80
Sartre'ren ukoaz (1964-XI-18)	88
Levy Strauss'ek Unamuno'rengana (1965-V)	91
Unamuno ala Jammes? (1966)	97
Bertrand Russell hil da (1970-II-12)	101
Mauriac (1970-IX-1)	103

Levi Strauss gailen (1973-VI-5)	105
Clavel fedearen sukarrak mintzo (1975-VI-13) ...	109

III. EGUNEAN EGUNEKOAK

Zineak gutxitzen ari (1969-III-4)	115
Eddy Merckx eta Sylvere Maes (1969)	116
Noruega'ko «Supermarket» batzuk gainbehera (1969)	118
«La frousse du dimanche» (1970-I-31)	121
Zifra batzuk (1970-XI-4)	124
Alferrei gutun idekia (1971-II-15)	126
Errorik-eza eta gizon abstraktoa (1971-IV-24)	129
Fonfuruak (1971-VIII-2)	132
Zalantzatan dagoen apaiz horri (1971-IX-5)	135
Tabu eta Mitologia (1972-VII-15)	141
Selfridge eta Visnhu (1973-IV-13)	144
Olerki eta ilunpe (1973-II-21)	146
Zinemaren joera (1974-VI-16)	150

BEHARREZKO AZALPENA

GERTAKARIEN LEKUKO *bi sail hauek, ikus daitekeenez, mamiz eta hizkuntzaz, zein bere garaiko fruitu dira. Frankismoaren garaian argitaratuak, halako auto-zentsura ageri da askotan; eta artikulurik gehienak Kaputxinoen «Zeruko Argia»n agertzen zirela ez da ahantzi behar. Katakunben garai hartan, bai giroan bertan, bai agerkarietan ere, mugak zeuden (JAKIN-ekoek berriki garbiki eta zehazki azaldu duten bezala); eta muga horien jopu agertzen zaizkigu artikulua batzu.*

Hots, iruditzen zait, joputza hori agertzea da egia esatea, eta lekukotasun-balioari atxekitzea. Artikulu bakoitzaren haseran, data dauka irakurleak.

Hizkerari buruz ere ohar bera egin daiteke: gure 'standard' edo Batua ere urte hauetantxe mamituz joan den sorkaria da: batasun-lan nagusia 1963tik 1978ra burutu da, hain zuzen. Eta artikulua hauek urte horietantxe idatzi ziren. Baturako bide horretako lekuko ere badira beren horretan.

Ni neu ere, azkenik, nola ez, aldatuz joan naiz, idazkeraz eta pentsakeraz; eta zenbait puntutan gaur ez nuke gauza bera idatziko, ez mamiaz eta ez idazkeraz.

Lan hauetako batzu, gutxitxo baina ez laburrenak, sekula argitara gabeak dira.

Hitz batez, lekukotasunari eusteko, beren hartan eman behar nituen; eta beren hartan argitara ditut.

Agian interesgarri gertatuko!

*Txillardegia
Donostian, 1985-I-31an*

I
ZIENTZIAZ

BETIKOAZ AGIAN

(1958-II-24)

Zerua egunez zoragarria ba da ere, are zoragarriagoa da gauetz eskierki. Gizonagan gertatzen dan bezela, illunbean nabarmentzen da bereziki aren sakontasun zirrargarria. Argirik ezak sakonago biurtzen du dena. Argitasunak, berriz, lilluratu egiten du eta azkenik arrotu.

Leen, gure asabak mendi-mendian lurra goldatzen eta ardiak larratzen ari zirelarik, maiz ikusten zuten zerua. Berau beren eguneroko munduan zegoen.

Gaur, ordea, noizean bein bakarrik so-egin dezakegu goruntz, ezerk gu galerazi gabe beintzat. Onegatik, gure erri zatar auk gu illunik gabe uztean (ezpaitago kalean egiazko gaurik) illunbetik alde eragin digute, eta gauetz bakarrik senti ditekian sakontasun lazgarri ori kendu.

Gure antziñekoak Naturalezarekin bizi izan ziranak, adiskidetzat zeukaten ixiltasun osoa. Gau izartsua zan askotan beren bide-laguna, eta goietako leizea etzitzaien arrotz.

Guri, berriz, kaletar gizajooi, arrigarriegi zaigu gauaren izkuntza soñugabea. Eta antziñan oiko bezin izkutu-gordea, eta gizonaren erraieran finkaturik zegoena, senik gabeko lelo gexa dugu gaur, sasi-maitasun-kanta guzietan matrikula eskaxa biurturik ...

Aaztu egin zaigu, bai, aurrak antzo zerura begiratzen. Orain berrogei ta amar urte dirala ere, astronomi-zaletasun au obetoxe gordetzen zan; eta gaur baño askoz ere etxe geiagotan ziran «Bailly-Ballière» almanaka famatuak. Eta auetan milla azalpen ematen ziran zeruaz. Gizonak bazekien oraño goruntz begiratzen.

Guk, oster, Sirio edo Arcturo ikusi bearrean, farolak ikusten ditugu. Eta truke txarra egin dugula deritzat...

Astronomian ez naiz ni nor, noski. Baña, zer nai duzu, irakurle: atsegin zait oso zeruari so egotea. Naiago dut oraindik ikuskari au ardanegitikoa baño. Geiago kezkatzen nau. Baña, zer?

Zoratu egiten nau beti gau izartsuak, eta maizago ezin ikusteak nazkatzen nau. Uritik beretik, gañera, ez da ezer ikusten zerukorik sasi-argien artetik ezpada... Onetxek galerazten nau batipat. Gañera, zer da gizonaren begi utsak ikus dezakeana? Guxiegi, zoritxarrez. Nik ez dut ortarako tramankulurik batere; eta, ain zuzen ere, interesanteena ezin ikus dezake gizonak teleskopioaren laguntzarik gabe.

Argatik, aal dezakedanean, astronomiari buruzko liburuak irakurri oi ditut, edo zeruko fotoak poliki ausnartu. Eta aste berrean itzaltzen zaizkit nere katramillak edo kezkek; ezpaitago zerua bezelakorik gizonaren arima lasaitzeko.

Etsipenezko pakea da, nunbait, pake etsia, alegia, federik ez duan orrekiko: ain da mundua eskergea, larría, baztergabea eta asma-eziña. Siñistunarekiko, ordea, eusle eta pozgarri.

Biontzako deuseztatzalle.

Zer ari gera ba emen, gizajook, kako-makoetan? Zer da munduan gure biziera? Zer ajola, irakurle, zu ta ni biok gure Galaxiari? Galaxia delakoan dago gure Eguzkia, eta beste izar guziak bezela jiraka ari da ere. Ba al dakizu apika zenbat urte bear dituen gure eguzkiak bere «urte-nagusi» ori egiteko? Berreun ta ogeitamar milloi urte!!! Zer dira, ortaz, eun urte? Zuri erantzuna.

Eta, izan ere, zer da gure Galaxia ori? Eguzkia bezelako izarrak millaka ditu, milloika; eta auek ere, seguru asko, izarbelak lagun mugitzen dira. Zer ote da, beraz, gure Lurra? Puntuxka bat Galaxian. Multzutasun kontagaitz ortan puntuxka batean ari gera gu, nora eldu ez dakigula. Eta, alaz ere, gure Galaxia ori ez da asko. Dozenaka daude gurea bezelako galaxiak, millaka obe, multzo, ikaragarritan alkaturik; eta galaxia-multzo auetxek ere, berebat, multzoen multzotan...

Zer tarte dago, esate baterako, gugandik Hydra-multzo bate-raño? Argitan 1.100 milloi urte!!! Ots, 10.000.000.000.000.000.-

000.000 kilometro... Gaur jaso dugun iduri orrek milla milloi urte ditu.

Besteko, Hubble'ren legea dakienak badaki galaxia orrek, eta alaber beren multzo edo galaxia-mordoak, ikaragarri azkar ari zaizkigula urruntzen; eta berdin ere beren artean. Hydra'ko orrek berak, konparazio batera (pizkorrena, urrutiena baitago), 61.000 kilometro betetzen ditu segundu batean!!

Zer ari gera gu? Zer gera? Auts-pits bat? Demagun. Bistan da arrokeriak ez bestek ezin arro gaitzakeala.

Eta, zer da, irakurle ori, gure illarkume edo «illargi-ume» ospatsu ori? Illargiraño edo Zentauroraño ba ginjoaz ere, zer? Galaxian bertan geldituko giñake alarik ere. Eta argiaren laisterrean abia al ba gintez ere, zer? Gure Galaxiatik ateratzen millaka pasako genituzke urteak. Alabaña gure Galaxia au orren neurtu-eziña ba zaigu ere, zer da munduan puntutxo bat besterik?

Ontan guzian ez dago ipui alegiazkorik. Gutxi gora-beera ba da ere, progatu egin da au guzia. Oneraño, ortaz, mundua bera mintzo.

Baña astronomoak ere mintza ditezke, noski. Eta mintzatzea naiko nuke. Astronomoak berak ezin dezake filosofiari egin, ikasbidez aldatu gabe beñipein; aztertu egin bear dira astronomoaren hipotesiak eta baldintzak. Eta ontarako astronomiaren antzera ez-baña filosofiaren antzera egin bear. Jakiña.

Esan nai dut astronomiaren bidez jakin ditzakegula gauza arrigarri oiek guziak, eta beste asko ere bai. Baña kontuz eta neurritz ibilli bear dala ortik ondoreak ateratzerakoan.

Baña, alderantziz, berdin jokatu bear dute filosofoak ere filosofia egiterakoan. James Jeans astronomoa geiegi sartu zan nunbait, eta ariñegi, erabakiak eta ondoreak ateratze ontan; eta matematikuegia izan zan askotan. Alegia gutxiegi aztertu zituen, agiri denez, bere jakinduriaren oñarriak. Baña egoki zion onetzaz munduaren asieraz ari delarik: «Filosofiaren jardukitzetik datorke bakarrik arloaren kakoa. Baña filosofoak itzegiteko eskubide izan dezaten, galdetu egin bear diote Zientziari aurrena: dudarik gabeko gauzez bateko, eta anarteko hipotesiez besteko.»

Ala da. Astronomiaren jakintza guzia erabat zalantzan ipintzea astakeri bat egitea izango litzake.

Astronomia, gañerantzean, metagarri da, kopuragarri, eta beñere ez da dena erortzen. Osatu egiten da, bañan ez desegiten, ez erauzten.

Filosofia, ostera, diferente da. Aitzurtzean datza, eta izatez beraz oñarriz aldatzean.

Aatik aurrera dijoa Astronomia, bañan ez Filosofia. Einstein'ek ez du Koperniko desegin, osatu baizik. Sartre'k ordea ez dauka zer ikusirik San Tomas Akino'koarekin.

Astronomiaren teoriak, ortaz, bilakagarriak dira, noski. Bañan ezin ditezke zearo aaztu.

Astronomiaren datoak dato dira; teoriak, berriz, aztergarri.

Eta, dirudienez, ezpainaiteke neure burutik mintza, iru puntutara bil ditezke Astronomiaren joerak:

a) Einstein'ek Relatibidade-Teoria agertu zuenetik (eta oraingoz beintzat, erabat artuta eta 40 urte pasa ta ere, egiazkotzat ar ditekealakoan daude jakintsuak), espazioa edo lekunea ez da guk asma dezakegun asmakari bat, baña kanpoan dagoen sorkari konkreto bat. Gure izaeran dago, zion Kant'ek. Baña, ikusten danez, lekunea ez da EZER gaiarekin batera kontsideratzen ez ba da. Ez gurekin, baña *gaiarekin* ez ba da. Auzia ez da onekin akabatzen, noski. Baña zillegiagi bide da gaur onela pentsatzea.

Geiago ere esan bide biteke: gaiak, materiak alegia, eta lekune edo espazioak, artu-eman estuak dituztela. Itxia omen da ortzea segur-aski; eta Lemaitre kalonjeak azaldu duen bezela asieratik zabaltzen ari da Unibersoa, geroz eta geiago zabaltzen eta puztutzen.

b) Denbora ere ez da guk nai duguna, edo gerekixa pentsa dezakegun gauza; baña bera dena. Denbora zer den fisikoak ez ba daki ere (fisikaren baldintzak dirala-ta), are gutxiago filosofoak bere gelan sarturik. Denborak, ikusten danez, asko du zerikusirik gaiarekin. Laisterrak eta grabitazioak eragiten ba diote, ez dago gela batean sartzetik, denbora «berez» edo «bere berean» zer ote den asmatzeko.

Fisikoak eta asrtonomoak kanpoan «berez» ez dagoen taju eta antolamendu bat ipintzen dutela? Agian. Baña jakin egin naiko nuke nola jartzen duten; edo nola jakin ditekian jarri dutena.

c) Munduak asiera bat izan du, dirudienez. Lemaitre'ren teorian (orain arte geienak ontzat ematen dutena) une batean sortu zan mundu au. Eta astronomoak, ia ao-batez neurtu dute: ordu-tik gaurdañoko epeak 6.000 milloi urte ditu. Orain dela 6.000 milloi urte asi bide-zan mundua; eta adin ontako baño sorkari zaarragorik beintzat ezin aurki iñun, omen.

Eta onatx korapilloa: munduan bertan edo bere ortan ezpada, espazioa eta denbora ez dira ezer. Beren ortatik atera ditezkeala pentsatzea, gure seta bat da, arrazoiaren seta bat ain zuzen. Bestalde, munduak asiera bat izan bide-du. Ots: orain dela 6.000 milloi urte etzegoen EZER. Ezta denbora edo espazioa berak ere! Jainkoa gabe sentidurik aal luke onek?

Astiroago aztertu naiko nituzke beste batean puntu auek guziak; eta egin dezadan esperantza badut.

Alde guzietatik abiaturik ere, gauza berera iristen da beti: ez dagoela absoluturik. Ez dagoela siñistunaren aitortzetik libratzerik. Ezagutzen ditugun sorkari guzi-guziak, baita denbora eta lekunea ere, ez dirala deus. Itxura utsa dira; izana badute, bañan ez Izana. Obeto esan, ez dira Jainko. Mundu guziak, larria eta ikaragarri aundia ba da ere, utsean dardaratzen den xalboin-ponpoilla dirudi; eta gu bere biztanle ñimiño.

Einstein'en hiperesfera ori ez daukagu entenditzerik; eta agian ezin diteke konpreni. Bañan ulertzen ez dugun zerbait azaldu bearrean gera. Eta zergatik ulertu bearko genuke? Erantzun arrazoñalistak.

Atomoarenean, berriz, berdintsu gertatzen da. Heisenberg'en hipotesiak dionez leenago egiten da mundua ezin-ulertzeko, desegiten baño.

Gizonak ez dauka entenditzerik, xalboin-ponpoil ortatik at baitago kakoa. Nola ez? Eta ikus eziñean gabiltza; eta ibilliko ere gera, ene gardiz, aztamuka, beaztopaka...

Zeren Jesukristo'k berak ala nai izan zuen, begietan lausotzat daukagun mintz segail au urra ez dakigun; eta ixildu baitzan askotan, bere ikasleen galderak geiegi ez argitzekotan.

Beti ixildu da Jainkoa.

Orrengatik ere, alperrik saiaturko gera egiaren oñarria pro-

gatu naiean. Bistan da au, irakurle. Jauzi egin bear, ikusi ez arren siñistu egin bear, irakurle.

Eta dudarik ba duzu oraindik, uztazu au; eta irakurtzazu as-
tronomiaz zer bait. Eta gero, illunabarraren ondoren, altxa itzazu
begiak, eta erantzuidazu geroenean.

DENBORARI BURUZ

(1967)

Gaurko gure munduak beharrago bide du berritasuna egia
baiño: egiarik haundiena ere ez bide da gaur aintzakotzat har-
tzen, berritasunaren usaia falta baldin badu. Hori dala-ta, gaur-
kotasunaren maillan, teoriak herronka jarraitzen diote alkarri;
herronka nagusitzen dira herrien arretaz, bai; baiñan baita ere
herronka ahaztutzen. Aldizkari ezagunenetan eta sasi-jakintsuen
solasetan, ideiak ez dira sekulan finkatzen, berritasunaren ara-
bera alkargainka trukutzen baizik. Teoriak modaren kideak di-
rudite, eta berrizaleen artean modak berak bezin igarokorrak.

1945-etik aurrera, esate baterako, etsistentzialismoa izan zan
moda hori, eta Sartre lehenengo maillan jarri zan. Ez, noski,
esaten zuenarengatik beragatik (xuxenki 1943-ko «L'Être et le
Néant» dalakoan Sartre'k adierazten zuena iñor gutxiuk uler bai-
tzezakean orduan... eta gauza bera gaur ere!); baiña bai, eta
hunengatik batez ere, Sartre'k gauza «berriak» esaten zituela-
koan. Gaur berritasun-giro hura histu egin zaio etsistentzialis-
moari; eta Sartre'zaleek berek maizago aipatzen dute oraingo be-
re «La Critique de la Raison Dialectique» dalakoa, orduko «L'
Être et le Néant» baiño (nahiz ez oraingoa ere lehengoa baiño
hobeki ulertu!). Sartre bera aldatu egin da, zalantzarik ez. Baiña
berriarekiko moda ere bai: Sartre hirurogeitsuko bat dugu gaur.
Belaun berria izen berriren billa ari, beste izen berri batzuk be-
har ditu; eta ba dituela dirudi; Lacan, Foucault, Althusser. Be-
laun berriak susmo txarrez begiratzen du Sartre, ez baita... be-
rria.

Ideia berriekiko hetsia izatea, noski, etorkizunarekiko eta
aurrerapenarekiko hetsia izatea da. Galileo, Débussey, Van Gogh
eta Freud berritasun horren ekarle izan ziran beren garaietan; eta

gaur nabarmen zaigu beren berritasun haren kontra jokatu ziranak, oker jokatu zirala. Dirudienez, bide hori hartu ezkerogizon garrantzitsu guziak kondenatu beharko ziran, bata bestearen ondoan. Beren aldian harrigarri agertu ziran gizonak oro ez dira beti haundiak izan; haundi gertatu diran gizonik gehienak, aldiz, harrigarri gertatu izan dira beren garaiean. Egiak izan behar du hautuaren gidaria; baiñan egia berria non dan ezagutzea ez da erreza izaten, berria dalako hain zuzen. Arrisku haundiagoa dago, halere, berri diran guziak arbuiatuz, danak onartuz baiño. Eta hauxe da kakoa. Jokabide berrizale askoren kakoa, nahastu-nahiez hortan datza.

Berri-nahi amorratu hortan ba dago gure mendearen tema berezi bat. Gure egunetan, dialektikaren eta eboluzionismoaren aroan beraz, nola ez onar, berriak diralako, gauza berri guziak? Aspaldidanik siñistu dana, ez ote da, besterik gabe, zahartua, igaroa eta gaingitua? Berriz ere, hortaz, oker ez jokatzearren, brankan beti egon nahiz, berri dan guzia onartzen da, eta berri ez dan guzia, era berean, alde batera uzten. Aspaldiko zuhurtasun bare hura, Seneka'ren edo Cervantes'en izkribuetan esate baterako aurki ditekera, ez da gaur aipatu ere egiten... Irizpidea, hortara, moda dugu, hots, berrikeria, esnobismoa; eta egiaz ahaztu egiten gera. Onartutako mito gezurrezkoen kritikaren egarria danean, «ezkertasun» zuzena da. Baiña ipuiñak salatu eta sasi-absolutu zaharrak astindu nahi gorrian, betiereko zuhurtasuna eta betidaniko egia haundiak ere bazterten ditugu. Hiraka erauzi nahiz, garia ere erauzten dugu; eta lurra elkor egiten. Ezkertasunari ezkerkeria nagusitu ohi zaio, berritasunari berrikeria. Eta berrikeriaren ipuiña salatu eta astindu gabe gelditzen da.

Sartre'ren egoeraren giltzarria hortan datza. Trotskistei lagunduz, Nobel-Saria ez hartuz, berriki Russell-Epaiburutza onartuz, ba du Sartre'k oraindik berritasun-kutsu hori, eta modan iraun dezake. Baiña gero ta nekezago berak ere, berritasunaren neurria absolutua dalako. Gaingitua ote dago egiazki? Orain dala hogeitertako soluzioak, eta bere kezkek batez ere, atzean gelditu ote dira? Ez nik uste. Atzean gelditu ez, baiña saihetsean utzi. Modak ez du gaingitzen, zeharkatzen baizik. Kierkegaard, Heidegger, Jaspers, gure Unamuno bera, ez daude modan; baiñan ez gaingiturik ere: berriz argitaratu da frantsesez, esate baterako, Unamuno'ren «Del Sentimiento Trágico de la Vida». Moda pasata, denboraren haizeak eramaten du lastoa; baiña bi-

hia hutsik gelditzen da. Ospea bai: meta gaitz batetik pillotxo batera biltzen da; baiña zer galdu da, egia esateko?

Fenomenu berbera gertatu da Einstein'ekin. 1920-ean Europa guzia mintzo zan Einstein'ez, eta gehienetan fitsik ulertu gabe: errelatibitatea modan zegoen. Kontra ez zegoena, alde zegoen; gaur estrukturalismoaz bezela: «Gauza amorragarri bat du modak: kontra egiñez ere, modari eusten zaiola. Hortantxe ezagutzen da moda bat hain zuzen: alde ala kontra hitzegiten dalarik ere, berdintsu dala, modakoaz hitzegitea dala kakoa» (1).

Baiña piskanaka, Errelatibitateari berri-kolorea zimeldu zitzaizolarik, modaren eta gaurkotasunaren aldetik bigarren maillara pasa zan teoria. Mac Carthy'ren garai lotsagarrian bakarrik, berriz modan jartzeko aukera hitsa izan zuen Einstein'ek: ez 1943-ko bere «Kanpo-Batua» deritzan teoria zaillarengatik (oraindik ere gutxi dakigu teoria hortaz); Oppenheimer'ekin batera «komunistatzat» hartu eta zaintzapean jarria izan zalako baizik.

Eta hauxe da leloa. Hauxe da larriena, hobe. Errelatibitatea 1967-an ez ezagutzea, Fisika'ri buruz ezer ez jakitea baita; eta filosofiari buruz, batzuk zernahi esanagatik ere, iritzi funtsezko bat ematea arras eziña. Egiaren egarria duten guziek, Einstein'en teoriak ikasi behar dituzte; eta egiten ez badute, «zientzizale» hitza maiz erabillirik ere, jakintzari buruz eta egiari buruz beren ezteusa eta hurrikeria erakutsiko dituzte. Orain gauzak aldatu egin dira pittin bat; baiña urte askotan zehar, Einstein'en teoriak «burgesa» tzat hartu zituzten zientzizale izeneko erresumek, eta Errelatibitateari buruzko liburuak zerrenda beltzean jarri. Ia denbora berean Mac Carthy ere lan berean ari zan... Segidan, beraz, judutarra zalako, burgesa zalako, eta komunista zalako, Einstein madarikatua izan da. Nork bildu ote ditu berak baiño gehiago?

* * *

Couderc'ek egoki dio bere liburu irakurgarri batean: «Karkuluen oruara sartzea osoki debekatzen baldin bada, Errelatibitateari buruzko izkribu bat, Errelatibitatearen inguruko, ibillaldi billakatzen da nahi-ta-nahiez» (2). Neure saiakera labur hau, be-

(1) Jean Pouillon, «Temps Modernes», 1966-eko Azaroaren zenbakian.

(2) «La Relativité», 5 gn.h., P.U.F. 1962. Errelatibitate Bereziak ideia bat hartzeko batez ere oso irakurgarria.

raz, ibillalditxo hori baiño sakonago izan ditekeala pentsatzea, zorakeria litzake: bai nere aldetik, eta bai irakurlearen aldetik ere.

Ba dakit, beraz, eta irakurleak ere bai, nere entsegua mugak zein diran. Baiñan Einstein oso ahaztuta dago Euskal Herrian, eta hau ez da iñundik ere guretzako ohore bat. Atzerrian, gorago esan dudan bezela, Errelatibitatearen modarik ez dago; baiña ba dago gure artean sumatzen ez dan jakin-nahi giro bat. Bi argibide emango ditut xoilki.

Couderc'en «La Relativité» liburua (españeraz ere aspaldidantik irakurgarri) hamabigarren aldiz argitaratu da frantsesez 1962-an! Azkeneko argitaraldian 72.000 ale inprimatu dira. Brusela'n, bigarrenik, 1959-ko Garagarrillaren 19 eta 20-ean, Errelatibitateari buruzko Alkarrizketa bat izan zan; eta Géhéniau irakasleak hau jakinarazi zuen: «Orain dala urte batzuk, Errelatibitate Jeneralaren aldeko gogoia emendatzen eta berretzen ari dala nabaitu dugu».

Europa'n aide hauek dirala-ta zertan gera gu?

Oraintxe zertan geran ez dakit xuxen. Ni Bilbo'n ikasle nintzan garaiean zer ikasi genuen esan dezaket ordea. Errelatibitate Bereziaz zenbait ideia azaldu zigun Belda irakasleak (zoritzarrez guk axolagabekeria entzunak eta ikasiak), eta besterik ez. Tentsoreen Karkulua ez genuen ikutu ere egin; eta Errelatibitate Jeneralaz, beraz, ezer ikasi ez genuela esan beharrik ez dago. Teoria hauek ez baitira «pratikoak», alde batera uzten ziran ahalik eta laisterrenik; eta txalo jotzen zan. Zertarako «denbora gal», gero «ezertarako ere» balio ez duten zozokeriatan? Urte haietan, halere, Bilbo'ko Eskola zan, nere ustez, Euskal Herrian Errelatibitateari buruz zerbait erakasteko egokiena, gaiena bederen, bakarra ez bazan.

Ba dakit. Errelatibitate Berezia bera ijeñeru bati bai «prati-ko» eta bai ulerterreza izan dakiokela esatea, astakeria litzake nere aldetik; eta ez dut esan, eta ez esango ere. Baiña Ijeñeru-Eskola Nagusi batean gurean baiño gorago ez bazan ikas-mailla, Errelatibitateaz oraindik gehien gehienek deusik ez dakitela pentsa ditekeala esan dezaket; España'ko eta Fraitzia'ko Ikasguetan giroa oso desberdina ez baitzan. Zientzia hutseko Ikasguetan behar bada? Ez dakit (3).

(3) Euskeraz, bederen, ia behin ere ez dira gai hauek aipatu. Berezkun-

Egoera ezjakin horren kontra doa nere «ibillalditxo» hau. Ikasgura piz badezaket, ni pozik. Ziur naiz euskaldun askok denboraren kezka duela.

* * *

Ez dut, berriz diot, Errelatibitatea lerro batzutan, eta formularik gabe, osoki azaltzeko asmorik. Baiña denborari buruz ezin diteke ezer esan eta ez funtsez pentsa, teoria hau ezagutu gabe. Denborari buruzko kezka metafisikoa duten guziak astintzekotan eta eragitekotan idatzi dut hau. «Pratikoek» naute entzungo, ba dakit; baiñan opa ere ez nuen horrelakorik. Euskeraz eta «ezertarako balío ez duten» puntu hauetaz izkiriaturko nukea bestela?

Zalantza haundiak izan ditut. Zer adi diteke? Zer adieraz nezake?

Formuletan barrena abiatzea ez da erraza: Matematika goitik ezagutu behar da, eta Fisika ez apalkiago. Mailla hortan liburu osoak eta sakonak egin dira; eta ni fisikolari izan gabe lan-mota hortan sartzea harrokeria litzake (4).

Errelatibitatea zailla dala iñori gogorazi beharrik ez dago. Gauza bakar bat baldin badakite askok Einstein'i buruz, horixe dakite: Einstein oso zailla dala, ulertu eziña dala, bere teoriak banaka batzuk baizik ez dituztela konprenitzen. Eta bere lan osoa kontutan hartu ezkerro, egia esateko, izan hala da.

Askotan, halere, zaillago egiten da, nere ustez, ideiak aurkeztutzean errazago azaltzekotan ahalegiñik batere egiten ez dalako.

1905-eko Errelatibitate Berezian batez ere, nahiz teoriaren funtsa edo muiña arras gure ideia zaharren kontrakoa izan, Matematikaren alderdia ez da, nahi-ta-ez, oso zailla. Liburu asko, alabaiña, azalpenik illunenak eta abstraktoenak aukeratu dirala dirudi. Ekuazio nagusiak ez dira zaillak. Energiaren eta masaren artekoa, gonbarazio baterako (5), ez da batere zailla Matematika-

ta bakar bat egin beharra dago: Jakin'en, 1965-eko Urtarrillaren zenbakian, artikulu labur bat eman zuen «Osiranzu»k.

(4) Errelatibitate Jeneralari buruz iritzi bat eman behar izatekotan, 1963-an frantsesez agertu dan liburu «erraz» bat gomendaturko nioke: Jean Charon'en «15 Leçons sur la Relativité Générale», Edit. René Kister. Horatik bai, gero Weyl, Landau, Lichnerowicz, eta abar, irakur ditezke. Ez lehenago, nere ustez.

(5) $E = m.c^2$; c , argiaren habailla da, hutsunean, $2,998.10^{10}$ [cm/s];

ren aldetik; baiña funtsa, erroa, sustraia, siñistu-eziña da, bai Filosofiaren aldetik, eta bai haunditasunen aldetik. Gaur bertan, Hiroshima'ko bonbatik 22 urte pasa ta gero, intxaur ale batek bere barrenean «kwh» izenekoak milloika biltzen dituela siñistea neke egiten da.

Errelatibitate Jeneralean (1915-etik jakiñarazia), ordea ez dago horrelakorik. Azalpen errazik ez dago: espazioaren makurgoa edo kurbatura ez da errazkiago ulertzen diferentziazio kobariantea baiño. Muiñera joan nahi duenak tentsoreetara jo behar du, eta ez horietara bakarrik. Hauxe da larriena: teoria ez da, Matematikaren aldetik, Fisikaren aldetik baiño xamurragoa. Hori dala bide, Errelatibitatearen soroan sartu ezker, eta Christoffel eta Ricci'ren izenak eta sinboloak ikusi bezin laister, kitto: hura ulertzeko gauza sekulan izango ez gerala dirudi. Aski da edozein egileren oiñarrizko liburu bat begiratzea: Weyl, Eddington, Cabrera, Landau, Lichnerowicz, Einstein bera... Gauzak ez dira denborekin legundu: gorago 1959-ko Brusela'ko Biltzarra aipatu dut. 1962-an ere, Infeld buru, beste Biltzar bat egin zan Varsovia'n. Aski du irakurleak, ahal badu, Biltzar hortako batean aurkeztutako azterkaiak begiratzea. Zalantzarik gabe: Errelatibitatea ez da nobela arin bat. Hau danok erreparatu dugu.

«Kanpo Batua»z zer esanik ez. M. A. Tonnelat'en, Hlavaty'ren edo Einstein'en izkribuei begiratu bat ematea dago. Kemenetsuenak berak kemenik gabe gelditzen dira lehenengo momentutik... Are gehiago: batzuk diotenez, ba liteke oraindik ere Einstein'en hirugarren teoria nagusi hunek, hirugarren erreboluzio bat ekartzea Fisikan eta Filosofian. Pertsona bakar batek hiru ideia-erreboluzio... gaiñerako lanez gain: fotoiak, laser'en sustraia, eta abar.

Ulergarri dirudi, beraz, hein batean, irakaskintzan teoria zail hauek alde batera uztea. Baiña egiazko intelektual batek ezin dezake joera pratikoi hori guztiz onar. Bai gaur, eta bai etorkizunean, eziña da Einstein'en teoriaren oiñarriak bederen ezagutu gabe «intelektual» izena erabiltzea; eta are eziñago oraindik «zientzia»ren gogaide eta aldekotzat jotzea. Charon'en hitzak, horrenгатik, neureak egiten ditut: «Beste alde batetik harrigarri gerta

beraz, $E [\text{erg}] = m [\text{g}] \cdot 8,988 \cdot 10^{20} [\text{cm}^2/\text{s}^2]$. Faktore hau ikaragarri handia izanik, garbi agertu zuen Einstein'ek materiaren desintegrazioa izan zitekean indar-iturria.

diteke matematika-tresna hau (tentsoreei buruz ari da), Fisika ulertzeko guztiz beharrezkoa, ez bigarren irakaskintzan, eta ez Fisikaren oinarriko azalpenekin BATERA, oraindik sartua ez ikustea» (6).

Zer egingo nik beraz?

Formuletan-eta abiatzea kaltegarritzat eta eragabe jota, formularik gabeko azalpenetan beretan sartzea ere eta matematika-rik batere gabe, zaila iruditzen zait (7).

Eta hau erabaki dut. Denborari buruzko Einstein'en teoria, hutsik eta hotzik azaldu beharrean, adibide asaldagarri eta siñiskaitz batzuk aurkeztuko ditut gordinki. Adibide hauek Errelatibitatearen araberakoak izango dira (E. Berezitik E. Jeneralera pasatuz); eta irakurlea bera konturatuko da noraiñoko misterioen erdian bizi geran, noraiñoko gisakoa da Einstein'ek behin eta berriz aipatzen zituen bere lillurapenak. Eta ondorioak irakurleak aterako ditu.

* * *

Denboraren problemak aspaldidanik kezkatu du zigona. Zer da denbora? Denborarik ba ahal dago? Ez ote da, Kant'ek uste zuenez, gure «kategoria»huts bat, alegia, gure ulerpide bat, munduaz jabetzeko gure modu edo kera huts bat? Ez ote da mundua beti ere jiraka ari, lamaistek dioten bezela, eta ez bere ardatzaren inguruan soilki, denborari buruz ere baizik? Ez ote dira gauza eta gertaera berberak, eta geure bizia bera, behin eta berriz berretzen, Nietzsche'k eta antziñako hindutar filosofiek uste zuten arabera? Nolakoa da denbora: biribilla ala lerroa, ziklikoa ala lineala?

Teoria anitz ezagutu da huntaz mendeetan zehar; baiñan ez Einstein'enaren erakorik, nik dakidanez. Horrengatik harrigarri izan zait berriki kaseta batean irakurri dudana (8). Zeilan'go gobernuak (Zeilan budista da, jakina) liburu bat argitarazi du 1957-an: «The Bouddha's Explanation of the Universe». Liburua ez dut

(6) 15 Leçons, 38.

(7) Alderdi huntatik, eta formularik ia batere gabe, Bertrand Russell'en entsegua da onena nere ustez. 1925-eko bere «ABC of Relativity» argitsua, frantsesez argitaratua, (eta espainieraz ere nik uste), irakurtzetik has diteke gai hau ezagutu nahi duena. Ez zaio damutuko.

(8) Ikus 1967-ko Jorraillaren 27-ko «Nouvelles Littéraires».

oraingoz nere eskuetan izan; baiña denboraren errelatibitatea sumatu bide zuen Siddharta'ko Gautama'k orain dala 2.500 urte. Hori egia balitz, Buddha'ren argitasuna eta gaintasuna berriz ere haundituko lirake.

Dana dala, Einstein'ek 1905-ean Errelatibitate Bereziaren oinarrriak ezagutarazi zituenean, danak txundituta utzi zituen. Eta Poincaré eta Painlevé bezelako zientzia-gizon ospatsu batzuk ez zuten segidan siñistu ahal izan, eta uzkur agertzen zitzaizkion. Zergatik?

Argiaren laistera edo habailla segunduan hirurehun milla kilometrotakoa da. Illargiraiño, esate baterako, segundu batean joaten da argia, gutxi gora behera (1,28 seg. xuxenki); eguzkiraiño zortzi miñututan, eta abar. Gauza ageria da habailla horrek gure Lurrean ikusten ditugun gertaerei buruz infinitu dirudiela.

Errelatibitatearen oinarrria argiaren habailla horren aldagabetasunean edo inbariantzian datza. Anitz frogabidetan beti bat eta aldatu eziña kausitu da: 299.792 km/segunduan. Soegillearen mugimenduak ez du habailla hori ezertan aldatzen (9). Einstein'ek 1905 ezkeroztik gaztigatu zituen fenomeno harrigarriak ez dira gure ohiko habailla apaletan nabarmentzen, alegiazko sateliteek berek ez baitute iñoiz egiten 12 km/seg., baiño gehiago. Zer dira 12 km/seg. 300.000 km/seg.en ondoan? Apo-harmatua... eta erbia!

Gauzak ulertzeko, beraz, eman dezagun haundiago gerala; fenomenuak gure neurrira ekartzeko, milloi bat aldiz haundi dezagun gure burua: 1,70 m. neurtu beharrean, demagun 1.700 km. neurtzen ditugula. Alegiazko aldakuntza hunek ez luke, sustraia-ri dagokionez, fenomenua aldatuko; baiña Errelatibitatearen izana hobeki agertuko litzaiguke.

Demagun, beraz, gure tamañako izakiak izan beharrean, 1.700 kilometrotako erraldoi ikaragarriak gerala, dinosauro eskergak baiño ere aisa haundiago. Lurra, etxeak, ibaiak, dana, egin dezagun, gure buruarekin batera, milloi bat aldiz haundiago. Argiaren habailla, aldiz, egon bedi bere hortan.

Eskala berri hortan, beraz, argiaren habailla hutsunean

(9) Michelson'k aurkitu zuen lehendabizikorik aldagabetasun hori 1880-ean; eta gero behin eta berriz egiztatu dute aztertzaile guziek: Kennedy'k 1926-ean, Piccard'ek 1928-an, Joos'ek 1930-ean, eta abar.

300.000 «mm»/segunduan izango litzake (milloi bat aldiz txikiago gure arabera), hau da, gure tamaña berriaren arabera 300 «metro» berri segunduan. Hemendik aurrera, eskala berri hortaz mintzatuko geran ezker, «metro» (=milla kilometro) eta «kilometro» (=milloi bat kilometro) berri horiek, «m» eta «km» idatziko ditugu, egiazko metro eta kilometrotik berezteko.

Mundu berri hortako argia, (dinosaurioek pittin bat soma zezatekean...), beren tamaña ikaragarritan gaurko soiñuaren arabera mogituko litzake gutxi gora behera, soiñuaren habailla 340 m/seg. baita haizean barrena. Hodi batetik presiopean darion uraren arabera ikusiko genituzke argiaren errañoak argi-iturri bate-tik ateratzen. Argiaren jarioa nabarmen izango litzaziguke. Ispillu batean, era berean, gaurko soiñuaren arabera argia joaten eta bihurtzen ikus ahal izango genuke. Argia 300 «m»/segunduan mogituko litzake.

Eman dezagun, beraz, tamaña hortako gizon bihurtu gerala. Gaurko Lurra pelota gaitz bat irudituko litzaziguke, asteroide txiki bat. Gure etxean egoteko izar haundi batera joan beharko genuke. Antares bera txikia irudituko litzaziguke. Jar gaitezen irudimenean gure neurriko izar haundi batean, 40.000 «km»takoa hain zuzen Lurraren antzekoa izan zedin. Han, gure haunditzeaz gain, patxaren ibilliko giñake. Irudimenean jar dezagun han gure geografia eta gure mundua. Han izango dugu aurrerakoan gure «Lurra» (inguruak 40.000 «km» = berrogei milla milloi kilometro. Izar haundia benetan!) Zer ikusiko genuke? Denboraren joanari edo ixuriari buruz batez ere, zer nabaituko genuke?

Eman dezagun Porsche bat hartzen dugula (Porsche «berri» bat, milloi bat aldiz haundiagoa, noski). Porsche hortan, eta galtzara on batean, aisa egingo genituzke 180 «km»/orduak «Lurrean» zehar. Zer nabaituko genuke? Eta zer nabaituko luteke kamiñoaren ertzetik gu pasatzen ikusiko ginduztekenek? Arreta jar beza orain irakurleak, harritzeko aukera izango baitu!

Has gaitezen gure Porsche'aren luzerari dagokionez gertaerak azaltzen. Garajetik ateratzeko orduan, «metro» zail, zurrun eta aldakaitz mordo bat hartuko genuke, eta haren bidez neurtuko genuke; eta ateratzerakoan, bai Porsche'an abiatu behar genuenok eta bai errepidearen ertzean guri begira gelditu behar zutenek batera, eta guztiz ados esango genuke: «Porsche hunek, eman dezagun, 3,000«metro»tako luzera du».

Neurri bat gurekin hartuko genuke guk, eta gure lagunek beste bat, biak beraz guztiz berdiñak eta guztiz aldakaitzak; eta bidean barrena abiatuko giñake. Porschearen habailla-markagailuan 180 «km»/orduan irakurtzean, gure neurkiñak hartu, eta Porschearen luzera neurtuko genuke: berriz ere 3,000 «m» justu idatziko genuke. Ezta milimetro bat luzeago, eta ez motzago.

Bide ertzean guri begira gelditu ziranek, aldiz, asma ditezkean neurpide guziak arretaz erabili ondoren, eta karkuluak bost aldiz birrikusi ondoren, hau esango luteke: «Porsche hori moztu egiten da abiatzen zeratenean: guk 2,958 «m» neurtu dugu behin eta berriz».

Berriz ere egingo genuke frogabide berbera; baiña aldi hontan 270 «km»/o. hartuko genituzke. Zer oharraraziko genuke guk eta zer lurrekoek? Guk, 3,000 «m» neurtuko genuke berriz; baiña gure lagunek 2,905 «m» besterik ez.

Habailla haundiagoan pasa, eta gure berebilla, lurrekoen ustez, gero eta motzagoa luzeraren aldetik. Gu bidarion ustez, aldiz, beti bat.

Nork luke egia? Bai berek eta bai guk! Porsche horren luzera zein dan, edo zenbat dan, era hortara galdetzeak, Einstein'en aurreko pentsaera izatea erakusten du. Porsche horrek 3,000 «m» ditu Porschearen sisteman, eta 2,958 «m» edo 2,905 «m» soegilleen sistemetan. Egia ziñez nork duen galdetzeak, denboraren neurri absolutuaren siñismen bat dagoela adierazten du. Hots, eta hortxe dago okerra: denbora bakar eta absoluturik ez dago munduan! Neur ahal izateko, Porschearen bi muturretan *batera* jarri behar ditugu guk metroaren buruak; eta berdin soegilleek. Baiñan Einstein'ek irakatsi digunez (eta Errelatibitate Bereziaren frogakariak hor daude, ermo, zindo, bai Fisikan eta bai Astronomian), bateratasunik ez dago. Porschearen barruan gaudenon bateratasuna, eta kanpotik begiratzen gaituztenena, ez dira bat eta berbera. Guk batera jarri uste ditugu metroaren bi muturrak neurtzerakoan, baiña gure lagunek ez dute hori uste. Eta alderantziz. Hortik ezin alkar hartzea.

Baiñan, are harrigarriagoa: Porschearen goratasunaz, danok bat gentozke: Porscheak 1,20 «m» lituzke beti, bai geldirik eta bai abiatu ondoren, bai barrengoan ustez eta bai kanpokoen ustez, bai 180 «km»/orduan pasatzean, eta bai 270 «km»/o.n. Goratasunaren neurketa hau habaillaren sentiduan egiten ez dugulako, gure artean ez legoke nahaspillarik batere.

Hortaz harrituta, ordea, gauza bat egin genezake: bai guk Porschean eta bai gure soegilleek bide-ertzean, metroa tinko heldurik, alkarri erakutsiko genioke neurkiña. Eman dezagun bai berek eta bai guk asma ditezkean neurgailurik zorrotzenak eta zehatzenak hartu ditugula gure neurketak egiteko; eta Optika hutsaren legeak guztiz ezagutzen ditugula, eta karkulatzen ere hutsik batere egiten ez dugula. Lehendabiziko pasaldian bai berek eta bai guk gure neurkiñak guztiz errara jarriko genituzke; eta bigarreanean, aldiz, guztiz zut, bai guk eta bai berek.

180 «km»/orduan pasatzerakoan, hauek izango lirake erantzunak gutxi gora behera:

Guk: «Lehenengo aldiz zuen aurretik igaro geranean, zuen metroak 0,986 «m» luzera zuen, eta bigarreanean, 1,000 «m» justu».

Berek: «Lehenengo aldiz gure aurretik igaro zeratenean, zuen metroak 0,986 «m» luzera zuen, eta bigarreanean, 1,000 «m» justu».

Hitz berberak; eta metroak... gomazkoak, itxura danez!

270 «km»/orduan igarotzerakoan, 0,986 idatziko genuke 0,968'ren orde. Gaiñerantzekoan berdin.

Baiñan askoz harrigarriago izango litzake dana guk «Caravelle» bat hartu ezker; eta gure lagunuen aurretik (aideportuaren hegian guri begira aldi huntan jarriarik) behin eta berriz, neurkiñak agiri, 900 «km»/orduan igarotzean.

Metroa bai guk eta bai berek errara jarri ezker, soegilleen metroak 0,553 «m» neurtuko luke gure tresna guzietan; eta beren metroak, alderantziz, 0,553 «m» gureetan. Beren ustez gure «Caravelle»a txit moztuta inrudituko litzaeike; baiña guri ere, era berean, soegilleen buruak zapalduta bezela irudituko litzazigiguke, rugby-peloten modura! Gure ustez, eta hau gure neurkaillu guzietan eta karkulu guzien ondorioz, gure «Caravelle»ak luzera berbera gordeko luke bidaia guzian; eta jetxi ondoren ere gauza bera.

* * *

Fenomeno horren karkoa denboraren batasunik eza da.

Baiña gure erlojuetan fenomeno askoz harrigarriagoak gertatuko lirake. Nahiz danok erloju berberak izan, eta irakurleak

nahi ditzakean bezin zehatzak (atomikoak, edo beste), desordenua larriagoa litzake huni buruz.

«Caravelle»ra gu igo, beraz, eta 900 «km»/orduan abiatuko giñake. Habailla huntan joanez, guk ez genuke ezertan ezer nabaituko gure hegazkiñaren barrenean: alegia, gure erlojuek betiko abiadan jarraituko luteke, gure bihotzaren taupadak betikoak irudituko litzaizkiguke, eta, hitz batez, «Caravelle»aren barruan, dana beti bezela gertatzen ikusiko genuke.

Kanpokoek, aldiz, ez. Guri begira leudekean soegilleek inundik ere ez luteke iritzi berbera emango. Gure lagunuen ustez, gure «Caravelle»aren barruan dana loakartua bezela ikusi zutela esango liguteke, dana nagitua, moteldua. Eddington'ek maltzurki esaten duen bezela, gure zigarroak polikiago erreko lirake lurrekoen ustez berenak baiño; eta hortik, bekaizkeria ikaragarri bat sortuko litzake lurreko erretzailleen artean... Lurreko jendeek hori ikusita, «Caravelle»ra sartu nahiko luteke, zahartzeko gogorik nunbait batere ez izanik... Lurreko gure adiskideen ustez, gure denbora ez litzake berena bera izango: lurrekoen erlojuetan miñutu bat pasa orduko, guretan 33,16 segundu baizik ez lirake pasako. Arnasa ere, beren ustez, guk emekiago, polikiago, hartuko genuke; «Caravelle»aren mundua, hitz batez, lurretik ikusirik, nagitua, eta geldiago irudituko litzake lurrekoa baiño.

Esan beharrik ez dago, nere ustez, hau ez dala «science-fiction»: Einstein'ek, ez istillurik gabe hau ere, Nobel-Saria lortu zuen; eta Errelatibitatearen iragarpenak orain arte hitzetik hortzera frogatu dira. Esan beharrik ez dago ere fenomenuen harriagarria ez datzala ez tresnetan eta ez karkuluetan. Gauza ageria da, dana dala, bai guk eta bai soegilleek ateratzen ditugun ondorioak aditzera eman baiño lehenago, argiaren joan-etorrien diferentziak kontutan hartuak izan dirala, eta egokiro zuzenduak. Kakoa errealitatean dago, ez gure iritzietan edo karkuluen hutsetan, ez gure bihozkadazko iritzietan. Munduaren izana hor dugu, herrigarri bazaigu ere. Fenomenuak bederen horiek dira.

Harira bihurtuz, guk fenomenu berberak ikusiko genituzkean «Caravelle»tik gure soegilleei begiratuta. Gure ustez gu ez-baiña berak lirake moteldu ziranak, beren zigarroak lirake polikiago erreko gureak baiño, beren arnasa litzake gurea baiño geldiagoa; eta gure erlojuetan miñutu bat pasa orduko, lurrean daudenen

erlojuetan 33,16 segundu baiño gehiago ez lirake pasako. Gure ustez, beraz, eta gure tresna eta neurgaillu guzietan, lurreko munduak nagiturik lirudike, eta ez gureak. Gurea normala irudituko litzaiguke, betikoa.

Habaila azkartu ala (nahiz eta hunentzako gero eta motore indartsuagoak behar izan (10), fenomenua gero eta ukatu-eziñago egingo litzake.

Gure «Caravelle»k 1.060 «km»/orduan har ahal balitza, lurrekoen erlojuek miñutu bat egin orduko, «Caravelle»koek 8,16 segunduz baizik ez luteke aurreratuko, lurrekoen ustez hau; baiñan, alderantziz ere gure iritziz, miñutu batez gu hegazkiñeko bideazkook zahartu orduko, lurrekoak 8,16 segunduz baizik ez lirake zahartuko.

Argiaren habailla (1.080 «km»/o. gure alegiazko mundu hortan) inñolaz ere iritxi eziña izango litzake. Baiña 1.080 «km»/o. har ahal izan ezkerero, dana gelditurik ikusiko genuke «Caravelle»tik. Fotoi batetik, esate baterako, gure soegilleen erlojuak eta beren inguruko guzia geldirik agertuko litzaiguke (karkuluak eta nahi dan guzia xuxen egin ondoren). Denborarik gabe bezela, fotografia batean bezelaxe, denbora hilla.

Beste adibide bat: lurrekoen ustez gure «Caravelle»a 900 «km»/orduan ari iparraldera; eta beren ustez ere beste «Caravelle» bat, 900 «km»/orduan, hegoaldera ari, gure ondotik. Alkarrekiko habailla neurtu ezkerero, bai guk eta bai beste «Caravelle»koek, gauza bera aurkituko genuke: alkarrekiko gure habailla ez da 1.000 «km»/orduan, 1.062,3 «km»/orduan baiño!

«Egia ote da?», galde dizaidake irakurleak. Nere erantzun bakarra, Einstein'ena izan ditek: Zein sistematat? «Zein soegilleri buruz egiten didazu galdera? Karkoa hemen da. Denbora ez da bakar bat, bateratasuna ez da ezer. «Caravelle»tik eta lurretik itzuletara agertzen dira fenomenuak. Zuzen nork ikusten duen, eta nork oker galdetzen duenak, oraindik ez daki fenomenuen izana eta denbora *errelatiboak* dirala. Einstein jaiotik aurretik bezela ari da galdezka.

* * *

(10) Eta ez irakurleak beharbada pentsa dezakean araberan, inertziari buruzko gora-beherak gero ta nabarmenago baitira.

Hauek guziak bezin harrigatria da tren luze batean gertatzen diran gauzak.

Eman dezagun tren luze bat (beti eskala berrian gaude): «kilometro» bateko luzerakoa adibidez. Eta eman dezagun, lehen bezela, burnibidearen ondoan begira jarririk, soegille talde bat utzi dugula. Eta eman dezagun, lehen bezela ere, denen tresnak eta jakinduria nahi bezin zuzenak eta sakonak dirala.

Demagun orain gu trenean gaudela: trena, esate baterako, 360 «km»/orduan pasako da gure soegille-taldearen aurretik, eta gu barnean joango gera.

Denboraren araberako fenomenuak ongi aztertzeko, trenaren luzera guzian barrena larogei eta hemeretzi erloju handi jarriko ditugu, batetik bestera 10 «metro»tako tarte bat utziz, soegilleak dauden aldera begira bagoieko leihoetan zintzilikaturik, gu trenarekin handik pasatzean gure lagun argi eta garbi ikus ahal ditzaten. Baiñan hau ez da aski: erlojuak xuxen bateratuak izan behar dute, ongi sinkronizatuak. Hortarako trenean bertan jaiutuko ditugu: trenak 360 «km»/o. hartu bezin laister, nahi diran neurgailuak, argi-siñaleak eta azterketak oro egin ondoren, gure erlojuen sorta ongi batera jarriko dugu. Trenekook ziur egongo gera (eta egia dugu!) gure larogei eta hemeretzi erlojuak guztiz batera doazela. Gure lagunuen ondotik pasatzean, zer ikusiko dute berek? Zer ondorio aterako dute hobe, karkulu guziak egin ondoren? Irakurleak arreta jar beza.

Gure lagunek ez dute deusik ulertuko, eta siñistuta egongo dira erloju mordo bat bateratzen ez dakigula.

Alde batetik hau esango dute: «Zuen erloju sortak, gure aurretik pasatzerakoan, erlojuen arteko tarteei dagozkien gorabeherak ongi karkulatu eta kontuan hartu ondoren beti, gure erlojuak baiño laisterrago ematen ziguten zuen ordua. Ez dugu zalantzarik batere: zuen erlojuak, zuek diozutenez, ongi bateratuak zeuden ezkerre, zuen denbora gurea baiño laisterrago zijoan. Lehenengo erlojutik azkeneraiño zuen erloju-sortak 9,800 segundutako tarteak erakutsi du; baiña guk 9,242 segundu neurtu dugu. Zuen erloju-sortak aurreratu egiten bide zuen gure erlojuen arabera».

Eta geroago hau erantsiko: «Baiña karkuluak behin eta berriaz egin ondoren, nahaspillaren kakoa aurkitu dugula uste dugu: ez dituzute erlojuak ongi bateratu; trenaren aurreko erlo-

juak atzeratuak zijoazen atzekoen arabera, eta alderantziz. Lehenengo erlojua, tren-gidariaren ondokoa hitz batez, gure datoen arabera eskierki agertzen danez, bigarrena baiño pittin bat atzerago zijoan, 0,00572 segunduz zehatz; bigarrena hirugarrena baiño atzeratuxego, eta abar. Azkena zan aurreratuena, 0,558 segundu horiek hain zuzen. Ez dakizute erloju-sorta bat batera jartzen».

Nork luke egia? Bai guk trenekook, eta bai lurekoek! Gure erlojuak, treneko erlojuen sorta alegia, batera zijoazen gure sisteman, ongi bateratu genituen guk; baiña guztiz nahasturik zeuden soegilleen ikus-puntutik. Bateratasuna trenekoen ustez bat da; baiña kanpokoek ez dute gauza bera uste, eta trenekook sinkronizatzen ez dakigula pentsatzeko eskubide osoa dute.

Huntara ezkerro, ba dakit, irakurleren batek, edo gehiagok, hau pentsatu dukete: «Nahastu egin zera; orain dala zenbait lerro esan diguzu, geldirik zeuden soegilleen ustez «Porsche»ko erlojuak, edo «Caravelle»koak, atzeratu egiten zutela; eta orain alderantziz diozu trenari buruz. Zertan gera?».

Susmo hori neuk ere izan nuen nere hastapenetan; eta Errelatibitatearen ideiak errazki ulertzen dirala uste badu rakurleaki, oker dago. Susmo hori, halere, ez da bidezkoa. Geldirik dauden gure lagunek treneko erloju horietako *bakar bat* segitzen baldin badute, eta berari buruz azterketak eta karkuluak egiten badi-tuzte, erloju *bakar horrek* atzeratu egiten duela pentsatuko du-te, «Porsche»ko eta «Caravelle»ko gure erloju bakarra edo gure zigarroa ikusten zutenean bezelaxe. Baiña erloju sinkronizatu-en *sortaren* segida aztertzen badute (beren aurrean, trena igaro ala, agertzen diranak segidan begiratuz eta banan-banan bakoitzaren orduaren nota hartuz), orduan ordu-segida horrek, ordu-sorta horrek, bateratasunik ez baitago sistema batetik bestera aldatzean, atzeratu ez-baiñan *aurreratu* egiten duela kausituko dute. Nola hori? Kalkoa hau da, berriz diot: erloju horiek, 99 erlojuak alegia, trenekoen ustez, trenaren sisteman hobe, ongi sinkronizatu-rik daude: erloju bat begiratzea ala beste bat berdin da. Baiña trenetik atera ezkerro, kitto: 99 erloju horiek ez dirudite, ez *daude*, ez sinkronizaturik eta ez gutxiagorik ere; eta ez da ber-din bat begiratzea ala beste bat. Soegilleak trenetik at baitau-de, 99 erloju horiek bateratu gabe ari dirala uste dute; eta arra-zoin osoa dute ere! Horregatik erlojuen sortan irakurri ezkerro, denbora laisterrago iruditzen zaie.

Trena luzeago izan, edo habailla haundiago; eta fenomenua nabarmenago izango litzake.

Hau ez da alegiazko ipuin bitxi bat, eta astronomoek ba dakite.

* * *

Ba du besterik Errelatibitate Bereziak, eta ez arruntagorik. Egon gaitezen beti gure eskala berrian: argiaren habailla, beraz, 300 «m»/segunduan. Euskal Herria ere eskala berri hortan jar dezagun.

Eman ditzagun bi «gertaera», Donostia'ko kaseta batek emanak esate baterako: A) Donostia'n, Jorraillaren 12-ko 14-30 etan, argi-siniale bat; eta, B) Iruñe'n Jorraillaren 12-ko 14-30 etan, beste argi-siniale bat (11). Nere galdera harrigarria hau da: zer da lehenago: Donostia'n ordu bi t'erdietan emango dan sinialea, ala 14-31 etan Iruñe'n emango dana?

Erotu ote naizen pentsa dezake irakurleak. Egia esateko arrazoin ote duen ez dakit; baiñan ez, dana dala, egin dudan galde-rarengatik...

Erantzuna hau da: «galdera horrek ez du funtsik». Hau izan behar litzake galdera: «Urliaren sistemari buruz, zer gertatu da lehenago: Donostia'ko sinialea, ala B Iruñe'koa?». Hau bai, hau erantzun egin diteke; beste galdera absolutu hura ez. Eta bigarren hau berau ere, karkulurik egin gabe, hunela erantzun behar da: «Ez dakit»...

Ezin diteke esan, kontuz, hori beti hala danik. Asmatu dudana *berariaz* hartu dut $c.t < 1$: eskala berrian Iruñe eta Donostia behar bezin urruti daude. Kasu huntan, goiko galderak ez du funtsik; baiña bestetan ba luke (12).

(11) Errelatibitatean, egiazko kondairan bezelaxe, «gertaerak», puntuak beraz, lekua eta denbora batera ematen dira; non eta noiz, beraz: (x, y, z, t): hiru leku-koordinada eta denbora-koordinada bat. «Leku-Denbora»ko puntu horri «event», «événement», «suceso» deitu ohi zaio erderetan; eta «gertaera» beraz euskeraz.

(12) Kontuz ibilli behar da ondorioak ateratzean. Ohiko kasuetan, gure munduan eta kondairan batez ere, dana bertan dago, oso urbil. Eta lehenago zer dan galdetzeak ba du erantzun erraz bat, danontzako on. Einstein'ek Errelatibitate Bereziaren frogatu duenez, inbariantea ez da bi gertaeren arteko denbora edo epea (gure adibidearen miñutu hori, esate baterako, 14-31 —

Eman dezagun gure lagunak lurrean gelditu dirala, Txindoki'ko tontorrean esate baterako; eta handik egiten dituztela beren neurketak. Hauen ustez zalantzarik ez legoke: berrilariak arrazoin du, eta Donostia'ko kasetak ere bai: lehendabizi Donostia'ko gertaera gertatu da, eta handik miñutu batera Iruñe'koa. Bi gertaeren arteko tartea ere ziur lekikete zenbat dan: 90 «kilo-metro».

Baiña gu Errelatibitatearen berri izan nahi dugun ezkerro, Hondarribi'ko aideportura joango gera, eta han gure «Caravelle» famatua hartuko dugu, Donostia'tik Iruñe aldera joateko. Eman dezagun azterkizuna berriz egiten dala, ordu beretan eta leku berberetan. Donostia'koek eta Iruñe'koek ongi bateratu dituzte beren erlojuak, eta xuxen dakite zer egin behar dan: Donostia'tik ordu bi t'erdietan punttun A siñalea bidaliko digute, eta Iruñe'tik miñutu bat geroago B siñalea. Gure «Caravelle»ak 900 «km» orduan egiten ditu bidaia guzian, beti Iruñe aldera abiaturik.

Txundituta geldituko gera. Karkulu guziak ongi egin ondoren (berriz ere diot karkuluen konturik ez dagoela hemen), Donostia'tik Iruñe'ra 135,680 «km» neurtuko ditugu, eta siñaleei buruz okerrago: Iruñe'ko siñalea Donostia'koa baiño 5 miñ. 43,723 seg. *lehenago* bidali digutela erabakiko dugu ahobatez «Caravelle»ko guziok (13).

Puntu hauetan kontuz ibilli behar da. Ez dut nik esan siñaleen argi-printzak illara hortan *gure begira* iritxi diranik, nahiz hau ere posible izan. Hori xinglegia litzake: hortarako Einstein bat ez zan behar! Nik besterik diot: «Caravelle»tik ikusirik, B siñalea A baiño lehenago *gertatu dala*: bidari guziek, tresna eta

14,30 = 1 min); baiña $s^2 = c^2t^2 - l^2$, «interbalo» deritzana. Gure etsenpluan, eta gure eskala hortan, inbariante hori hau izango litzake: $t = 60$ seg.; $c = 300$ «m»/seg.; $l = 90$ «km» = 90.000 «m». Beraz: $s^2 = -7776 \cdot 10^6$ «m»². $s^2 < 0$ danean, hain zuzen, bi gertaeren illara edo heronka absolutuki zein dan galdetzea eziña da. Hori gertatzen da gure adibidean. Hori dala-ta, tankera hortako gertaeren artean kausalidaderik ere ez dago: A ezin ditek B-ren iturburu, eta ez alderantziz. Lehenago zer gertatu dan ere ezin erantzuna da.

(13) Aski da Lorentz'en ekuazioak berriz erabiltzea. Ez ditut hemen idatziko. Ondorioak bere buruz atera nahi dituen irakurleak aski du, esate baterako, Landau-Lifchitz'en «Théorie du Champ» hartzea (21 gn.horr.) edo Couderc'en «La Relativité» (61 gn.h.). Lorentz'en ekuazioak ez dira batere zailak. eta liburu askotan atxeman ditezke.

neurgailu guzien arabera, karkulatzaille guziek, danok ahobatez lehenagokotzat hartuko dute B gertaera, eta ez A; sistema hortan siñalean illara horixe baita.

«Caravelle»k 216 «km»/orduan egin ezkerro (14) neurri guziak ongi burutu ondoren, hau esango luteke bidari guziek: «A eta B siñaleak momentu berean bidali dizkigute Donostia'tik eta Iruñe'tik. Bi euskaldun hiri horien artean, bestalde, 88,182 «km» neurtuko luteke, eta ez 90 «km».

«Caravelle»aren habailla eta bidea aldatu ala, mota guzietako ondorioak izan ditezke.

A eta B gertaeren illara edo segida, beraz, soegilleen arabera da. Donostia'ko berrilariak egia du: Donostia'ko siñalea Iruñe'koa baiño miñutu bat lehenago gertatu da, eta Donostia'tik Iruñe'ra 90 «km» dira. Baiña baita bi «Caravelle»etakoek ere egia dute: A eta B momentu berean gertatu dira kasu batean, eta B siñalea A baiño aisa lehenago bigarreanean. Denek dute arrazoin, nork bere sisteman. Gertaeren segida ($ct < 1$ baldin bada bakarrik, kasu!) berez da errelatiboa.

Atomoaren maillako mesoi μ , π , eta K, deritzaten partikulak erakutsi dute azken urte hauetan Errelatibitate Berezia egiazkoa dala denborari buruzko bere aurkikunde harrigarrietan. Hiru mesoi mota horietan dago frogaturik partikulen «biziera» edo iraupen erditsua —gure sistematik neurtua— luzeago egiten dala gurekiko partikularen habailla haundiago egin ala. Seirehun metrotan lehertu behar zuten μ mesoiek, esate baterako, baita hamar kilometroz irauten dute. Gaurko egunean fisikariek ez diote fenomenu huni Errelatibitateak eman dezakean azalpena baizik aurkitzen: alegia, μ mesoiak oso azkar datoz gudanantz (ia 300.000 km/seg.), eta beren iraupena edo biziera, mesoiaren sisteman neurtua, berbera eta betikoa egon arren, gurean neurtu ezkerro (Lurretik neurtu ezkerro, beraz, eta ez mesoi-elitik) luzeago agertzen da. Mesoiek, hitz batez, beren sistemako 600 metro egiten dituzte, eta $2,2 \cdot 10^{-6}$ segunduz irauten. Baiña mesoiak

$$(14) \text{ Aski du irakurleak } t - \frac{v}{c^2} = 0 \text{ egitea; gure etsenpluan } 60 =$$

$$\frac{v}{300^2} \cdot 90.000; v = 60 \text{ «m»/s., hau da: } v = 216 \text{ «km»/orduan.}$$

diran hegazkin azkarretatik aldatzean (gu ez baikoaz berekin batera), mesoiaren denbora nagitua agertzen zaigu guri. Mesoiaren iraupena, hortaz, errelatiboa da, eta guri luzeago iruditzen zaigu.

Mesoiaren ustez, aldiz (mesoiek usterik baldin badute...) lokamutsetan baiño askosaz ere polikiago geu mogitzen gerala irudituko zaie. Geu irudituko gatzazkie perlesiak joak.

Filosofiari buruz aurkikunde hauek ekarri dituzten ondorioak, eta piskanaka ekarriko dituztenak, aipatu beharrik ez dago. Batzuk ez dute hau guzia osotara siñistu nahi. Errelatibitate Bereziak argi eta garbi dio: alkarrekiko habailla aldagabea higitzen diran sistemetan, legeak inbarianteak dira, plegu berekoak. Bi sistematan ateratzen diran ondorioak, nahiz ondorio desberdiñak izan itxuraz, balio berekoak dira. Denbora, espazioa eta habailla, bestetik, berezi eziñak dira aurrerakoan. Filosofo zaharren denbora abstrakto hura (eta ez gutxiago Geometria zaharraren espazioa) ezbatua izan da. Siñispenek gotorrenak eta egirik agerrienak koloka gelditu dira. Bateratasunaren ideia funditua izan da: «Soegille batzuentzako 't lipar edo une berbera' dalakoa, suntsitu egin da: ez dago ezer horrelakorik soegilleak alkarrekiko geldirik ez badaude», dio B. Russell'ek (15).

Hau guzia astindu ikaragarria izan zan intelektualen munduan 1905 ezkerotik. Baiñan Einstein ez zan halere hortan gelditu; eta handik hamar urtetara zalaparta haundiago bat egin zuen Errelatibitate Jenerala azalduz, eta Errelatibitate Berezia bera gutxi gora-beherako inguramendu hutsen maillan utziz...

* * *

Gorago esan dudan bezela, Errelatibitate Jenerala ziñez ikasteko, oso ahalegin haundia egin behar da. Hastapenetik beretik oso zailla da edozein aldetatik sakonki ulertzea. Ez da Berezia bezela: Jeneralean Matematikaren eta Fisikaren aldetik gogor ekin behar da hasi aitzin. Ahalegin horiek egitea balio duela iruditzen zait neri; eta fisikalariek txalo ugariak jotzen dituzte Errelatibitate Jeneralaren alde: «Eskierki Fisika-teorien artean ederrena da», dio Landau'ek (16); Weyl'en ustez, Einstein'en teoria hauxe da «pentsamendu hutsaren indarraren frogakaririk ede-

(15) ABC de la Relativité, 59.

(16) Théorie du Champ, 304.

rrenetako bat» (17); eta Charon'ek: «Zalantzarik gabe, Naturela-za edo Izadia ulertzen saiatzean, giza-izpirituak sekulan lortu duen arrakastarik ederrena da» (18).

Baiña, zoritxarrez, funtsezkoa bezin zailla ere da, denen ustez: «Matematikarieren beren artean gutxi dira teoriaren atal gu-ziak osoki ulertzeko gauza diranak», dio Couderc'ek (19). Lan-gevin'en ustez, lehendabiziko urteetan hamabiren batek konpre- nitzen zuten Errelatibitatea. Are hestuago irizten zuen Edding- ton'ek, fama danez. Halako batean bere lagun batek hau esan omen zion: «Eddington irakasle: zeu zaitugu Errelatibitatea mun- duan ulertzen duten hiruetatik bat». Eddington urduri-edo jarri omen zan hori entzunda, eta lagunak ekin omen zion: «Ez duzu zertan lotsaturik, irakasle: apalegia zera». «Ez, ez» —erantzun omen zuen astronomoak— «baiña hirugarren hori nor ote dan ez dut garbi ikusten». Pasadizu hau egia ez bada ere, 1920-eko giroa ongi azaltzen du.

Ikasi egin behar, baiña guztiz ikastea behintzat ezin: ezin as- ma ere horrelakorik. Bi muturren artetik aintziñatu behar ahal dan bezin aurreraíño.

Matematikaren alderdia saiakera huntan alde batera utzi- rik (20), azter ditzagun guk Einstein'en iragarpen hutsak. Irakur- lea orain arte harritu baldin bada, orain izutu egingo da; eta hutsunean gelditzen ari dala pentsatuko du.

Joan gaitezen, berriz, Hondarribi'ra (eskala berrian gaude be- tí: argiak 300 «m»/seg.). Gure «Caravelle»a han dago, eta han hartuko dugu. Gure erlojuak eta lurrean geldituko diranetak ba- teratu egingo ditugu; eta gu hegazkiñera igo, gure lagunak agur- tu, eta ibillaldi luze bat egingo dugu aidean barrena; gero berriz Hondarribi'ra jetxiko gera, gure lagunak gure billa heldu dira- larik.

Danon erlojuak aideportuan alderatu, eta hura harrigarria: gure erlojuak atzeratuak agertuko dira jeistean. «Caravelle»ko bi- dari guzien erlojuak atzeratuak!

(17) Temps, Espace, Matière, 194.

(18) 15 Leçons, 19 gn.h.

(19) La Relativité, 105.

(20) Punto hauetaz Landan-Lifchitz'en «Théorie du Champ» dalakoa iruditzen zait sakona eta argia, eta hori gomendatzen diot irakurleari.

Hutsen bat itzuri ote zaigun, eta berriz ere abiatu, danon erlojuak ongi bateratu ondoren, itzuli bat egin, jetxi, eta berriz gure erloju guziak lurrean gelditutakoen erlojuen arabera... atzeratuak. Baiñan ez beti segundu edo miñutu berberak: bidaia ba-koitzean, egindako bidaiaren luzera desberdiña baldin bada, edo habailla-sorta diferente eta aldakorretan egiña baldin bada, atzerapen desberdiñak kausituko ditugu.

Eman dezagun orain «Caravelle» berezi bat hartzen dugula, bidaia luzetarako egoki prestatua; eta indar haundiaz orniturik, 1.050 «km»/orduan joateko gauza dala. Urtebete egin dezagun lekugunean, alde batera eta bestera joanez. Hondarribi'ra etortzean jendea zahartuta aurkituko genuke, eta agure asko hil ere egin zala esan liguteke.

Langevin fisikarariak arrabots ikaragarria egin zuen orain dala urte batzuk fenomenu hau azaldu zuenean. Bere etsenplua hau izan zan: eman dezagun misilo batean abiatzen gerala izarren artetik, eta urtebetez beti aurreruntz jarraitzen dugula, Lurretik gero eta urrunago, eta beti 299.625 km/seg., ia-ia beraz argiaren habailla berean (21). Urtebetea pasa ta gero (urtebete hori, noski, geure erlojuetan neurtuko genuke), tenk-egin, eta atzera berriz: Lurreruntz berriz, urtebetez habailla berean beti, Lurra ikutu arte nahi dan bezela geldituz. Misilotik jetxi, eta zer ikusiko genuke? Langevin'en erantzuna ezaguna da: Lurrean berrogei urte igaroak zirala. Ateratzean ezagutzen genuen munda suntsitua litzake guretzako, arras guri buruz zahartuta: ez gure iritziz, ez: *gure arabera* adierazi nahi dut, gure neurgaillu guzien arabera: bihotz, erloju, edo beste (22).

«Langevin'en Bideazko» (edo Bidari) famatu hunek Europa'n jarri zuen iskanbilla ez zan txikia izan. Gertakaria siñistu dan ezker, sofisma baten aurrean bezela jokatu zan jendea: batetik eta bestetik Langevin'en Bideazko hau iruzur bat, edo alegiazko ipuin aldrebes bat bederen dala agerrerazten saiatu ziran gehie-

(21) Alegiazko gure etsenpluen neurrira jartzeko, gure «Caravelle»ak 299,265 «m»/seg. hartu beharko luke, hau da, 1.078,65 «km»/orduan.

(22) Langevin'en misiloak bira nola eta zenbat denboraz egiten duen, itzultzen hasteko alegia, eta berdín abiatzeko eta gelditzeko miñutuak, ongi eta zehatz ezagutzeak ba luke bere inportantzia; baiña bira, abialdia eta tenkaldia egiten dituen denboran ere, misiloko denbora polikiago doa Lurrekoa baiño. Horiek, beraz, laister egiten baldin badira batez ere, Langevin'ek ematen zuen 40 urtetako kopurua ez da sakonki aldatzen.

nak. Baiña Langevin fisikalaria —Fraintzia'n Einstein'en irakasle nagusia, España'n Terradas eta Cabrera, Ingalterra'n Eddington, et Belgika'n Lemaître bezela— ez zan oker: Paul Langevin'ek xuxen azaltzen zuen gauza, fenomenua horrelakoxea da, eta Langevin'en Bideazkoaren «mirakuillua» egia hutsa baizik ez da.

Neu ere, aitortzeaz ez naiz lotsatzen, Langevin'en Bidari huren akatsa billatzen saiatua naiz ordu askotan. Baiñan akatsik ez dago: misilo batean sartu, eta *jon-da-etorria* egin ezker, gure denbora ziñez nagiago igaroko litzake misiloko guzientzako.

Eta huntan ez dago errelatibotasunik batere. Errelatibitate Berezian bai: mogimenduak habailla aldagabe batean egiten diranean, azelerazioen aztarnarik ez dagoeno beraz, «galileotar» sistemetan, errelatibotasun hori guzizkoa da. Esan beharrik ez dagoela iruditzen zait errelatibotasun hau eta ustezkotasuna, subjektibismoa, Kant'en erako irizpide bat esate baterako, ez direla inñundik ere antzekoak. Hemen ez dago «uste»rik ezertan. Errelatibotasuna *sistemaren mogimenduan* datza, eta ez sendimenduan edo iritzietan. Einstein Kant'en kontra mintzatu zan behin eta berriz; Errelatibitatearen fenomenuak ez baitira ustezkoak, gauzakzakoak baizik. Gauzatasunak egiten ditu errelatibo, ez gure «ustek» edo «ez ustek».

Lehenengo azalpide-sortako etsenpluetan, soegilleek eta guk gauza bera ikusten genuen hein batean. A eta B siñaleen azalpidean bertan, ez zegoen absoluturik ezer: «Caravelle»ak tarte desberdiñak topatzen zituen Iruñe'tik Donostia'raiño; baiña, Lurretik ikusirik, bestaldera ere pentsa zitekean «Caravelle»ak egindako bideari buruz: alegia, laburrago zala «Caravelle»koek uste zutena baiño. Baiña «Caravelle»aren ibilkizuna ez zegoen zeruen nabarmen markaturik, eta horrengatik nahas gindezkean. Lurrari buruzko aztertzailleek habailla aldagaberen sorta batean neur-tuko balute Donostia'tik Iruñe'raiño tarte, tarte hori zenbat dan jakiterik ez legoke. Neurri guziak desberdiñak lirake, eta danak bai ontzat eta bai txartzat hartzeko modukoak.

Errelatibitate Jeneralean ez dago horrelakorik. Egindako bidaiaren arabera aldatzen da neurtutako denbora, hau bai. Baiñan ez dago ordaintasunik (23).

(23) Err. Bereziak «invariantek» aipatzen zituen puntuan, Err. Jeneralak lege edo kopuru «kobariantek» aipatzen ditu. Fenomenuen ordainta-

Langevin'en misiloak (joan-da-etorrian ari), eta joan-da-etorri egiten duen «Caravelle»ak, *joan-da-etorri* egiten dutelako hain zuzen, gelditu eta abiatu egiten dutelako, zuzenetik baztertzen diralako, habailla batetik bestera aldatzen diralako (bestela nola bihur atzera?), azelerazioen menpean daude; eta, beraz, Errelatibitate Jeneralaren arabera gobernatzen dira. Lurrean igarotzen dan denbora eta misiloan igarotzen dan denbora, *ez dira* berdiñak, *ez dira* ordaingarri edo alkarren trukagarri. Lurreko jendea egiazki zahartu da guri buruz. Bidaian guk ez dugu ezer bitxirik nabaitu —ezpada habailla aldatze bakoitzean eta biretan goragale azkar bat— eta Lurrekoek ezertxo ere ez, ezta goragalealdi horiek ere, habailla aldagabean higitu baitira Lurrarekin batera. Gu berriz puntu berera goazen ezker (eta, hortaz, gure sistema galileotarra ez dan ezker, habailla aldagabe berbera bidaia guzian barrena eraman ez dugulako, eta atzera bihurtu generalako), gure denbora, misiloan dagoen denbora, *egiazki* nagitu da: atomoen bidez, arnasaren bidez edo nahi dan eran neurturik, guretzako luzeago eta oparago izan da epea Lurrekoentzako baiño: gure orduak *luzeagoak* izan dira misiloan Lurrean baiño. Jeistean gu *gazteago gera*, hitz batez, gure lagunak baiño. Hegazkiñean ibiltzeak «gaztetu» egin gaitu lurrekoen arabera. Ez urterik kenduz, ez erlojuak atzeraka egiñez, hau ez; baiña bai urteak polikiago erantsiz. Gure denbora, guri buruz, berdiña izanagatik ere, Lurrekoen arabera nagiagoa izan da. Gagarine bera ere, zalantzarik ez, gazteago du gaur bere herrikideek uste dutena baiño; baiña adin-liferentzia hori guztiz txikia da, Gagarine'k egin zituen habaillak oso txikiak baitira argiaren habaillaren arabera.

Zail da hau guzia xuxen eta errazki konpreniarazten. Batez ere kakoa zertan datzan ikustea ez da erraza, eziña da Matematikaren funtsa ongi ulertu gabe. Baiña, siñistuta egon, Langevin'en Bidariaren azalpidea xuxena da. Huna hemen, ekuazioak alde batera utzita, Landau'ek ematen duen azalpena: «Bi erloju hartzen baditugu orain gogoan, bata beti toki batean finkatua, eta bestea, inguru bat egin ondoren, finkaturik gelditu danaren aldera iritxi berria, erloju bidaria atzeratuta agertuko da (mogitu gabe egon dan erlojuaren arabera). Bestalderako azalpena, alegia erlo-

guna, alkarrekiko berdin agertzea alegia, Err. Jeneralean ez dago. Inbariantzia eta kobariantzia sakonki ulertzeko, tentsoreen karkulua ikasi beharra dago.

juen papera edo jokabidea alderantziz ere har ditekeala, ez da zuzena; zeren-eta bidaiaren hetsia osatu duen erlojua ez baita traslazio uniformearen higitu edo aldatu. Beraz bere sistema ez da inertiakoa. Izadiaren legeak inertzia-sistemetan xoilki dira berdiñak eta inbariantek. Hortaz, mogitu gabe geratu dan erlojuaren sistema (inertiakoa) eta erloju bidaiarena (ez galileotarra, ez inertiakoa) desberdiñak dira sustraiez; eta mogitu gabe geratu dan erlojuak ere bestearekiko atzeratu egin behar duela erakutsi nahi lukean sasi-adierazpidea, ez da bidezkoa, faltsua da» (24).

Ta hitz berberetz azaltzen du fenomenua Weyl'ek ekuazioak idatzi ondoren: «Eman ditzagun bi anai bizki, «A» puntuan al-kargandik berezten ari. Bata bertan geldituko da, sorterrian (alegia, ez da bere sisteman mogituko); eta bestea bidaietan barrena abiatuko da, bere sorterrir horrekiko argiaren habaillaren mailako habaillak hartuz; anai bidari hau sorterrir bihurtzean, gelditu zan bere anai baiño nabarmenki gazteago izango da» (25).

Ausnar beza lasai, beraz, irakurleak Langevin'en fenomenu harrigarri eta ziur hau. Bestela interbalo jeneralen arazoa ikas beza, eta Riemann'en geometria, eta abar; eta azkenean etsi egin beharko du bestek bezela: Langevin'ek egia zuen.

* * *

Orain azalduko dudaren fenomenua Matematikaren aldetik Langevin'en Bideazkoaren antzekoa izan arren, zehatz jarriko dut segidan; desberdiña ematen baitu, eta ez Langevin'ena baiño ulergarriago.

Jar gaitez betiko eskalan: 1 «m» = 1.000 kilometro. Eman dezagun orain Donostia'tik Bilbo'ra joatea erabaki dugula. Egingizuna hau izango dugu: Donostia'tik Bilbo'ra lau ordu zehatzetan joan beharko dugu: nahi dugun bidetik, nahi ditugun bihurguneak eginda, nahi dugun eran: Eibar'tik pasa gaitzke, edo Gazteiz'tik edo Paris'tik: hau berdín da «rallye» huntan. Baldintza bakarra jarri zaigu: lau ordutan Bilbo'n. Zein lau ordu, dana dala? Mogitzen hasi ezker dagoeneko ez baikera denboraren «zintzotasunaz» oso ahanzkor, Lurreko erlojuen ordua hartuko

(24) Théorie du Champ, 18.

(25) Temps, Espace, Matière, 163.

dugu erabakitzailletzat. Donostia'ko eta Bilbo'ko erlojuak guztiz bateratuak jarriko ditugu aurretik; eta geuk ere nahi diran kronometroak hartuko ditugu gurekin, abiatu aurretik osoki sinkronizatuak.

Eman ditzagun hiru talde goizeko bederatzietan ateraiak. Lehenengo talde batek auto bat hartuko du, berebil arrunt bat, eta Zarauz'tik eta Eibar'til joango da, ia-ia beraz zuzen-zuzen. Bigarren taldeak, berriz, helikoptero bat hartu, eta Gazteiz'tik eta Orduña'tik joango da. Eta hirugarrenak, azkenik, «Caravelle» batean sartu, eta Paris'tik, Zürich'tik eta Salduba'tik, Bilbo'ra. Eman dezagun, dana dala, esan bezelaxe hiru taldeak guztiz batera agertu dirala Sondika'ko aideportuan. Sondikar guziek ikusi dituzte batera heltzen. Erloju nagusian ordua begiratuko dugu: arratsaldeko ordu bata jotzen ari, ezta segundu bat beranduago inor.

Nor bere tramankulutik irtenda, gurekin eramandako erlojuak aztertuko ditugu alkarrekin; eta berriz ere harrিতuta gelditu beharko: gu bidarion erloju guziak lurrekoei buruz atzeratuak aurkituko ditugu, eta itxura danez ordu nahasitan. Gure erlojuen bidez behintzat ezin ordua jakin! Berebillean etorritakoen erlojuak pittin bat atzeratu du bakarrik, oso gutxi, segundu erdi bat eman dezagun: liferentzia neurgarri litzake; helikopteroan etorritakoen erlojuak atzeratuago: zenbait miñutu eman dezagun (26); eta «Caravelle»an etorritakoenak askoz gehiago: miñutu mordo bat.

Ondorioa hau litzake, eta hau da: laisterrago joan taldea, eta lehenago iritxi... bere erlojuak siñistu ezkerok! Baiñan ez lurreko erlojuen arabera: hain zuzen ere, bideak hautatzean danak batera iritx ditezten izan dira aztertuak; eta hala izan da: Sondika'ko erlojuetan danak batera heldu dira. Bidaia eta momentu bakoitzekeo habailla eta norakoa, hain zuzen, hortaraxe karkulatu eta erabaki Donostia'n Errelatibitatea ongi ezagutzen duten fisikalarien bidez.

Nola egin genezake, zein tramankulututan sartu beharko genuke, *geure* erlojuak eta kanpokoek guztiz bateraturik iraun dezaten? Errelatibitatearen erantzuna hitsa da: inolaz ere ez. Mogitu ezkerok kitto!

(26) Bidaiaaren gorabehera guziak arras ongi ezagutu gabe ezin esan.

Zer egin genezake, ordea, kanpoko edo lurreko lau ordu horiek beti errespetaturik, gure erlojuetan neurtutako denbora ahalik haundiena izan dedin? Hau bai, hau erantzun egin diteke. Bidaia osoan Denbora-Espazioan zehar «geodesika» batetik joanda (pratikan eziña, abiatu eta gelditu beharrak dirala bide). Lurra, esate baterako, eguzkiaren ingurutik, eta ia-ia habailla aldagabea, «geodesika» batetik doa. Beste edozein erataria, beste edozein bidetatik joan ezker. *Lurrera azkenean bihurtzeko*, gure erlojuak gehiago atzeratuko luke.

Donostia'tik Bilbo'rako gure bidaiara itzulita, aski litzake, esate baterako, geldiune bat Eibar'en egitea, gure erlojuak atzerago joanarazteko.

Lurrekoen lau ordu horiek gaiñetik «kentzeko», beraz, ba genuke bide ziur bat: aski genuke «Caravelle» bat hartu (gure alegiazko eskalan), eta inguru haundi bat egin 1.079,999 «km»/orduan; ia-ia beraz argiaren habailla eta joan-da-etorrian. Konturatu orduko, gure erlojuetan segundu bat pasa baiño lehenago, hitz bat alkarri esateko aukerarik izan gabe... Sondika'ko erlojua gure aurrean ageituko litzake. Aideportuko erlojuan ordu bata irakurriko genuke eta jendea bazkaltzen ari; baiña gure erlojuetan bederatzia eta segundu pare bat besterik ez!

Are gehiago: lau ordutako bidaia bat prestatu beharrean bi urtetako txango luze bat prestatuko bagenu, Langevin'en Bidariaren fenomenua ikusiko genuke berriz ere: gure habailla argiarenaren oso ondokoa izan ezker, gu hegazkiñean gosetu orduko, Sondika'ra jetxi, eta... ehun urte, edo berrehun, beranduago aurkituko genuke dana. Aideportua ezagutu eziña; eta zai zeuden gure lagun guziak, aspaldidanik hillak eta ahaztuak.

* * *

Bigarren maillako adibide hauetan (bai Langevin'ene eta bai gure bidaia hauenean) ezagugarri nabarmen bat dago: mogimendua ez dala «geodesikoa». Einstein'ek frogatu duenez grabitazio-kosistema bat eta galileotarra ez dan sistema bat oso antzekoak dira funtsez. Erlojuei buruz eta denborari buruz, batez ere, bi sistema-multzo horietan azter ditezkean fenomenuak ez dira batera diferenteak.

Eman ditzagun bi erloju, guztiz berdiñak eta guztiz bateratuak. Utz dezagun bata Lurrean urtebetez; eta bestea izar aztun

eta bildu batera eraman dezagun (27). Izar aztun hortan egondako erlojua Lurrean mogitu gabe dagoena baiño polikiago ibiliko da. Grabitazioak geldiago egiten du denboraren iragana.

Munduan zehar, beraz, denbora ez da puntu guzietan lais-tertasun berean joaten. Azelerazioa haundia dan puntuetan denbora geldiago igarotzen da txikia dan puntuetan baiño. Azelerazio hori mogimenduren seme ala grabitazioren seme izatea berdin. Eguzkiaren ondoan, edozein izarren ondoan bezelaxe, grabitazioa izartegiko hutsune zabaletan baiño azkarrago izaki, erlojuak atzeratu egiten dira. Izarren arteko bazter hotz, illun eta bakartietan, denbora laisterrago itzurtzen da. Bakardadeak lehen-go zehartzen eta hiltzen!

Errelatibitate Berezian denbora eta habaillak lotura agertu ziran. Err.Jeneralean, berriz, denbora azelerazioarekin (eta materiarekin, beraz) funtsetik beretik guztiz lotuta agertzen zaigu. Hitz batez: denbora abstraktorik ez dago. Bareak harrien gainean arrastaka bezela, denbora itsatsi egiten da materiaren gainean. Lurraren ikutuan iratxeki egiten da. Ortzeko zabalera hutsak behar ditu arin joateko.

* * *

Egia ote da hau guzia? Ondorio harrigarri hauen alde, Errelatibitate Jeneralak bi frogakari nagusi eman ditzake gaur.

Lehenengo frogakaria argiaren espektroaren aldakuntza izan da. Atomoen argi-frekuentzia mordoan aldagabea dan ezkerero, eta denbora, Einstein'ek dionez, izar trinkoetan gure Lurrean baiño nagikiago igarotzen dan ezkerero (grabitazio haundia dutelako), frekuentziek txikiagoak izan behar dute izar horietan gurean baiño. Espektrou guzia, hitz batez, onda luzeen aldera aldatua agertuko da; hau da, marra gorrien aldera. Hau ulertzea erraza da: izar horietan segundu batean oszilazio *gutxiago* neurtuko ditugu guk, han bagiña baiño, gure segundua hangoa baiño laburragoa dalako. Argia gorriago agertuko zaigu beraz. Sirio'ren lagunaren argia aztertuz, Errelatibitate Jenerala zuzena dala egiztatu da: espektroen gorritze hori ba dago.

Bigarren frogakaria «Mössbauer-eragiña» deritzana izan da.

(27) Sirio'ren laguna edo «bizkia» aipatu ohi da adibide bat eman nahiz. Sirio'ren laguna oso izar trinkoa da, bere masa oso loditua du: Sirio'ren laguna «iratxo txuria» deritzan izar bat da, eta oso grabitazio azkarrekoa.

Zenbait kristalen «gamma»-errañuen frekuentzia haundiagoa da goitik behera «erortzean» (grabitazioaren eragiñaren aldera, beraz). Frekuentzien gora-behera hau txit txikia izanik ere, egiztatu izan da, eta Einstein'ek egia duela nabarmen agertu da.

* * *

Zertan dira filosofoen gogoetak denborari buruz? Hau izango da, bukatzeko, oraingo nere azterketa laburra.

Zenbait ezaguera-mailla desberdin izanik ere, noraino esan ditekete Errelatibitatearen aurkikunde hauek Filosofiak alde batera utz ditzakeanik?

Bergson'ek, esate baterako, liburu oso bat idatzi zuen huni buruz (28); eta Einstein'ekin berarekin 1922-an mintzaldi maimitsu eta legorako bat izan zuen, buruz, buru, eta filosofo askoren aurrean. Filosofoa ez naizelako beharbada, Einstein'en erantzuna arras entzat ematen dut. Bergson'en gogoetak luzaz entzun ondoren, hau erantzun zuen Einstein'ek: «Filosofoen denbora hori izan ez da».

Lehen esan ohi zan, dio Einstein'ek, materia guzia desegin eta izarrak funditu ondo ere, denbora eta espazioa hor geldituko zirala, hutsik eta illunpean. Baiña nere ustez, ekingo luke, ez dago ez denborarik eta ez espaziorik. Lekugunea materiaren ekarria da, denbora bezelaxe. Edo, dana da «kanpoa».

Filosofoen illaran, ordea, ez da hori giroa.

Kant'ek, esate baterako, hau zion: «Denbora ez da bere buruz danik ezer; denbora ez da gauzak finkatzen eta mugatzen dituen gauzazko determinazio bat; esan nahi baita, bere buruz dirauenik deus... Denbora ez da ezer gure barne-ulerpidearen era baizik» (29). Einstein'ek ideia horien kontra hitzegitea ez da batere harritzekoa. Nola birresan liteke horrelakorik 1967-an? Pauli fisikariak behin esan omen zuen: «Hori filosofia da; beraz, faltsua da». Hortara iritxi gabe ere, eta bi jakintza-mailla (edo gehiago) daudela ukatzeke, nola onar ditekete XX-garren mendean, denborari dagokionez, Einstein'en aurkikundeak oiñarritzat hartzen ez dituen ezer?

(28) *Durée et Simultanéité, à propos de la théorie d'Einstein.*

(29) *Critique de la Raison Pure*, 63.

Bergson'en iritziak, halere, ez dira oso desberdiñak (Kant'i buruz); eta ni bederen sutan jarri izan nautela ez dut ukatzen. «Ezin diteke (Errelatibitatea) aipa ez gure izkribu desberdiñetan azaldua izan dan metafisikaren alde, eta ez kontra ere; gure metafisika horrek irautearen barne-ezaguera baitu»... Couderc'en hitzk erabilliz esango dut nik: «Einstein'n ondotik filosofoak ezin dezake Einstein aurretik bezela pentsa» (30). Einstein'en teoriak eta aurkikundeak Bergson'en burutazioen kontra aipa ditezke; eta aipatu beharra dago hain zuzen, nere ustez. Zer da bestela Filosofia? Bihozkada bilduma illun bat? Hildo berean, bestela, zergatik ez eutsiko aspaldiko «lau elementoen» teoriari? Ura hidrogeno eta oxigeno dala? «Txatxukeriak», erantzungo dugu Bergson'ekin. Levi Strauss'en liburuetan agertzen dan pentsakera (mitorik zentzugabeenak esan nahi dut, noski, ez Levi Strauss'en beraren ideiak) eta Bergson'ena ez dira oso desberdiñak. Zientziari kasorik egin gabe, eta Zientziaren kontra ere, eraiki badi-teke Filosofia, zer liferentzia dago Mitologiaren eta Filosofiaren artean? Pauli'k arrazoin luke hortara!

Unamuno'k ere, ezjakintasunaren hildo beretik, (ez zait hau behin ere ahaztu), materia batzuk uraren gainean gelditzen dirala azaltzeko, ondoratu gabe alegia, trinkotasun edo dentsidade negatiboa dutela esan zuen ez dakit zein liburutan...

Bergson'ek ere hor nunbait Errelatibitateaz: «Denbora horrek, berriz, Espazioari nahasia, Denbora-Espazioaren laugarren dimentsio, ez du izaterik karkuluetan baizik; hau da, paperaren gainean baizik» (31). Sorbona'ko irakasle haundi batek berriki horrelako arinkeriak nola esan ahal izan zituen ulertzea, oso zailla iruditzen zait.

Merleau Ponty gogoko dut askotan; baiña denborari buruz eta Einstein'i buruz argitara zuen entsegu laburra (32) une gargarria iruditzen zait; eta gorago aipatutakoek hainbat erre ninduela ez dut izkutatuko. Einstein'i buruz fitsik ulertu ote zuentz ez dakit.

Denborari buruzko, eta Errelatibitateari buruzko, iritzi horiek guziak, literaturazko sasi-filosofian sartu behar dirala uste

(30) La Relativité, 30.

(31) La Pensée et le Mouvant, 37.

(32) Einstein et la Crise de la Raison.

dut. Gauza bat dira, nere ustez, Filosofia eta Metafisika, Zientziatik at osatuak bai, baiña Zientziaren aurkikundeak kontutan hartu ondoren osatuak; eta beste bat Zientziari uko egiñez, eta fenomenuak sakonki ezagutu gabe egin ohi dan mini-filosofia. Izadiari buruz ari diralarik, filosofo asko sasi-filosofa baizik ez dira; eta beren iritziak txatxukeria galantak sarritan.

Bertrand Russell'en iritziak, aldiz, (Fisika eta Matematika sakonki ezagutzen dituelako hain zuzen, ez filosofo «hutsa» (?) egonik), kontuan hartzekoak dira; nahiz eta Errelatibitateari buruz ukakorregi izan azkenean, nere uste apalez. Gaston Bachelard'enak ere azter ditezke beharbada.

Filosofia ahobatez bide hortatik abiatu artean, jai dukegu. Teilhard de Chardin'ez hitzegitean joera berbera aurkituko dugu. Ez Zientziatik kanpora ezer ez dagoelako, ez. Baiña Zientziak erakusten dituen fenomenuak, fenomenu hutsen maillan bederen, guztiz kontutan eta guztiz aintzakotzat hartu behar diralako. Hortarako, noski, ongi ezagutu behar dira aurretik. Literatura-Filosofiatik Zientzia-Filosofiarara pasa behar gorria dago. Denbora-Espazioa ulertzea eziña zaigula esateak, paperan baizik aurki ezin ditekeala, eta abar, eta abar, horrelako jakintza-oiñarrien gaiñeko filosofia bat, eta bere esaleak eta gerizatzaileak koloka uzten ditu, besterik gabe. Hiroshima'ko hilakintza ikaragarria paperetako karkulu alegiazkoen ondorio izan ote zan?

Iñori gaitzi bazaio ere, denbora eta materia loturik agertzen zaizkigu, funtsetik eta sustraietik beretik alkarri iratxeikiak. Zergatik? Nola? Ez dakigu. Eta hor aurki dezateke azter-soro emanakor bat filosofoek.

Betikotasuna, denbora, bateratasuna: Einstein'en aurkikundeen arabera ulertu behar dira. Eta bestela adieraziko dan guziaz ez da deus.

Zer da denbora? Zergatik geldiarazten du grabitazioko kanpoak? zergatik dago geometria ere horri hertsiki loturik? Horra hor, nere ustez, egiazko galderak. Horren abstrakto eta izpirituarren erakoa dirudiena, nola izan diteke funtsean horren gaikoa, horren materiakoa?

Ez dakigu. Galderak gotorrak dira; gure erantzunak ahulak. Ezkutapena hor dago, zindo, gudan eta gure inguruan. Zientziak sakonago eta harrigarriago egin du.

Einstein'ek, egiazki argi egin ondoren, eta argitu egin due-

lako hain zuzen, beltzago eta lodiago egin du gure inguruko illunpea. Denboraren ulertu-eziña bildurgarriago da sekulan baiño.

ILLARGIRAKOAN

(1968-XII-4)

Kaseta askok ezagutarazi digu fotoa: ezker aldean Illargia; eskubi aldean, Lurra. Orain arte misilotatik lortu dan ederrena bide da. Baietz esango nuke nik.

Illargirako bidea idekia izan da, berriz, bi aldiz segidan joanda-etorria ongi gertatu baita. Laister, beraz, Illargiko zorua zapalduko du gizonak.

Ba dirudi une ona dala gure buruaz harrotzeko: Lurretik aldegitoko gauza da gizona lehenengo aldiz. Ba dago arrakasta hortan zertaz pozturik, zalantzarik ez. Laister asiko da eskierki gizadiaren Aro berri bat. Astronomiaren aldetik, batez ere (astronomoek ongi dakite) Illargirako urratsak orain arteko iritzi asko iñarros dezake.

Hori izango ote da, ordea, pausuaren kakoa? Ez, nik uste. Illargirako joairak beste aldetatik astinduko gaitu sakonkienik.

Alde batetik, gizadiaren umiltasuna azkartuko du. Eman dezagun Illargira heldu gerala; eta egun bakar batean Illargiraño joan gaitzekella (ez gera oraingoz hortan). Habiaila hori hamaazpi milla kilometrotako orduan izango litzake.

Habiaila hortan mogiturik, zortzi hillabete beharko genituzke Artizarrera joateko irakurleak dakikean bezela, Artizarra dugu planetetan hurbillena); zortzi hillabete, beraz, misiloan geldirik, grabitaziorik gabe, iñora aldatzeko modurik gabe, egurasteko erarik gabe, irradiazi mota guzien agerrian egon beharra, eta abar, eta abar. Beste planetetara joatea ez da berealako kontu bat!

Are umillago jarriko gera, nere ustez, Eguzkiaren inguruko sistematik jalgitzerakoan. Zentauro-ko Alfa da izarretan hurbillena: Zentauro-ko Alfa'ra irixteko 228.000 urte pasa beharko genituzke (guk geuk eta gure ondorengoak) «hauzo»ko sistema-ra aldatzeko.

Jakiña danez, Eguzkia ez dago iñundik ere ez Munduaren erdi (Ptolomeo gizajoa!), ez gure Galaxiaren erdian ere. Geure

Galaxi'ko erdiraiño joateko, 1950 milloi urte beharko genituzke...

Eman dezagun orain gure Galaxia'tik jaregin nahi dugula, beste batera aldatzeko. Eman dezagun Andromeda'ra joan nahi dugula (Andromeda gure «galaxia bizkia» dan ezkerre). Misiloaren habaillan joanda, 130 mila milloi urte beharko genituzke... Eta Quasar'etara joatekotan, ehunka kondatu beharko genituzke urte-billoiak!...

Umiltasuna, beraz, azkartu egingo da gudan.

Baiña, karkulutara jo gabe ere, zer nabaituko ote dute garrazkienik Illargian pausatuko diran gizonak? Txorabioa, nere ustez, Kosmo-Ikara; astronomoek betidanik ezagutu duten barne ikara ixilla, Paskal'ek hitz egokiz azaldu diguna, Babilonia zaharreko artzaiak azpaldidanik izarrez arduratzera eramane zituen Hutsune-Txorabioa.

Nere bederen gogoeta hauek idaroki dizkit kasetek argitara duten foto eder horrek. Gure mundu hau izar hotz eta kaxkar gisa erreparatzean, fotoan Illargiko geografia xehe-xehe eta Lurrekoa larri-larri baizik ez ikusita, ni txorabioak hartu nau. Ez inoiz ere harrokeriak.

NORK EGIA?

(1969)

URSS'eko misiloen zuzendaria dan Sedov'ek hau esan du joan dan astean: «Gure sistemako planetetan ez dago bizirik Lurretik at». Ilargitik garraiatutako harri puskek iritzi hortaraxe bulzatu dute ilargiari berari dagokionez: bizi aztarnarik ez dago han. Gero eta garbiago beraz: gure sisteman ez dago bizirik. Beste bizidunekin inoiz gizadiak hartu-emanak lortzea, beraz, gero eta zailago agertzen da; gure «ondoko» izarrik bertakoenak uler-tu ere ezin ditezkean distantzietan baitaude:

33.000.000.000.000 km. Zentauro'ko Alpha!! Ez gera aisa joango turista gisa!

Joan dan udaran, Armstrong'en bidaia ahaztu-ezina zala bide, erruz idatzi zan huni buruz. Eta Lwoff Nobel-Sariaren deklarazioa ez zait ahaztu: «Nere sendimendua hau da: Lurretik at ez da-

goela bizirik». Iritzi hau ausarta iruditzen zait, benetan. Gau argi garden batek ez du hori idarokitzen, zalantza oso bat baizik. Iritzi hori egia azotekotan, bestalde, kezkarria izango litzake oso: Ptolomeo-tasun berri horrek dardarazi egingo litzuke oso modan dauden errelatibismo guziak.

Lwoff'en azterbidea oso erabilia izan da (ikus Lecomte de Nouy, esate baterako): karbonozko molekula haundiak sortzea harrigarria da probabilitateen aldetik. Temperatura berezi bat behar da mende askotan barrena (beroaldi zakar bat litzake mila menderen lan gaitza hondatzeko; horrelako gertakariaren batek suntsiarazi bide zituen Sekundarioko saurio guziak, eboluzioan ordurako aski bestelakatuak); ura behar da erruz, temperatura egoki batean; eguzkiaren irradiazioak beren hortan egon behar dira hain zuzen (distantziaz, espektroaz, eta abar). Enzymak, proteinak, nukleo-garrak, behar dira; danak berez sortzeko probabilitate oso urriko sorkariak. Hauek gabe, ordea, eta ADN-rik gabe batez ere, ez dago eboluzioa hasterik.

Bakterietatik aurrera joateko, era berean, txiripa batetik bestera joan behar da: bai inguramenduetatik bati zelulen aldetik. Hitz batez, eta Lwoff'en iritziz, «bizi dan organismo bat, bere barne-egitamu edo estruktura nolana hikoia izanik ere, probabilitate urriko gertaera-segida oso baten ondorio izango da beti». Lurrean gertatu dana oso gutxitan gerta ditek Kosmoan: kasualitate gehiegi batera. Beraz, bizidunak Lurrean sortu dira; baina Lurretik at bat ere ez.

Irizkeria hunek, jakina, balio berezia ematen die berriz gure Lur eskas huntako kondairari eta patuari: berriro ere, Izartegiko «erdian» ginake, «berezkuntza» bitxi gisa, Gizona Kosmoaren giltzarri modura agertuz, antzina bezelaxe.

Esan beharrik ez dago: jakintsu guziak ez dira hortan. Urrutirago gabe: Jacques Monod bera, Lwoff'ekin batera Nobel-Sari berberaren hartzaile, ez dator bat Lwoff'ekin. Sistema «idekietan» (alegia, energia kanpotik jasotzen dutenetan; eta bai Lurra eta bai planetak mota hortakoak dira, Izartegi guzitik iristen baitzaizkie irradiazioak eta energia hitz batez) ez bide dago, jakintsu batzuen ustez, «probabilitate» kontua soilik; beste lege batzuk ere bultzatzen bide dute materia bizikaia eta bizidunak derrioren ematera. Hauen ustez, beraz, bizi halabeharrezkoa da: txiripa hutsa eta behar hutsa batera. Zenbait meteoritotan, esate baterako, karbonozko molekula haundiak aurkitu bide dira (bi-

ziaren oinarria, alegia); eta meteorito horiek ez dira ez gure Lurreko arrasto eta ez gure sistemako harri puska eskierki, beste izar-sistematako hondakinak baizik.

Nola erabakiko? Nork arrazoin? Nun egia? Ezin esan. «Zailtasun apartako problema dugu hau», dio Monod'ek berak P. H. Simon'i erantzutean.

Egiazki: biziaren iturburuaren arazo zail hau bi lerrotan «garbi» utzi uste dutenak bederen, egiatik urrun daude.

GERO ETA ZIURRAGO

(1969)

Joan dan Apirrilean berri garrantzitsu bat izan da munduan; baina hots haundiago egin dute beste mila gertakari xumek nik aipatuko dudan albiste ondoriotsu hunek baino.

Van de Kamp holandatar astronomoak, 1937 ezkeroztik jakintzasail hortan gogoz lanegin ondoren, bere helburua lortu du. Alegia: gure planeta-sistema, eguzkiaren ingurukoa beraz, ez da bakarra izartegian. «Barnard» deritzan izarraren ingurutik, karkulu-bidez Van de Kamp'ek erakutsi duenez, gutxienez bi planeta daude.

Aski ote da, ordea, karkuluz hori frogatzea? Irakurleren batek hori pentsatu duke beharbada bere kolkorako.

Bai. Aski da. Astronomian karkulu-bidez egiztatzea, egiztatu egitea da. Barnard izarraren ingurutik, beraz, nahiz oraindik ez geure begiez ikusia, planeta-sistema bat jiratzen dala egiztaturik dagoela esan dezakegu. Gauza berbera gertatu zan Neptuno deritzan planetarekin: teleskopioz ikusi baino lehenago karkuluz jakin zan planeta bat zegoela. Leverrier astronomoak 1845-ean, Urano planetari buruzko karkulu hutsen bidez, beste planeta bat ba zegoela frogatu zuen, eta nun aurki zitekean ere xehetasun guziez azaldu zion Galle zeritzan Berlin'go astronomoari; eta hunek, bilaka hasi berria, 1846-eko irailaren 23-an, Leverrier'ek esandako barrutian aurkitu zuen anartean ezagutzen ez zan «Neptuno» planeta iluna.

Karkulu-bide berberetik aurkitu zan «Pluton» deritzan planeta ere. Kasu huntan, halere, Lowell astronomoa (karkulu-bidez

Pluton'en izatea eta hildoa egiztatu zituztenetik bat) teleskopioz planeta berria ikusia izan baino lehenago hil zan; Pluton planeta urruna 1916 arte ez baita ikusia izan. «Sirius» izar argitsuaren bizkia ere (ilun xamarra haun, gaur «ikusia», urte askotan «karkulatua» izan zan soilik. Eta horrela beste anitz.

Barnard-izarraren ingurutik, beraz, segurantzia ba dugu orain, planeta-sistema bat dago. Van de Kamp'ek egiztatu duenez, planeta horiek urrutiago daude Barnard-izarretik gure Lurra eguzkitik baino: Marte eta Jupiter'en paretsu, gutxi gora-behera azaltzeko.

Gure galaxian, jakina danez, ehun mila miloi izar daude; eta, jakina danez ere, gure galaxia ez da izartegian bakarra, eta ez gutxiagorik ere, miloika baitaude galaxiak berak. Hortara gauzak, planeta-sistema bakar bat dagoela pentsatzeko (geurea ez besterik, hain zuzen!) izpiritu-zabalera oso txikia behar da izan... Aspaldidanik astronomo guziek uste dute planeta-sistema asko dagoela geure galaxian bertan; eta gauza bera urrutiko beste galaxia galdu horietan. Iritzi huntakoa da Fred Hoyle astronomo ezaguna: «Hortaz, izarrik gehienen inguruan planeta-sistemak daudela pentsatzen hasi behar dugu». Izar baten inguruan planeta-sistema bat jiratzea normala zaio hain zuzen, eta ez batere harrigarria. Gauza berbera uste du Vilowsky astronomoak: «Gure ustez, F² baino aurrerago dauden izar guziek dute planeta-sistema bana».

Orain, dana dala, uste maila hortatik atera gera; eta ziur da Barnard-izarraren ondoan bederen planeta-sistema bat dagoela. Eta, Van de Kamp'ek berak egiztatu duenez, planeta bakar bat gutxienez beste hamar bat izarretan ere segurutzat jo diteke.

Hunek garrantzi handia du nere ustez.

Baldintza batzuk betetzen diralarik, materiak berez ematen du bizia; eta planeta batzutan bizi-baldintza horiek gertatzen dira. Beste planeta-sistema anitz dagoela egiztatuz (eta lehenengo urratsa egitean, Van de Kamp'ek urrats zailena egin duela garbi dago), izartegian bakarrik ez gaudela gero eta ziurragotzat har ditekete (edo hartu behar da!). Gau izartsuetan ez bide gera gu bakarrak hortzera so, eta eskerगतasun ixil hortan txundituak.

Munduari buruz dagoen teoria asko koloka gelditzen ari da la gauza nabarmena da. Ezagutzen dugun arima-kinka ez da inundik ere bitxia. Gizona ez baita itsua; ez arras bederen!

EZTABAIDA ZAHAR BAT

(1969-III-15)

—Heriotza, gauza guzien suntsitzea, naturalezaren harrigarría, galaxia eskergatasun kupidagabea, eta abar, azaldu eziñezko problemak izanik, betidanik gizona azalpide bat billatzen saiatu da. Bide hau erlijioa izan da. Erlijioa, beraz, gizonak sortu du. Denbora joan ala, ordea, bere buruz berezi bide da erlijioa, urrutira joan bide da; urruti hortan nortasun eta gauzatasun gotor bat hartu du. Eta piskanaka, horrela, sorkaria sortzaille bihurtu da; eta erlijioa gizonaren zerbitzari izan beharrean, gizona jarri da erlijioaren zerbitzuko.

Horrela mintzo zitzaidan berriki adiskide bat. Ez, beraz, harrigarriro: erlijio-alienazioaren teoria ezaguna nabarmen agertzen da hor. Baiña nere adiskide horrek ez zidan hau itxura egitearren esaten. Nere adiskidea hortaz siñistuta dago: ez du Jainkoa'rengan siñisten, jainkogabea da osotara:

—Bildurrak sortu ditu jainkoak. Bildurrak, ezintasunak eta ezjakintasunak. Jakintza eta teknikak zabaldu ala, erlijioa berez iraungiko da, itzalduta egingo da. Hauxe ari da gertatzen.

—Eta heriotzaz zer? —nik galde.

—Hor ez dago larritasunik batere: noizpait hil beharra dugu. Mundua hala da. Zergatik tristatuko? Nik ez dut neuk tristorarik batere senditzen. Hil-beharrak ez nau mendrenik ere hunkitzen.

Hoztasun hunek Bertrand Russell'ena eta Jean Rostand'ena gogoratzen zizkidan. Ez da egia, esan nahi dut, Unamuno'ren beti-bizi-nahia, esate baterako, gaur gizon askorengan eragille dani. Etsistentzialisten problema-giro hura, oso itzalduta dago jende askoren artean; marxisten artean bereziki:

—Etsistentzialismoa behera doan klase baten karrasia besterik ez da —zion hotzean nere adiskideak—. Etsistentzialismoa ez da, eta ezin izan zitekean, langilleriaren ideologia. Etsistentzialismoa, eta heriotzaren kezka bizia esate baterako, burges txikien arazoak dira.

—Eta Buda zer? —erantzun nion nik—. Buda da etsistentzialistatik haundiena. Orain dala 2.500 urtetako India'n, ordea, burges-txikirik ez zegoen. Ez dago klasezko azalpenik fenomenu hortarako, nere ustez.

Nere lagunak ez bide zekien zer erantzun. Baiña siñistuta zegoen jakintzak eta zientziak hilko dutela erlijioa.

Egia ote da, ordea, erlijioa gizonak sortu duela, eta sasi-problema bat besterik ez dagoela hortan? Egia ote da jakinduria sakondu ala, erlijioaren beharra erauzi egingo duela?

Ez dirudi, nik uste, XIX-gn. mendeko positibista tentela izan behar da, nere ustez, Izadiaren misterioa arras erauz eta ezaba ditekeala siñisteko. Matematiketan beretan gaur, matematikalariek diotenez, dana koloka dago: matematiketan beretan umiltasuna nagusitu da, eta ez bide dago absoluturik. Fisikan gauza bera, noski.

Erljio gisa siñiskeria-mordo zahar bat aurkeztutzen baldin bazaigu, sasi-erlijio hori, noski, gainbehera joango dala, eta ahaztu ere egingo dala, gauza nabarmena zaigu. Erljiozko instituziorik gehienek eta Jainkoa alkarrekin deusik ere ikustekorik ez dutela gauza agiria da. Gure haurtzaroan bertan ziurtzat jotzen ziran gauzarik gehienak ere, gaur baita eliza-gizonak berek ukatzen dituzte. Eta fenomenua hasi besterik ez da egin: Holanda'ko gorabeherak jarraitzea besterik ez dago. Mundu oso bat ari da gure begien aurrean zaharrakutzen eta funditzen. «Ikazkin» famatu haren «fedea» pikutara doa.

Egia ote da, ordea, hori dala bide, deusik zutik geldituko ez danik? Iñolaz ere ez, nere ustez. Aitzitik, astia ugaldtu ala, gizonak pentsatzeko aukera izango du; eta gauza nabarmena bide da metafisikazko hutsunea txikitu ez-baiña haunditu eta azkartu egingo dala. Batez ere politikazko mitologia baten gezurra agertu ala. Izpiritutasun berria etsitako ezkertarren artetik hozituko da. Munduaren misterioa izkutuagoa da gaur iñoiz baiño. Joan dan Maiatzeko mogimenduaren aintzindarietan, absolutu-egarria izan da butzatzaille nagusia; neronek hemen, lerro hauetantxe bestetan esan izan dudana bezela.

Produzioaren aurrerapenek eta jakinduriaren hedaerak hilko omen dute erlijiozko kezka. Eta hau ez zait bidezkoa iruditzen.

«Zer sentidu du munduak» galderak, errugabeen oiñazeek, Gaitza'ren arazoak, iñoiz baiño funts sakonagoa dute gaur. Illunpeak ez dira zipitzik ere arindu.

Adibide batez argi dezagun.

Pentsamena, eman dezagun, gizonak ekarri du; eta gizona,

abereen eta tximuen eboluzioak prestatu du. Bizia, era berean, materiaren eboluzioak prestatu du anitz urteren buruan. Ez edozein materia-motak: karbonoaren inguruan sortu dira bizidunak, karbonoak oso oso gaitasun bereziak baititu (Kimika apur bat dakitenek ongi konprenitzen naute). Ba dakigu, ordea, karbonoa eta gaiñerako elemento guziak (burdiña, zufrea, nitrogenoa, eta Mendeleiev'en laukian agertzen diran guziak) izarren barruan sortzen dirala, «nova» eta «supernova» deritzaten izarretan batez ere. Ez ahal da eboluzio-kate hori, izaki errazetatik izate zailletara hain zuzen, funtsetik beretik guttiz harrigarria?

Areago. Karbonoaren beraren izatea (gutuz txiripazko itxuraz) ez ahal da kezka-iturri bat? Karbonorik gabe, edo karbonoa bestelakoa izan ezker, Izadi osoa (ez gure mundu hau, gaur, soilki) gutuzitsu izango zitzakean betirako: bizirik gabea, gutuz bere buruan bildua, gutuz gorra, gutuz bere buruarentzako mutua, gutuz hetsia barrurako eta kanporako. Zergatik bestelakoa gertatu? Mentura hutsez?

Asma ditezkean leizazulorik sakonenak sortzen dira nun-nahi.

Erljioa (gaiñerako guzia bezelaxe) gizona zanpatzeko erabili dute zapaltzailleek betidanik. Zalantzarik ez. Gaurtxe ere gauza bera da. Hori ote da dana, ordea?

Ez nik uste. Misterioaren illunpeak trinkoegi zaizkit.

ZIENTZIA ETA HIPOTESI

(1970-X-13)

Poincaré matematikalariak horrelaxe bataiatu zuen bere liburu ospatsu bat. Eta oso famatua da ere Bertrand Russell-ek Zientzia eta Filosofia bereztekotan eman ohi zuen azalpena: «Dakigunari zientzia deritzagu; ez dakigunari filosofia». Eta, umore estalpe batez emana izanagatik ere, Russellen obran beste askotan bezala, oker legoke definizio hori lasterregi baztertuko lukeana.

Gure artean oso modan dago «zientzia» hitza, baita «zientifiko» hitza ere; erabili ohi dutenen jakintza, hitz horiei dagoen mamitik urrun badaude ere, ondikotz, sarritan...

Eta nahiz errotik Zientzia zer den berezten oso gauza zaila

eta lantsua izan, zer ez den bederen esatea errazago iruditzen zait; eta lerro gutxitan zientzia-alorretako zedarrri eta mugarrri horiek ipintzen saiatuko naiz.

Zientziari objetibotasuna dagokio: hala da. Baloreak agertuz gero, ordea, sujetotasunean abiatu gara: hobe da.

Esate baterako: energiari dagokionez hitxia den sistema batetan, entropia gora doa. Termodinamikaren hastapen hau zientifikoa da: alegia, orain arteko foroga-bideetan hori aurkitu dute ikertzaile guziek; eta, alderantziz, hastapen horren kontrako esperimentaziorik kausitu duenik ez dago.

Zientziatzko ideietan, beraz, ideia-aren kontrola da kakoa: praktikak, praxiak, onhar-arazten (edo-ta bazter-arazten) du zientziagizonaren hipotesia. Hildo beretik, hortaz, praktikak edo esperimentazioak zientifikotzat hartzen den ideia bat ukatu duelarik, ideia hori baztertu egiten da. Oso etsenplu famatu bat emateko: ether, higigabe eta aldagabea, uhin elektromagnetikoen eramale eta giltzarri, Michelson-en forogaketak ukatu zuen. Lehenengo urratsa, beraz, teoria hari zientzia-tasuna kentzea izan zen: teoria hura praxiak ukatu zuenez geroztik, zientziatik at gelditu zen, 'lau elementoen' teoria bezalaxe. Eta, bigarren urratsa (bigarrena, bai) hamabost urte geroago Michelson-Morley-ren «bitxikeriak» Einstein-en Errelatibitate-Teoriak azaldu zituelarik, orduantxe eta fenomenoak azaltzen zituelako, hain zuzen, hipotesi hura zientzia-mailara pasa zen.

Hauxe da, hain zuzen, zientzia-ideien abiada etengabea: hipotesiari praxi-ikerketara darraiko; honen baiespenari, zientziatasunezko maila. Eta gero, azaldu ezinezko fenomenoen ondorio, bazterketa eta hipotesi eta teoria berriaren aldia.

Definizioz, beraz, esperimentazio edo praxiaren bidez kontrola ezin daitezkean 'teoriak', ez dira zientifikoak. Eginen eta praxiaren kontra atxikitzen direnak, are gutxiago. Lehenengoan adibide bat emateko, mundua entropiaren emendioaz ala beste-la bukatuko denetz jardutea, ez da eztabaida zientifiko bat egitea. Eta bigarrenen bat aipatzekotan: gizonaren hezurretan eboluziorik ez dagoela esatea.

Esperimentazio eta forogabideetatik at jarriz gero, beraz, filosofiaren alorrean gaude. Russell-ek esaten zuena iduritzuz, kontrola eta azter daitezkean fenomenoetatik, ezin kontrola eta azter daitezkeenetara pasatzean, Zientziatik Filosofiara aldatzen gara.

Ez dut, dena dela, filosofia jazartu edo maiseatu nahi. Ez. Ez da hori gaurko ene helburua; Zientzia zer den eta zer ez den azaltzea baizik. Ideia-sistema batek zientziaren mailakotzat hartzeko, praxiaren forogaketa egin eta gainditu egin behar du, aurreko teoriak baino fenomeno gehiago azalduz.

Hori eginik ere, zientziak dituen mugak dagoeneko aipaturik daude: zientzia hipotesi-kate etengabe bat denez gero, azkeneko (edo azken-hurreneko!) hipotesia urrezko letra nagusitan, eta betirako omen, presentatzea, ez da inundik ere zientifikoa. Are gutxiago ideia berrien ezespren edo kondenzazio: funtsez, definizioz, zientzia zalantzakorra da, elkarrizketa-koia, eta hipotesi eta teoria berriekiko kopeta-zabal eta etorkor. Izpiritu zientifikoak ez ditu puntu ilunak izkututzen edo ukatzen, ager-arazten baizik; puntu ilunek berek, hain zuzen, egiaren agertzea bait dakarte.

Hain zuzen ere, fanatismo deritza beste joerari. Alegia: praxiaren ondorioen kontra, eta ikerketa ezina den alorretan bertan, atsegin edo gogoko zaigun ideia-sistemari nola edo hala eutsi nahi izateari. Azaldu ezinezko gertaerak txikitu edo ukatu egiten dituenak ez du zientzia-gizonaren ezpala, komisario politikoarena baizik.

Hots, gaurko soziologilari zientifikoek uste dutenez, mundua gero eta okerrago doala frogatzea ezina den bezalaxe, ezina da ere, esate baterako, mundua gero eta hobeki doala frogatzea. Giroak kutsatzen digun ideia-mordoa jorraketa bat egiten ez bide gara gauza. Eta gaur, mundua «hobetz doala» zalantzan jartzea hutsik, anti-zientifiko, atzerakoi, eskuindar eta abar zaio edonori! Zer dakigu, ordea, funtsean? Jakin ez dakigu hori, uste baizik.

Ezen puntu bakar batzuk aipatuko ditut hemen zalantzak sortzeko. Ez da ziur soziedadea, oro har, gero eta razionalago denik. Ez da ziur, beraz, soziedadearen teoria bakar eta osozale bakar batek gero eta osokiago dena azalduko duenik. Ez da ziur, era berean, jakinduriak gizona hobetu duenik (Dachau, Aushwitz!). Ez da ziur gaurko kaletarra atzoko baserritarra baino zorionsuago denik; eta ez da ziur ere mendebaltarra polinesiarra baino prestuago ez alaia denik. Eta horrela beste anitz ideia. Zientzia eta modako leloak berezten jakin behar genuke, zientziaren ohoretan hain zuzen.

Egun hauetan agertu diren estadistikek diotenez, Bretaña Na-

gusiko neska gazteen artean (13 urtetatik 17 urtetara), %eko 63-k izan dituzte mutilekin sexo-saioak; eta ehuneko bertsutan ere Alemanian, Suezian, eta abar. Tabu batzuk pikutara joan dira esateko, beraz, biharko igarle izan beharrik ez dago. Aski da gaurko ikusle izatea!

Besterik ezer erakusten ahal dute, ordea, estadistikek? Bai. Tabu-rik gabeko soziedade honetako belaun berria ez dela aurrekoak baino zoriontsuago edo beteago: osagileek dakikete hau nik baino zehazkiago. Drogaren emendioa eta hedaketa, esate baterako, atsekabe-metaren eta ihes-egin-beharraren neurri bat dira. Hots, arauz, tabu-en erorketak, arima-leizeak eta hutsuneak sakanago eta beltzago egin bide ditu. Gazte jendeak ez du soziedade hau ikusi ere nahi: osoki zaio gaitzi. Belaun berriaren politika-ukaera ez da aurpegi axial bat baizik, ene ustez.

Denok dugu baserriaren, mendi-bakardadeen eta aspaldiko bizimoduaren mina. Dena ez da horretan «erromantizismo» kaxkarrara. Soziologilariak ez dira negar-multzo zozo bat.

Noski. Antzinako mendeak eta gizarte-motak urdintzea ez da zientifikoa. Bai. Baina gure zibilizazioak (ez sistema honek edo harak, kasu, 1968-an garbi agertu zen bezala) ekarriko digun, eta jadanik ekarri digun, mundua urdintzea eta idealizatzea ez da zientifikoago; itsu koskorra izan behar da zalantza izpirik ez izateko...

Baina geure burua harropuzturik daukagu; eta ez dugu entzun ere nahi beharbada zibilizazio zalapartatsu eta handigurako honek irteerarik ez dukeala; eta gure ondorengoek, beharbada, alaiki baztertuko dituztela gure baloreak eta teoria asko, guztiz beste bidetik beren biziak antolatzeke.

Zerbait somatu dute batzuk. Ez da dudarik.

KOSMOARI BURUZKO AZKEN BERRIAK

(1971-X-14)

Irakurlea aisa uler dezakean bezala, jakintsuek ez bestek ezaigu ditzakete gaur xehetasunetan (eta berek ere dakiten neurrian eta sailean bakarrik) Zientziaren azken pausuak. Artikulu honetan, beraz (gainerakoetan, bestalde) irakurle amorratu batek zen-

bait kaseta eta liburu irakurriz, ikusi edo somatu uste dituen problemak azalduko ditu gaingiroki. Ene asmoa ez bait da as-tean behin soluzio berezi bana ematea, problema bana irakurleei apalki presentatzea baizik. Egiari buruz, hitz batez, gehiegitan argitzaile ezin izanik, eragile eta akuilatzaile nahi nuke izan be-deren.

Hau helburu, azkeneko asteotan irakurri ditudan berri ba-tzuek hunkiturik, azaldu egingo ditut.

Joan den Irailaren 20-an, lehendabizikorik, berri jakingarri hau eman zuten kasetek: NASA-ko jakintsuek sei azido amina-tu desberdin aurkitu dituztela meteoritoetan. Meteorito hauek, ar-gitu dute, asteroideetako puskak dira; alegia, Marte-ren eta Ju-piter-en jirabide edo orbiten artean higitzen diren planeta-hon-dakinen harri-puskak. Eguzkiaren sisteman, hortaz, geronen sis-teman alegia, baina Lurbiratik at zeharo (gugandik gertuenik 270 miloi kilometro) azido aminatuak ba daude. Hots, jakina denez, azido aminatu hauek dira proteinen osagai nagusia; eta protei-nak, berebat, «biziaren oihala», bizigai nagusia.

Ez da idorokunde hau bakarrik etorri. 1960-z geroztik, zito-sina aurkitu izan da ikatzezko «xondrinetan» (alegia, «xondrita» deritzan meteorito mota batetan); eta zitostina hori, ADN-azidoa-ren parte izanik, guztiz dago biziari lotuta.

Eguzki-ondoko gure sisteman, beraz, gero eta seguruago da Zientziaren aldetik, kimikari dagokionez, Biziaren «oihala» edo oinarria diren gaiak nun-nahi sortzen direla.

Artizarra-ren eta Marte-ren misilozko ikustamen ukakorra egi-na izan ondoren, ba dirudi bizidunik gaur Lurbiran ez bestetan dagoena. Baina besteetan kimika-oinarria ez da falta; eta giro-oinarria Lurrean gertatu den bezala gertatuz gero, bizidunen so-rrerak normala dirudi. Aspaldiko denboretan Marte-n bizia izan zela defenditzen dutenak ez dira gaur urri; eta Phobos-en bi-txikeriak... antzina jaurtitako teknika-satelite bat delakoan azal-du nahi luketenak ere ez...

Nolanahi ere, gauza bat da segurua: Eguzki-ondoko sisteman, bizia sor dedin behar diren kimika-oinarriak ez direla falta. Beste modu batetara esateko: Lurbiratik at ere, Bizia sor daiteke: gi-roaren eta ingurumarien arabera, atzo, gaur eta bihar ager daite-ke; eta beroien arabera ere, suntsi.

Gure sistematik irtenez gero, berriz (hau da: Eguzki ondoko

planeta-sistematik urruntzean), baina beti ere gure Galaxiaren barruan, bide beretik datoz idorokundeak. 1968-z geroztik, molekula desberdin asko aurkitu da izar-arteke hodeietan. Amoniakoa aurkitu da, esate baterako (lau atomo), formaldehidoa, ziano-azetilenoa, eta beste. Aurten siliziozko oxido bat aurkitu da. Eta, hitz batez, baita zazpi atomo dituzten molekulak atxeman dira dagoeneko izar-arteke hodei eskerga horietan.

Gure Galaxiaren barruan, beraz, baina Eguzkiaren sistematik kanpo, aurrera doaz Zientziaren ekarriak Biziazen oinarri diren molekulak agertzearen aldetik, eta Stanley Miller-ek laboratorioriko frogabidez erakatsi zuenaren arabera.

Beste galaxietan, hirugarrenekorik, joera berberetik doaz idorokundeak. Aurtengo Uztailean kasetetan irakurri dugunez, Weliachev astronomilariak OH molekula aurkitu du bi galaxiatan: N 82 delakoan eta NGC-253 delakoan. Gugandik hamar miloi argi-urtetara, beraz, frogatuta dago gaur arteke molekula ezagun hori ba dagoena (ehun trilo kilometrotara!). Ba zegoena, beraz, hobeki esateko, orain dela hamar miloi urtez geroztik, argia handik irten zenean, Lurrean oraindik ez gizona ez gizon-aurrekoak zirelarik.

Kosmoa, hortaz, bat da izaeraz kimikaren aldetik. Eta, hau dela bide, Bizia nun-nahi agertua dela ukatzeko arrazoin sendorik ez da agiri. Lehenago ere esandakoa berrituz: «ez gaude Kosmoan bakarrik». Kosmoaren batasun funtsezkoa gero eta zindoago agertzen bait da.

Gero eta seguruago da, beraz, era berean, Lurraren gainaldean obratu den eboluzioa, beste lekutan eta mendetan gertatu datekeala. Gero eta seguruago eboluzio hau bai atzeratuago bai aurreratuago dagoen munduak ba diratekela.

Ez gaude bakarrik.

Ez gara beraz Kosmoaren erdia ez ardatza. Antropo-zentrismoak erauzteko garaia da, gure Lurbira eta gure mendea baita denen giltzarri diren uste harroputza baztertzekoa. Freud-en hitzez esateko, gizadian luzaz nagusi izan den erlijioak «une déformation délirante de la réalité» izan du zimentarri. Izan gaitezen apal eta egiati batera. Gizona ez da Kosmoaren zilborra; eta gure gizadiari dagozkion urteak edo mendeak ez dira ezer berezirik Kosmo eskergaren kondaira luzean. Utz ditzagun alde batera ptolomeismoak oro.

Astronomilari famatu batek ematen duen irudia, neure egingo dut. Eman dezagun billarretako bola bat dela Eguzkia: 7 cm. diametrokoa. Gure Lurbira jostorraz edo iskilinba buru bat izango litzake (0,5 mm.), eta 7,60 metrotara jiratuko litzake billarreko bolaren ingurutik! Zentauro-ko Alpha, izarrik gertuena, beste billar-bola bat izango litzake... 2.000 kilometrotara jarri beharrekoa: Kopenhaguen-en eman dezagun! Tartean hutsa. Beste bola bat (beste izar bat) hamar kilometrotara jarri beharko litzake, eta abar; eta horrela ehun mila miloi bola «plater» bat osatuz. Plater honen diametroak 600.000 kilometro izango litzake! Horra hor gure Galaxiaren mini-maketa txiki-txiki bat. Honetatik miloika kilometrotara, ehunka miloika kilometrotara, beste galaxiak, billarreko bola-mordo espiralak edo borobilak aldizka, ehunka, milaka, hutsunean sakabanaturik eta galdurik...

Are gehiago. Asma dezagun orain hori guziak, aski huts ez balitz bezala, areago hustutzen ari, dena nun-nahi hedatzen eta hustutzen ari, galaxiak galaxietatik urruntzen ari (ihes-nahiak harrapaturik itxuraz), dena aspaldian lehertu izan balitz bezala zabalitzen ari, mundu osoa lurrintzeko eta espazioan gesaltzeko eta funditzeko abiadan abiaturik bait legoan... Eta hori genuke gu segundu batez betesten dugun zero isilaren irudia.

Hor ginake gu, jostorraz-buru batetan burrukan eta, Epik-tekok bezala esateko, «geure gorpua aztuna arima ahulak ezin arrastaturik» («Tu n'est qu'une âme chétive qui soulève un cadavre» zion jopu argitsu gogor harek). Nork ez du sendituko Ezerezaren zorabioa? Nork ukatuko du, bestalde, zorabio horren ikutua, funtsa eta egia? Ukatzen dute halere horiek; eta kezka hauei farre egin uste diete!

Baina etsipen betean gautzalarik, Freud-en esakuntza garraza iltzatuta zaigularik, eta Ezerezaren zorabioak arras harturik gauzkalarik, beste burutazio bat datorkigu burura. Bizia ez da izan batere «probablea». Alegia, gaurko Biologiak erakasten duenez, molekula organikoek «informazio» haundia dutela; eta gertatu behar ez ziren izakiak gertatu direla hain zuzen. Guk gogotik saiaturik ere ez dugu deus haundirik sortzen; baina Zorriak eta Halabehar hutsak izakirik zailenak sortzen dituzte. Mirari hutsa da molekula erraldoiak agertzea; eta mirakuilu hutsa ere bizardunik batere sortzea.

Hots, aipatutako berriok erakusten dutenez, probable eta ger-

tagarri edo gertakizun ez zen HURAXE da... normala eta gertatua! Eta hau nun-nahi gainera.

Ez dezagun ahantz, bestalde, Carbono-atomoaren lau elektroi famatu horiek direla materia organikoaren kaka: Carbono-rik gabe ez da garbi ulertzen Bizia nola sor zitekean. Hots, Carbono ez da-izan ezer apartarik Mendeleiev-en lauki ezagunean: hamabigarrena soilki. Berriz ere: «beste bat».

Bitartean galaxiak elkargandik eta gugandik urruntzen ari eginaletan. 3 C 147 delakoa, gaur gaurkoz txapelduna, 165.000 kilometro/segundu-tako habaila darama. Zeraman, hobe, orain dela bost mila miloi urte jaurti bait zuen guk gaur ikusten dugun argi-errainu hori. Urrunsko!

Txiripa-ilara oso eta ezin luzeago batez dakigu hau guzia. Kosmoa itsua izan bait zitekean osoki, eta kontzientzia-gabetasun guzizkoan leher, eta gero ilunbeetan gesal eta hil bait zitekean. Aski zitekean, eman dezagun, Carbono atomoak dituen gaitasunak ez izatea...

Zer da hau guzia? Zein da zorakeria haundiagoa? Gizonaren beraren arazoa eta patua zeharo alde batetara utzirik ere, zein da eroago: gertatu den guzia Zori hutsaren ondorio dela sinesten duena, ala Zori huts hori sinesten ez duena?

ORAINDIK ERE EINSTEIN HARRIGARRI

(1971-X-28)

Lehenago egunean «ANAITASUNA» gure lankidea neure eskuetan hartu nuenean, eguzki-sistemaren irudi bat aurkitu nuen lehenengo orrialdean; eta horren oinean irakurgai hau: «Errelatibitatearen Teoria» (X-15). J. R. Etxebarriak poliki eman du, oso hitz gutxitan, Einstein-en ideia-iraultzaren berri.

Etxebarria-ren artikulua, irakurrita ikusi dudanez, ez da azkeneko egiztapenen ondorio gisa ekarria, bere buruz sortua baizik. Alegia, Einstein-ekiko jakin-mina bizirik dagoelako.

Orain dela 66 urte judu famatuak hasi zuen ideia-iraultza ez da agortu. Einstein-en ideiak ezin harrigarriago gertatzen zaizkigu gaur bertan ere, 1971-on. Eta puntu batetan esan behar dut

horrengatik ez natorrela Etxebarria-rekin bat: ez zait iruditzen Einstein-ek «garaiko zentzu komuna» soilik astindu eta dardaratu zuenik, gaurkoa ere astintzen eta dardaratzen bait du. Etxebarria bera lekuko.

Munduaren ideia aldarazi du Einstein-ek goitik behera. Baina harek erakatsi zigunaz zeharo jabetzen, txit zaigu zail; baita matematika-alderdia kontutan ez harturik ere. Eta, ene ustez, denborari buruzko teoria du Einstein-ek denetan harrigarriena.

Hots, Urrian bertan munduko prentsak jakinarazi duenez, berriz ere beste egiztapen bat egin dute aste hauetan bi fisikaririk: Joseph Hafele-k eta Richard Keating-ek. Biak amerikatarrak. Hiru erloju atomikoz baliatuz, eta hegazkin arruntetan Lurrari bira osoa emanez, hiru erlojuon arteko ordu-liferentziak kontrolatu nahi zituzten (erloju bat Washington-en utzi dute geldirik, eta beste biak berekin eraman dituzte ibiltari). Karkulua hertsí-hertsiki egin nahi dutenez gero, ez dakigu oraindik xuxenki eta xehe-xeheki zer aterako duten. Baina, larri-larrian, lehenengo axaleko karkulu bat egin dute iritsita berehala; eta Einstein-en formulak eskatzen zituen «desorduak» atxeman dituzte beren hiru erloju atomikoon artean (0,0000004 segundo, oro har). Berriz ere, beraz, prasiak zuzenetsi du zientzia-teoria; eta Nobel-Sari bikoitza izandakoaren zientzia-zehaztasuna eta ideia-egokitasun apartak berriz agertu dira gailen.

Lau hamar-miloiaren segundu... Zer axola? Ezer ez da!... pentsatu dukezu agian.

Hots, axola haundia du denbora ezin apurrago horrek, axola ezin haundiagoa. Denbora (eta espazioa) ez bait dira (Einstein-ez gero dakigu) abstrazio bat; ez bait da denboraren joana ustezko fenomeno huts bat, Bergson filosofoarekin izan zuen eztabaida famatuan Einstein-ek argiro erakutsi zuenez; ulerkua edo barne-egitamu edo «Kategoria» huts bat ez delako.

Denbora eta espazioa elkarri iratxekirik daude, elkarrekin zeharo trabaturik, txanpon baten diametroa eta lodiera berez-ezinak diren bezalatsu. Lilura eta ez-jakintasun hutsa da denbora espaziotik at pentsatu nahi izatea. Nahi hainbat geometria asma dezakete matematikalariek (Euklides-ena eta honen intuizioak barne); baina bakar bat da egiari dagokiona: Einstein-ek erakatsi duena.

Denboraren isuria, horrela, referentzi-sistemaren arabera

da; eta denbora-isuri horren abiada edo habaila, neurtzen duen erlojuaren mogimenduak baldindua da, eta aldakorra funtsez.

B. Russell-ek orain dela 50 urte argiro azaldu zuenez, habaila haunditan, bi misilotan joango bagina geure lagun bat eta gu geroni, nor berean; eta biok espazioan elkar gurutzatuko bage-nu, optika-itxurakeriak oro eta karkulu guziak ederki gainditu ondoren, bestearen zigarroa geurea baino polikiago erretzen dela ikusiko genuke, beste misilokoentzako denbora guretzako baino geldiago bait litzan. Eta, alderantziz, beste misiloan letorkeanak, gauza bera pentsatuko luke gure zigarroez. Elkarrekiko bekazkerian haiek eta gu, dio Russell-ek. Eta bidezkoa litzake: ezen geure biziera laburrago bait zaigu guri, geure erlojuetan eta bi-hotz-taupadetan, bidari denaren biziera baino. Ez da hau itxur-arazo bat: hala da mundua. Ez dago denbora-neurri absoluturik. Eta hauxe egiztatu dute berriz bi fisikariok aste hauetan, Einstein-en teoria bitxiak berriro funtsatuz.

Baina errelatibotasun hori, Etxebarriak egokiro gogorazten duenez, inertzia-sistema ez diren kasoetan (alegia, habaila aldagabea mogitzen ez direnetan) aldatu egiten da izanaz, eta absolutu bihurtzen. Misilo baten astinaldiak, abiadurek, bihurgunee-k, geldialdiek, eta, hitz batez, inertzia-sistema ez izateari dagozkion zakarreriek, absolutu egiten dute denbora aldakorraren fenomeno-a. 1916-an Einstein-ek bere Errelatibitate Zabaldua presentatu zuenean, beste azalpen sakonago bat eman zion 1905-ez geroztik salatutako fenomenoari.

Gehien-gehienik denboraren habailaren errelatibotasuna onhartzeko gertu baldin bagaude ere, nekezago zaigu denbora liferente horien sustraia onhartzea. Baina denbora azkarrago joaten zaio geldirik dagoenari, abiaduratan eta geldikadatan astindua dagoenari baino. Isiltasun baketsuan azkarrago doa denboraren jarioa, nahaspila orroatsuan baino! Eta honetan ez dago ene aldetik olerki-nahirik, egia-behar eta fisika-lege huts eta hotsa baizik.

Horregatik Langevin fisikari famatuak asmatu zuen bidari bitxi hura. Eman dezagun, esan zuen Langevin-ek, bidari batek Lurbiratik ihes egin duela misilo batetan, eta ia-ia argiaren habailan egiten duela Kosmoan zehar bidaia luze bat (habaila hori, xuxenki, 15 km/seg. txikiago izango da argiarena baino). Misilo azkar horren bidaia, joan-etorrian, ez da inertiakoa. Eman dezagun orain, zion Langevin'ek, bidari horrek Lurra berriz iku-

tzen duela, eta bi urte pasarik markatzen diotela misilo-barneko erlojuek (denbora-tarte berbera atxemango luke bere taupadak neurtuz, eman dezagun). Lurrean ez luke halere bidari harek inor ez ezer ezagutuko, gure Lurbiran (inertzia-sistema) 200 urte igaroak bait lirake. Bidariaren anaiak, eta ilobak berak oro, aspaldidanik lirake hilak eta ahaztuak!!

Ilargiraino iritsia den Armstrong ospatsua, honengatik, gazteago da gaur (galileotar edo inertzia-sistema ez den Apolo zakar eta azkar batetan gora eta behera luzaz ibilia delako) Lurrean mogitu gabe gelditu izan balitz baino. Honek ez du gaur dudarik.

Zenbatez gazteago? Ez da gaztetasun-doi hori urtetan neurtu behar, jakina; segundu-milarenetan baizik. Zer da-izan misilo baten habaila, argiarenaren ondoan? Zer dira Apolo-ren 11 km/seg., argiari dagozkion 300.000 km./seg. ondoan? Ezer gutxi. Abiada txiki hauentzako, horrengatik, Einstein-ek erakatsi dituen life-rentziak, arrunt txikiak dira; eta «intuizioa» eta zentzua, xuxenak iruditzen zaizkigu: «Zer axola, zahartzeari buruz, hegazkin bat hartzea ala ez hartzea? Zer axola Ilargin bititza ala Lurrean? Denbora bat da denontzat».

Idea haeuk, ordea, oso zentzudunak izanagatik ere, faltsuak dira osoki. Denbora ez da arimaren ideia bat, fisikazko neurri material bat baizik. Apolo batetan ibili direnak gazteago daude gaur, joan ez direnak baino. Eta Ilargian bizi izanez gero, orduak azkarrago joango lirake Lurrean baino. Grabitazioaren jopu da denbora, aidera haur batek pustarri bat botatzen duenean bezalaxe.

Baina utz dezadan puntu hau beste baterako; eta mintza bekizkigu orduan astronomilariak.

MONTE PALOMAR-EN ONDOKO GOGOETAK

(1982-IV-4)

Nork bere temak ditu. Nik ere bai neureak. Badakit. Eta beti ere, urrundik bederen, Astronomiak erakartzen nau. Izartegia-ri buruzko berriek gudan zuzpertzten duten ikara bera da kakoa, agian.

Kaliforniara etorri nintzenez geroztik, hemengo Obserbatorio famatu horietako bat bederen ikusi nahi nuen. Hubble ospatsuak zuzendu zuen «Wilson Observatory» delakoa dago bertena. Baina nik Monte Palomar-era joan nahi nuen: berrehun bat kilometro Los Angeles-tik. Baina...

Behinola, dena dela, Palomar izan baldin bazen ere teleskopiorik handiena zuen begiralekua, gaur ez da hala. Eta askoz ere hunkigarriago gertatzen dira radio-teleskopio erraldoiak. Arecibo-koak, esate baterako (Puerto Rico), mila oin ditu diámetroan (hirurehun metro). Baina mogitzen diren beste batzu (Estonian, Japonen, Samarkandan aurten, 70 m. diametrokoa, Genjis Khan eta Tamerlan-en aberrian zerua miatzen ari...) askoz ere harrigarriago dira. Badakit.

Hala ere, Monte Palomar-ek erakartzen ninduen.

Baina teleskopio nagusia ikus badaiteke ere (530 tonelada, 200 azbete diámetro, 12 urtez leundutako lente gaitzak 15 tonelada pisatzen dituelarik), Monte Palomar lan-lekua da; eta ez turismo-lekua. Mendialde ederra hura, hori bai; nahiz beldurgarria ere: baztar guztietan irakurtzen dira letreroak, kaskabel-sugeen arriskua gogoraziz. Erakustoki txiki bat, fotoz eta liburuz hornitua. Hori da dena. Teleskopio nagusiaren domo borobila, bere buruz mintzo zaigu; eta, nahi izan gabe ere, kosmoari eskainitako tenploa dirudi.

Baina giro hartan, anitz lekutan ikusitako foto berek eta zifra berek, asaldua piztutzen dute gudan: Andromeda, foto ederrean ageri (bertan hartua, jakina), gure «galaxia bizkia»... Distantzia? 2.100.000 argi-urte; alegia, argiak bi miloi eta ehun mila urte behar dituela handik hona etortzeko... 300.000 kilometro segundoan eginik, eta egunak 86.400 segundo izanik, kontua erraza da: argi-urte batek 9,46 biloi kilometro ditu; eta Andromeda «bizkitik» gugana 10,41 *triloi* kilometro... bakarrik: Edo-ta, garbikiago ikusteko, 10.410.000.000.000.000 kilometro. 10,41 eta orain 16 zero koma 41 horren ondoan. Nork esan du Los Angeles «urruti» dagoenik?

Orain planketa handi bat egin dute nazio nagusiek, denen artean Kosmotik uhin berezirik ote datorren ikertzeko. Burutik eginak ote? Ez dirudi. Gure galaxian bakarrik (Andromedan bezalaxe) 200.000.000.000 izar dagoela kalkulaten da. Berrehun bat mila miloi izar. Eman dezagun bizia gauza zaila dela, eta

planeta bakar bat dagoela miloi izar bakoitzeko. Hala ere, gure galaxian bakarrik, 200.000 planeta interesgarri izan daitezke... Radio-teleskopio batzu adi jartzea ez da erokeria.

Gure planeta ez baita inondik ere «berezia». Gure galaxian, kanpo aldeko beso batetan dago gure eguzkia; leku «arrunt» batetan, erdialdetik *oso* urruti. Ez dago, zinez, arrazoirik, «Lurra» deritzan planeta hau gauza «berezia» eta «bakarra» izateko. Ezerk ez du zer berezirik somarazten beso eskerga horretan galduta goazelarik.

Baina gure galaxia bera, zer da? Normalean galaxiak elkarturik mogitzen dira espazioan barrena. Gure talde edo «Cluster» horretan, zein da gure egoera? Ez batere berezia, edo zentrala. Gure galaxi-mordoa, beste mila bat galaxia daude, gurearen tan-
kera eta tamainakoak.

Areago: «Virgo Cluster» osoa (gure galaxi-mordoa) ez dago ezeren erdian. Gure «Super-Cluster»ean (galaxi-mordoen multzoan, alegia), gure sistema urrun dago erditik: 60 miloi argi-urtetara... Gure galaxia eta gure galaxi-mordoa bera, «beste bat» baizik ez dira... Itxuraz, deusik ez «espezialik» gure Cluster-ean.

Eta guztira, gaur gaurkoz, mila bat miloi galaxia kondatzen direlarik... Noraino hori? Geroak erranen. Oraingoz 15 mila miloi argi-urtetara dauden Quasar urrenetaraino. Datorkigun argi-errainua, orain dela hamabost mila miloi urte irten zen handik...

Nori zaio gogorregi ezer ez garelara aitortzea?

Eta zalantzak, edo segurantziak nahiago bada, ez dira horretan bukatzen. Amino-azidoen kateak kasualitatez sortuak izateko, ez baita denborarik aski izan 15 mila miloi urte horretan. Hauxe izan da Fred Hoyle astronomo famatuaren azkeneko bonba. Bera, urte askotan jainkogabe amorratua, bapatean, bere azkeneko liburuan, Jainkoaren alde agertu da. «Mozart, Shakespeare, Gauss», azaldu ezinak dira kasualitate hutsaren bidez: «an intelligence within the Universe is directing the constant creation of micro-organisms in interstellar gas» (= adimen batek zuzentzen du sor-kari berrien jaiotza kosmoaren barnetik). Kasualitate hutsez gertatu dena azaltzeko, denboraren falta dago, Fred Hoyle-ren us-tez.

Eta «berezko legeak» baldin badaude? Hauxe da ulerbide bakarra. Baina lege horiek, gertagaitzaren alde jokutzen ari (bi-

zia eta estrukturaketa, gertagaitzena dira; esperientziaz ongi dakigunez), nondik etorri zaizkio materia itsuari?

Zientiaren alorrean, beraz, Jainkoaren arazoa dator berriz; ateo famatu eta jakintsuen eskutik. Badu honek zerbait harri-garririk, ideologiaren paradisua den gure herri sineskorrean. Jainkoaren arazoa arazo da. Horra egia. Nahiz erakatsi izan diren azalpenak, oro har, sinetsi ezinak izan. Eta nahiz gizonaren patua, beste arazo desberdin bat izan.

II

ZENBAIT IDAZLEZ

UNAMUNO ERAGILLE

(1957-III-28)

Bildurtuta egoteko bezelakoa da artu dedan gaia: Unamuno eragille. Zertaz itzegin nik, eta Unamuno'ri buruz. Unamuno'z eta gaur, kondenatu berria dalarik. Au gaia nere!

Eta, alaz ere, emen nauzute ni, gertu, Unamuno eragilleak berak eraginda. Itzegin egingo luke berak nere egoeran, eta orixe egingo nik.

Eta euskaldun berriekiko Unamuno bezin eragille ba nintz ni, pozik geldituko nintzake.

Ia ba euskaldun berriak ausartzen diran. Eta berdin esaten dizuet gazte guzioi.

Baña nere arloan bete-betea sartu baño leenago, gauza bat esan bear Unamuno euskaldunaz. Bestela, uts aundi bat egingo nuke; eta aipatu bearrean nago. Badakizute dagoeneko nundik nora noan: euskera gorroto izan zuen Unamuno'k. Bai jaunak: gorroto da itza, naiz-eta asko estutzen ba gaitu ere euskaldun aundi batek ala jokatu zuela aitortu bearrak.

Eta berak zuen kategoria izanda, bi aldetatik galdu genuen euskaltzaleok: gure izkuntzaren alde egin zezakeana egin etzuelako batetik; eta euskeraren aurka egin zituen alegiñakatik bestetik. Idazle bikaña izan zanak etzigun euskeraz ezer utzi, olerkitxo batzuek baizik. Unamuno galdu genuen euskerarekiko, Baroja galde degun bezela; eta erderaz egin zuen lanari begiratuta, miña degu biotzean gure izkuntzaren beraka sentitzen dugunok. Nai izan ba lu, zer etzuan egingo bilbotar ospatsuak? Erdal-literatura landu ta aberatsean bera dan bezin aipagarria izanik, zer

mallatakhoa izango zan gurean? Piztu egin zezakean Unamuno'k gure izkera, ta etzuen alere deus egin bere alde: asko ordean zantpatzeko. Orduko euskera etzan gauza jakintzako gaiek jarduteko; ta au zala-ta, euskera gaitu ta eraberritu bearrean, baztertu egin zuen.

Etzan, ez, ixildu. Bere eragin eta indar guzietan idatzi zuen euskeraren kontra; bere lan guzietan sakabanatuta ditugu iskerioak eta irañak. Eta bere jarraile asko bide galgarri onetatik abiarazi zituela, nola ukatu? Kalte egin zigun beraz bere jokabideak; baña kalte aundiagoa utzi digute euskerari buruzko bere lanak, euskal idazle asko okertu bai-dituzte.

Au guzia tristea izanda ere, tristagarriago zaigu gaztetango bere jokaera jakitean.

Unamuno Bilbo'n jaio zanean euskeraz etzan an pitin bat baizik mintzatzen. Aro artan banaka batzuek kenduta gañerako guziak erdaldunak ziran; baita gure Unamuno ere.

Eta zer egin zuen? Euskeraz ikasi. Euskaldun berria degu ba Unamuno. Ta edozein izkuntza ikasi duenak ondo daki artarako bear dan adorea.

Euskera maite izan zuen Unamuno'k, arek berak liburuetan esaten duen bezela. «Milla Olerki Eder» liburuan agertu da bere lanen bat. Ez nuke nik esango oso ona danik, ez; baña euskaldun berri batek egiñak dira, ta gauza bat erakusten dutelako aipatzen ditut emen: euskera maite izan zuala, ain zuzen.

Ez ori bakarrik. Geiago ere egin zuen Unamuno'k: euskeraz jabetu zan, eta 1886 urtean Diputazioko Euskal-Katadera eskenni zanean, Unamuno joan zan azterketara. Ta irabazi etzuela jakiteak ez du ezer adierazten, Azkue'k kendu baitzion dalakoa.

Unamuno ba euskaltzale izan zan gaztetan. Eta nola aldatu zan gero ainbesteraño? Ez dakit nik osotoro. Baña zio bat aipatu bearra dago: Madrid'era joan bear izan zuen karrera ikastera, ta egonaldi onek eragin zion ez gutxi, arek berak aitortzen zuen bezela. Kanpora aldegin bear izan zuelako, ta au, egia esan, emen Unibersidadetik ez genuelako gertatu zan. Lortuko aal degu aurki!

Eta Unamuno euskaldunaz oar ori esanda, igaro gaitezen Unamuno eragillearengana. Ots, goazen arira.

Danok dakizute noski, Unamuno'ren bi libururekin gertatu

dana: irakurri ezin ditezken liburuetakoko «Indize»an sartu dituztela. Nola ori?

Arritu egin dira asko. Indizean Unamuno! Bearbada emengo batzuek etzekiten; bañan orain dala urte gutxi istillu gorria sortu zan Unamuno'rekin. Santu egin nai zuten Unamunozaleak, eta artikulua ere idatzi ziran erruz au lortzeko. Beren ustez erlijiozko kezka larria izan zuen Unamuno'k, santuak izan zuten bezin bizia, ta bere santutasuna ospa zedilla eskatzen zuten.

Orain, berriz, herejien zerrendan sartuta, zer pentsatuko? Nola ulertu diteke aurkatasun au?

Baña Unamuno'ren liburuak ezagutzen zituena, ez da arritu. Iritzi ta aburu guziak arkitu ditezke beretan; une batean gauza baten alde ba dago, kontra jarri da geroxeago.

Auxe esaten zioten sarri bere kontra zeuden askok: artikulua batean edozein joera defenditu ondoren, aurka jartzen zala urren-goan. Unamunok alere, etzuen onetzaz jaramon aundirik egiten, ez baitzitzaion ardura bere buruaren aurka betbetan biurtzea.

Onengatik, Unamuno'ren idaz-lana zatika aztertzen ba da, fraseka esaterako, eroren batena ematen du. Ez bide-dago argan joerarik. Bañan erabat artuta, garbi nabarmentzen da eriotzaren larrimiñ etsia duela aritzat.

Une batean santu dirudi; ta ondorengoan, edozertarako segurantzia ezabatuta duela, biraua dario.

Ukatu egiten da askotan.

Gañerantzean, izaeraz zetorkion nunbait joera au. Baña tinkatu egin zan gero bere pentsakeragatik. Paradoja maite zuen, eta au zitzaion argi-iturri bakarra: «Oi danez nabarmendu ez dan egia bat agertzen du paradojak», esan oi zuen. Eta beste batean: «Zentzu onaren lelakeri ta txepelkeriak sendatzeko, paradoja bezelako sendagairik ez dago».

Kierkegaard'en eragiña agertzen zuen onetan. Eta orrela, bere aiurria eta pentsakera egokiturik, finkatu egin zan Unamuno lojika gutxikoa, ta bere kontradizio edo aurkatasunak ugaritu.

Alere, ezin uka, herejea degu Unamuno. «Del Sentimiento Trágico de la Vida» liburuan garbi agertzen da bere okerra: egia arkitzeko almena ukatzen dio pentsamenari, ta sentimen utsaren bidetik abiatzen da. Au modernismo utsa da, ta herejia au eli-

zak bereziki ezetsi zuen ezkerero, ez nau batere arritu Unamuno bera ezesteak.

Unamuno herejea degun aldetik, ba, «Indize»an sartzea ez da arritzekoa. Baña, esan degu leen, toki batzuetan kristau zintzoa dirudi Unamuno'k, kezka bizia erakusten du danean, eta auxe da noski bera kanonizatzeko bide eman zuena.

Onela dala-ta Unamuno'k ain bereziki maite zuena arkitzen da bere nortasunean: paradoja bat. Bere buruaren aurka dagoela pentsa liteke. Sarri zion berak: «Unamunozaleen partidu bat sortzen ba da, neu izango naiz bere lenbiziko etsaia». Mundu guzieren kontra zegoen, beti ari zan aldatzen, eta onengatik arki ditekere bere lanetan gauza berari buruz alde ta aurka, goraka ta beraka.

Kierkegaard aipatu degu leen, eta bere «anaia Kierkegaard» berriz aipatu bearrean gaude. Onengatixe ikasi zuen danemarke-raz, eta gutxik bezela bere «anaia» orren filosofia ezagutu. Esistentzialismoa zer zan emen iñor etzekielarik, Dinamarka'ko izkuntza ikasi zuen Unamuno'k, arek eraginda, ta aurrenik ezagutarazi zigun gero famatua izango zan Sören Kierkegaard. Bai jaunak: esistentzialista goiztarra degu Unamuno, esistentzialista aparta, primerakoa, Aita Sciacca'k ari buruz esan zuena gogoraziko dízuet: «Unamuno ta Kierkegaard dira esistentzialismoaren aintzindariak».

Alere, Unamuno'k etzuen bizar zikin narratxik, ezta orrelako itxurarik. Ez uste izan... Egiazko esistentzialista degu. Eta egiazko esistentzialismo au igaro ez-baña geure giarra dala uste detnik. Onengatik bizirik dago gugan Unamuno, eta bizirik diraelako sartu dituzte Indizean bere «Del Sentimiento Trágico» ta «La Agonía del Cristianismo». Oraindik asko irakurtzen diralako, oraindik ere eragin aundia izan dezatekelako.

Zirikatu egin nai zuen aurrenik Unamuno'k, gero pentsarazteko; ta onengatik ari da eten gabe irakurlea zula ta zula. Arek berak zion: «Jendea su ta gar jartzea kontzientziaren betebearra izan ditekere». Ta «erein egin bear dira gizonagan zalantza-biiak, kezka-miñak, baita etsipenekoak ere —Bai noski! Zergatik ez? Etsipenekoak ere bai! —eta ori dala-ta zoriona esaten dana galtzen ba da (eta zoriona iñundik ere ez dana, noski) ez da ezer galdu».

Kezkatu egin nai du. Eta, berak zuen luma trebea izanda,

geienetan iguratzen du. Marias'en ustez «egundoko eragiña du zirikatzen»; eta beste batean esan du bi zatitan zatitu ditezkeela España'ko gazteak: Unamuno'ri irakurri diotenak, eta Unamuno'renik ezer irakurri ez dutenak. Eta egia da, nere ustez beñopein.

Nazka ematen dio Unamuno'ri kezkek eta gertaerak solasgaitzat artzeak: «Munduan gertatzen dan ia guzia izketa-gaia besterik ez da askorentzako».

Unamuno'rentzat ordea, kezkabide gogorra da dena, ta larri-miñik gabe nola bizi ote diteken ez du entenditzen. Zertarako gaudede munduan? Zertarako jaió gera? Zertarako? Pentsatu egin dezakegu, miña sentitzen degu, zorion-egarriak zulatzen gaitu, ta galdetzen du: «Zer dala-ta? Zerbait adierazten du onek guziak». Bost ajola zaio Unamuno'ri jakitea bera: gizona zertarako dan ez ba dakigu, ez dakigu ezer. Gizonarena ez beste danak sasi-jakintzak dira beretzat: «Izpiritua azitzeko... Ez! Jakiteko jakin! Egiagatik egia! Ori ez da gizona zkoa». Eta geroxeago: «Zertarako» bat billatu bear».

Jakite utsak, esan degu, iguin ematen dio. Orobat ere metafisikak; eta onetan Gide'kin bat dator. Gizonaren auzia argitu nai du, ez besterik. Besteak ez dira, izan ere, benetako auziak. «Nundik nator ni? Bizi naizen mundua nundik dator? Azi nauen mundua nundik? Eta nora noa ni? Inguratzen nauen guzia nora ote? Zer adierazten du onek? Elikatzeko bere bear aberekoietatik jareginda, auek dira gizonaren galderak. Eta, ondo begiratuki, galdera oien muñean, gogo aundiagoa ikusiko degu «zertarakoa» ezagutzeko, 'zergaitik' bat jakiteko bako. «Ez degu karia bear, xedea baizik».

Gizonaren betekizunak larritzen du Unamuno, ta gizonari dagokion eran argitu nai du: «Ezur aragizko gizona da filosofoa, ta bera bezelako ezur aragizko gizoni aiertzen da. Nolanai ere, borondateaz filosofatzen du, sentimenaz, ezur aragiaz, arima ta gorputz osoaz, eta ez gogamenaz bakarrik».

Gizontasuna dario Unamuno'ri, berak erderaz «hombredad» esango lukena. Gizona da albo guzietatik, gizonak sentitzen dituen kezkabide ta katramillak dira bere izkribuetako mamia, ta gizontasun orretzek unkitzen gaitu. Benitez de Castro'ren ustez, «Europak ez du izan eun urtetan Unamuno bezelako gizonik».

Gizon osoa degu. Orregatik kezkatu. Kezkak eragiten dio:

kezkatan dabil, kezkatan bizi da, kezka gorrian iltzen da, kezka baten ildo da bere bizitza.

Badaki Unamunok eriotzak mugatzen duela, ta ilbearrak astintzen du. Ta Salamanca'ko zelai paketsu zabaletara joaten danean eriotzaz pentsatzen du, eriotzaren idea dauka lagun, bañan alperrik billatzen du osertzean. Noizpait bukatu bear, bearbada Argia arkitzeke amaitu bear... Beti bizi nai du, beti bizi bear du. Noiznai betirako il ditekelako zalantzak larrimin betean dauka. «Ni mamitzen nauen gorputz au ilda —neure bururaekin ez nastutzeko «nerea» deitzen dedan orixe— ezerrezera biurtzen ba naiz, eta nere anaia guziei alaber gertatzen ba zaie berenakin, mamu-illara beltza besterik ez da gure giza-leñu au, eta ezerretetik ezerezera goaz». Eta, beste batean: «Mendi bare berdea betestean, edo nere arimaren beste aizpa bat begi argietatik so egiten duela ikustean, biotza zabaltzen zait, arimaren taupada sentitzen det, eta bizi-giroaz ezaturik, nere etorkizunean siñisten det; baña, berealaxe, ezkutuaren abotsak susmur: 'Akabatu egingo aiz!', eta eriotzaren aingeruak egoaz ikutzen dit».

Ez dauka lasaitzerik. Billaka asten da, ta ez du arkitzen. Gogamenak ez dio laguntzen, ez baitu berak ildakoaz besterik ulertzen. Eta gizonak bizi nai duen ezkeron nola lagundu dizaioke pentsamenak? «Illa billatzen du pentsamenak, biziak iges egiten dio-ta»... «Zerbait ulertzeko, il egin bear du aurrenik, pentsamenean gogortu bear du».

Nola urratuko ba buruak gizonaren auzia? Bizitzaren etsai amorratua da pentsamena, ta eriotza bear du. Orregatik, bere bi-deetan aurrera sartuta zer arkitzen du Unamuno'k? Itxarokizunik dagoela. «Gogamenak, gizonaren pentsamenak, bere neurrian eta eran ba da ere, arima illezkorra danik ez du probatzen ezta denboretan kontzientzia edo oarmena ondatu-eziña danik ere; kontzientzia onek gorputzeko eriotzaren ondoan irauterik ez dauka la baizik. Beti esana det, bere neurrian».

Etsipen gorriak iñarrostean du ba: «Gauza edozein tokitatik ikusita, beti jartzen da burua gure illezkortasun-irrikaren aurka ta ukatu egiten digu. Izan ere, bizitzaren arerioa da-ta pentsamena.»

Orra auzia: ez iltzeko esaten dio biotzak gau ta egun, bañan ez dakus biderik. Eta onetra ezkeron, larrimiñetik irtetzeko Herejiaren bidetik egiten du: «Fedea ez da pentsamenetik datorren

gauza, naimenetikoa baizik. Siñistu nai izatea da siñistea, ta Jainkoa siñistu batez ere, eta guziaren gañetik, Jainkoa dedilla nai izatea. Orrela animaren illezkortasuna siñistea, illezkor dedilla nai izatea da; alabaña, ain gogor nai izan bear da, pentsamena zapatu-ta bere gañetik pasa bear duela nai onek».

Eta zergaitik au guzia?

Biziak eskatzen duelako, biotz irrikak eskatzen duelako; ta eskatze au da biziaren mamia, ta ez arrazoia edo pentsamena. «Zuk, Spinozak, eta irurok ez degu beñere il nai, eta beñere ez iltzeko irrirts auxe da gaurko gure izana». Baztertu egiten du arrazoia, ta ezertarako balio ez duela esaten du bein eta berriz. Jainkoaganaño iristeko gauza ez da, bere ustez. Ona herejia.

Bañan bere arima muñean bertan dauka Unamuno'k biotz ikarra. Betiraka ilko ba-gera, zertarako dana? Zertarako? Biotzak eskatu, ta buruak ezin eman. Ez al da au al danik eta ikaragarriena?

Noizpait bukatzeko gogaiak ba zearo larritzen du. Baña beti betirako bizitzeko ideak ere ez gutxiago; ta Kierkegaard'ekin dio: «Noizpait ilbearra izugarria ba-da ere, are izugarriagoa litzake beñere ez iltzea». Ez du gelditu nai ez du iritxi nai, ez du pakerik nai, ez du gelditasunarik nai. Eta bildurtuta ojuka: «Etzazue il denbora! Oroitzapen biurtzen ari da eten gabe gure biziera. Itxaropena da ta itxaropidea sortzen du. Utz gaitzazue bizitzen! Betikotasuna, betirako oraintasuna, oroitzapen eta itxarokizunik gabe, eriotza bera da.»

Entzun dagiogun berriz: «Miñak oro itzaltzen ba-dira, baita alik garbien eta gogozkoenakere, arrenkura guziak suntzitzen da-dira, zerk biziaren ditu doatsuak? Jainkoagatik sufritzen ez ba dute, nola maite dezateke? Eta an lorian bertan ere, piskanaka ta geroz ta bertagorik Jainkoa ba-dakusate, beti guztiz iritxi gabe, ezagukizunik ez ba-dute, irrikakizunik ez ba-dute, zalantza-kondarririk ere gelditu ez ba-zaie, nola ez dira loakartzen?»

Ez du iñora iritxi nai; bildur da eltzeko. Ta bere filosofian alaxe gertatu zitzaion: irrika bizian idatzi zuela bizitza osoan zear, bañan elburua beñere atxiki gabe. Ba-zion berak: «Borroka da garrantzia duena ta ez garaipena».

Batzuen ustez, alere, zaratazalea zan Unamuno ta orregatixe arrotzen zituen bere larrimiñ eta biotz ikarak, ain larri sentitu ez arren.

Ez naiz ni oien aburukide. Gauza bat siñisten edo sentitzen ez danean, aixa azaltzen da sasikeria ta ondoretan agertzen da batez ere argi ta garbi. Onengatik esaten zuen Goethe'k sentitze berean idatzi bear dala, ta berak beti egin zuela orrela. Ta Unamunorekin orixe gertatu da. Eragin ikaragarria izan du gazteen artean aspaldidanik, eta orain ere ba-du asko, ta zerbaitengaitik gertatu da au.

Gañera sentitu gabe esan al diteke: «Bizitza egian eta egia bizitzan billatzen da nere erlijioa, naiz-eta bizi naizeño arkituko ez dedala ba dakit ere; nere erlijioa izkutuarekin eten gabe ta nekaitz borrokatzea da; egunsentitik arratseraño Jainkoarekin borrokatzea da nere erlijioa, Jakob'ek bere aroan egin zuan bezela».

Bi zio aipatuko ditut bere alde. Unamuno'k berak zion, etzala urrea berak ematen zuen sosaren balioa, bere eskutik zeraman beroa baizik. Eta, au aski ez ba-litz aski, Jimenez Ilundain bere adiskidearekin izandako eskutitzak agertzen du benetako kezka zuela.

Bestetik ere, askotan gertatzen da, irakurle batek Unamunoren liburu bat artu-ta berak sentitzen zituan gauza asko liburuan ipiñiak arkitzea. Zer adierazten du onek? Gaurkotasuna dariola orain ere Unamuno'ren lanari. Guziok, bai zerok eta bai neronek ere, sarri sentitu ditugu bere larribideak; bearbada ez arek bezin biziro, baña sentitu bai. Oiartzun zaigu bere abotsa, ta erdibitu egiten gaitu. Zergaitik? Gezurrezkoa dalako? Ez orixe. Ondo egiazkoa dalako, guttiz gaurkoa dalako ain zuzen.

Esistentzialista utsa dan ezkerok, emen dezute Unamuno larrimin betean sartuta. Bañan larrimin ori baloratzen du, ta itxaropen-iturri biurtu nai du: «Oñazea da kontzientzirako bidea». Miñak pentsarazten digu, berak jartzen gaitu bidean; ta atsegiñak gere burutik aldentzen ba gaitu, miñak biurtzen gaitu gure iza-nera.

Eragin gogorra du Unamuno'k. Bere alde ala bere aurka jarri gaitzke, bañan ezin geldi iñor leen bezela: Maitatu egin bear da ala gorroto; beste amar liburu geiago irakurtzen dira ala ezta lerrorik bat ere. Ez dago erdian geratzerik: aurrera ala atzera jo bear, eta bertatik.

Gañerakoan esistentzialista guziak bezelaxe, oiturakeritik ateratzen gaitu, Irakurri-ala piztu egiten gera, beste mundu berri bat ikusita. Kanean ikusi ez degun zerbait arkitzen degu argan;

Jainkoa, arima, ta bizi-bearraz elizetan entzun ez ditugun gauza sarkorrek irakurtzen ditugu. Agustín donea gogoratzen digu orain; Gide sinisgabea segittuan. Zer da txorabio au? Zer da berotasun kiskalgarri ura? Unamuno da. Nietzsche'k aña unkitzen du, Kierkegaard'ek aña inñarosten du. Liriku sakona da. Olerkari da.

Ondo daki au guzia «Del sentimiento Trágico» edo beste edozein saio irakurri duenak: minduta uzten du irakurlea. Gizona geiago da biotza, arrazoia baño. Ta Unamuno'k biotzari itzegiten dion ezker, eragin bizia lortzen du.

Emendik bere arriskua: eragille izugarria Unamuno. Emendik ere bere birtutea: eragille aparta Unamuno.

Ni ez naiz inñor Moralari buruz itzegiteko, noski; ta alde orreatik ez det tutik esango. Bai ordea bere espiritualetasunaz.

Izpirituzale guzizkoa degu Unamuno. Gure giroa berriz, gai-koia. Futbola dala, dirua dala, negoziuak dirala... ez bide dago arimarik. Ez esan, arren, elizak beteta daudenik. Barkatu bañan ez dakit nik askotan zertarako joaten geran mezetara. Gaia bide-dago, ta ez besterik. Noiz entzun dezute zuek kalean Jainkoaz itzegiten? Mintzagaia bezela bai, bearbada, txolartea aixago pasatzeko agian; eta au ere, seguraski, ez asko askotan. Jainkoa, arima, biziaren adikizuna, ta abar, apaizak itz-egiteko arazo «espexalak» bide-dira. Ta ni neu ere, nu esateagatik, guziz arrigarri natzaizue guzioi. Ez da ala? Ta, zergaitik? Giro gaikoa baño gaikoa degulako, arima ta berari dagozkion arloak gure bizimodutik at daudelako, materialista gogorrek gerlako.

Unamuno ez ordea. Tai-gabe mintzatzen zaigu gure etorkizunaz, tai-gabe bizitzaz eta eriotzaz, tai-gabe gizonari dagozkion arloez. Beraz, gure giro txar onetan, jaso egiten gaitu, gu baño gorago bai dago. Ta alde onetatik, ezin uka dezake inñork oso oso egokia dala. Zuzpertz egiten digu biotza, piztu egiten gaitu, urduri utzita. Lozorro ta gezurraren bidez lortuko ba-da pakea, ez du ezertarako nai; ta sasi-pake au iltzeko asmotan dio: «Pakea! Pakea! Ala egiten dute korroka gure zingirako igel eta txalburu guziak».

Ortaz, ondo dago Unamuno'ren liburu okerrak kondenatzea: onela, ba-daki irakurleak zer arriskutan sartu diteken irakurtzean, eta ba-dakike nora ez jo. Bañan, ori dala bide, bere liburu ta izkribu guziak baztertzea, jokaera kaltegarria irudituko litzaidake.

Batzutan herejea degu Unamuno, bai. Baña, zer dira ingura-

tzen gaituzten gaikoi amurratu oiek? Zer dira lagun-urkoarekiko maitasunaz arrastorik ez dakitenak? Ta beren etekiñei baizik begiratzten ez duten oiek? Zer dira? Herejeak baño kondenagarriagoak ez al dira kristautasunarentzat? Gaur berekoikeria nagusi dala-ta, zer ote da txarrago?

«Españan ez dago herejerik —zion Unamunok— federik ez dagoelako». Eta ez aal da egia?

Materialismoak josita gaude. Ta au galdetzen dizuet: Unamuno kaltegarri izan ba diteke, zer da gure giro gaikoi nazkagarri au?

Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztutzerik, eta alde batera ala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukeritan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, ta berari eskerrak arkitu degu askok gure burua.

Eta, au esanda, eskierki agintzen dizuet au, kontutan ar dezazuten: naiago det nik Unamuno eragillea, bere akatsak eta guzti, sasi zentzudun biurri berekoi guziak baño.

LEKUKO BIKAIN BAT IL DA

(1960-III)

«Egiazkoa billatzea eta naigarria billatzea et dira bat»

(CAMUS)

1960ko Urtarrillaren lauean, berri hits batek astindu zituen bazterrak: Albert Camus, Nobel-Sari ezaguna, zorigaiztoko ixtripu batean illa zan.

Segituan asi ziran berari buruzko solasak eta artikuluak. Eta gure artean ere, ondo gogoratzen naiz, nik uste baiño geiago itzegin zan egun aietan, eta nik uste ere baiño obeto.

Izan ziran kontrakoak ere. Nola ez. Zenbait tokitan erabaki zozo au artu zan: Camus'en eriotzari buruz deus ere ez esatea. Izan ere, etzan oso jokabide jatorra... Edo-ta nabarmen gelditu zan gauza bat: batzuk etzutela Camus aipatu ere nai, pekatu batzuk bezela, bildurrez-eta aipatzeagatik beragatik kalteren bat gerta zekigun.

Orrek aski adierazten ditu Camus'en balioa eta gaurkotasuna. Unkituko ezpalu, senti-araziko ezpalu, elitzake arriskurik izango.

Camus'en alde kaltegarria, alere, inork ez zuen ukatu. Eta nik ere ez. Politikarengatik itxaron ba zitezkean iritzi gogorrak, erlijioaren aldetik gogorragoak.

Baña, geure artean eta Jaungoikoari esker, idazle andi onen obra bekokia zabalez aztertu da; eta ori pozkarria da, Camus'en alde ona badago-ta. Bere presunaren zintzotasun, prestutasun eta jatortasuna batipat orain arte danak artu dituzte aintzakotzat. Ilbeltzaren ogeiean, bi apaizek eman zuten bere iritzia Camus'ez Donostia'ko «La Voz de España»n; eta, biak, Jose Lasa'k eta Juan Landibar'ek, oso egoki eta etorkor itzegin zuten. «Dana dala —bukatu zuen Aita Lasa'k— bedeinkatu egiten ditu Jaungoikoak ostikatutako zuzentasunaren alde jokatu zutenak».

* * *

Batzuk arriturik gelditu ziran. Eta oso arritzekoa ezta.

Urte askotan zear, Camus'en alde bat bakarrik aipatzen zan: Absurduarena. «Sisifo'ren Mitoa» (1) bere saioa zegoen beti aurrean, ots, asierako bere idea nagusi au: munduak ez zuen sentidurik. «Atzerritarra» (2) bere nobela bizi eta zoragarrian ere Absurduaren Filosofia agertzen zan nobela antzera. Eta, onengatik 1945 aldean, Fraitzia'ko esistentzialisten artean aipatzen zan Camus, eta esaten: Jean Paul Sartre, buru; eta, ondoren, Simone de Beauvoir, Georges Bataille eta Albert Camus. Heidegger, Gabriel Marcel katolikua eta Jaspers protestantea, esistentzialistak izanik ere, etziran oiekin batera agertzen; urte aietan Sartre baitzan nagusi. (Aita Santuaren dokumentuetan, berdin: Sartre aipatu ez arren, Sartre'ren Filosofia gaitzesten da; ez Marcel'ena esate baterako.)

Are geiago. Eta barka nere gertaera batez itzegitea. 1951 urtean, ni Bilbo'n nengoelarik, oso ots aundia atera zuen Camus'en liburu berri batek: «Jaikitako Gizona» (3). Eta, nere aitari —Paris'a baitzijoan egun aietan— ekartzeko eskatu nion. Paris'ko liburu-denda batean sartu omen zan ba nere aita, saio famatu orren eskean; eta, dendariak galdetu omen zion:

- (1) Le Mythe de Sisyphe, 1942.
- (2) L'Etranger, 1942.
- (3) L'Homme Révolté, 1951.

—Eta, zeinzentzako nai duzu?

—Neure semearentzat.

—Zenbat urte ditu?

—Ogei ta bi.

—Ba... Etzenioke eraman bear... Badakizu: Camus ori esistentzialista zoro eta lizun oietako bat da; danetan bildurgarriena omen da. Beraz, zeuk ikus. Baiña...

Eta, orrela, nere aitak etzidan liburua ekarri.

Orixe zan asieran Camus'ez esaten zana. Eta orrengatik ni gure artean gaizkiegi ar zedin bildur nintzan.

Baiña, gerora, Sartre'rekin Camus'ek moztu zuenetik batez ere, bereizten asi ziran biak; eta geroz ta nabarmenago ikusi zan, Camus esistentzialisten artean jarri ba diteke ere, ez tala inñundik ere Sartre'ren anaia. Eta diferentzia au agirian jarrita, Camus irten da irabazle. Zeren Sartre'k izkribu irakugarriak ba ditu ere («Murrua» (4), esate baterako, italiar Moravia'ren kutuna), beste batzuk lizunkeria atsekabea besterik ez tira, eta azkenean goragaleak ematen dituzte.

Arira itzulita, au esan bear da ere: Camus'en aldakuntza ori leenagotik asia zala. «Izurritea» (5) bere «kronika» ospatsuan, karidadea goratzen du; eta Tarrou eta Rieux, izurritean alegintzen diran personaje nagusiak, biak, Jaungoikoa ukatu arren, erdi santuak dira.

«Izurritea»n urruti gaude «Atzerritarra»tik. Bigarren au irakurrita (eta liburu au beingoz irakurtzen da nai-ta-naiez, bere xarmak eta interesak eraginda), kutsu arrigarri bat gelditzen zaigu biotzean. Meursault ura, batez ere kondenatua izan arte, ez tugu ondo ulertzen: utsean dardaratzen da: gaurko gizon asko bezela, egia da, baiñan alere bere jokaera arrigarri zaigula. Meursault'ek ez tu sentitzen, ez tu pentsatzen, ez tirudi egiazko gizon bat. Bere amodioetan, bere amaren eortzetan, arabitar bat iltzen duenean, ametsetan bezela ari da, ez ta ezertaz konturatzen. Geronean bakarrik, eriotza ondoan ikusi duenean, gizonaren egiazko egoeraz oartzten da; baiñan, orduan ere, leenagoko aroez tris-

(4) Le Mur (Sartre).

(5) La Peste, 1947.

turaz betea oroitzen da. Berak, berne-muiñetan, sasi-biziera ura naiago zuen, sasi-pake ura, sasi-keria beraz, egia garratza baiño.

«Izurritea»n, berriz, ots, bost urte igarota, Camus ezta leengo. Eztu Jaungoikoarengan siñisten, jakiña; baiña gizona maite du. Gizonaren patu tristeak sakon unkitzen du eta, biziak salbatu nairik, gogoz lanegiten du izurrite betean. Meursault'engandik Rieux'engana tarte aundia dago, zalantzarik gabe.

Beraz, «Sisifo'ren Mitoa»ren absurdu utsa igarota zan aspal-didanik.

Gizona maite du, ba, Camus'ek; ez, alabaiña, dan baiño ohea edo zintzoagoa dalakoan. Ez. Camus eztabil ametsetan. Camus'ek bere ortan maite du; berak badaki gizonaren ontasuna eta bertutea noraiño irits ditezkean. Alarik ere, kupidagarri zaio, eta maite du.

Baiña onek eztu Jainkoa'rengana eramaten. Camus'en Moralak eztu oiñarria Jainkoa'rengan. Seneka'k eta estoikoak bezela, Moral bat eraiki nai du Camus'ek Jaungoikua gabe. Eta ezta txantxetan ari. «Bizi naizen munduak nazka ematen dit; baiña bertan sufritzen dutenen laguna eta kidea naiz.» Camus'en bizieran zear, biotz onekoa zala nabarmentzen da. Camus egiatia zan, etzan itxura egiteen aldekoa. Bere adiskide guziak ao batez aitortzen dute.

Biotzez maite zuen, ba, Camus'ek gizona; zorigaiztokoa aurkitzen zuen. Aurak, batez ere, bere obra guzietan oiñazearen menpean ikusten dituenean, biotza erdibituta ixuritzen zaio bere errukia. Oran'en, esate baterako, izurritea dagoela jakin danean, mutiko eder bat topatzen du Rieux medikuak. Une labur batez kiñurik egin gabe begiratzen diote alkarri; eta, bapatean, irri-barre zabal bat egin dio mutikoak. Orduan, garbi adierazten auzartu ezpadira ere, Cottard'i eta Rieux'i idea berbera gogoratu zaie: «aur zoragarri eta errugabe au, bearbada, izurrite gaisto ontan ilko da. Zergatik bera?»...

Errugabeak zigortzen dituen gaitzak beti asaldatzen du Camus, Dostoievsky bezela.

* * *

Camus'ek ordea —eta auxe da Camus'en arriskua— eztu Jaungoikoa aipatzen ere. Aurren eriotza eta oiñazea ikusita, Ivan Karamazof'ek izugarrizko birauak botatzen ditu. Camus'ek eztu

ezer esaten Jaungoikoa'ren kontra. Birauak botatzeko ere, Camus'ek eztu Jaungoikoaren bearrik.

«Jaikitako Gizona» bere saio sakonean ondo progatzen duen bezela, gaurko gizona (eta Camus bera aien arteko, esaten ezpadu ere) beñiere baiño aurrerago joan da Jaungoikoaren ukaeran. Gaurko gizonak Jaungoikua ezezik, absolutuak berak ere arbuia-tzen ditu, eta aaztu gero. Gaur ezta biraurik ere esaten. Camus bera, gonbazio batez, era ortantxe ari da: eztu Jaungoikoa ez ukatzen ez madarikatzen ez deitzen. Alde ontatik, egiazki, Sartre'ren mallan jarri diteke.

Itz aundiak nazkatu egiten dute, absolutu guziak bezela. Nobel-Saria ematerakoan, Arjelia'z pittin bat itzegin zuenean, nabarmen gelditu zan au: Abertzaletasuna, esaterako, abstraktuan, gogai jenerala eta zabalegia dalako, etzitzaiola ajolik, itz uts bat zitzaiola, etzuela artan siñisten. Aurrerago beste zio batzuk aipatuko ditut ere, orrela zergatik jokatu zuen argitzeko.

Camus'ek bere ama maite zuen, au bai; edo kalean topatzen zuen elbarritua edo aurra. Auek biotzez maite zituen. Baiña Camus etzan kontzeturaz fidatzen. Jaungoikoa, Askatasuna, Partiduak, eta absolutu eta sasi-absolutu guziak etzitzazkion atsegin, etzitzen maite: aitzekia utsak iruditzen zitzaizkion.

Camus'ek eztitu siñisten: geiegi baliatu izan dira alakoak, bere ustez, izkutuko naikeriak diximulatzeke.

Katoliku-Elizari buruz berdin pentsatzen du. Badirudi bere pentsakerak, besterik gabe, eta nai-ta-ezean, ukatzera eraman bear zuela. Baiña orrez gaiñera, kritiko askok (Gabriel Marcel, eta Louvaineko Charles Moeller irakasle famatua aien artean), katoliku izanik ere, beste zio bat ikusten dute ere: Elizaren politika-jokabide batzuk ez ote zioten gugandik alde eragin uste dute. Gorago esan dudan bezela, Camus'ek uste baitzuen munduko ilkintzarik zitalenak itz agurgarriak aipatuz egin dirala. Ain zuzen ere, Camus'entzat Inkisizioa eta beren erakoak izan ziran «oztopo-arriak» Moeller apaiz jakintsuaren iritziz.

Komunismoaren etsai etsia da ere. Irakurleak dakien bezela, 1934 tik 1935 era Camus komunista izan zan. Ontan, beraz, Gide'ren bidea eraman zuen. Eta au bezela, geroago komunisten jokabideengatik etsita, aurka jarri zan, guztiz eta il arte. «Jaikitako Gizona»n kritika zoragarria eta zorrotza egiten du, kapitulu oietan, kristau batek «izenpe ezin dezakean lerrorik eztago» (C. Moeller).

Karidadea eta maitatu-bearra geroz eta biziagoa egiten da Camus'engan.

Koestler'ekin batera liburu bat idazten du eriotza-penaren kontra (6). Leendik ere au uste zuen Camus'ek: gizon bat iltzen duenak, il egin bear du. Orrengatik (ikus «Jaikitako Gizona») nihilistak ondo xamar jartzen ditu, geienak azkenean iltzen baitziran atentadoak eginda gero. Eta orrengatik ere naiz Arjeliorra izan bera, eta bere sorterrria maitatu, ezpide zan ondo kontpontzen F.L.N. koakin, auen terrorismoarengatik. Oni buruz ezta aaztu bear ere bere aita Alsace'koa zala, ama Mallorca'koa; eta bera, naiz Arjelia'ko Mondovi errian jaio, eta Argel'en pasa gataroa, Fraitzia'ko kulturaz azia izan zala.

«Erortea»k (7) joera berbera darama. Nobela eredu ontan, bere burua Seine'ra botaiaz iltzera dijoan neska bat ez salbatzeagatik, damua jarraitzen zaio Clamence'ri toki guztietara. Camus'en ustez, berriz, lagundu egin bear da, maitatu egin bear da. Salbatzen saiatu bear izan zukean berak emakume gajo ura, eta etzuen egin. Arriskatu egin bear zuan bere burua ezezagun ura ito etzedin.

Moralaren aldetik Camus kristau biurtzen da piskanaka.

Moralaren kezka ori geroz ta biziago zuelako, Camus'en alde mintzatzen dira batzuk. Baiña, bestetik, Jaungoikoa ukatuz saiatu zalako, kontra jartzen dira beste batzuk.

Eta, egia esan, bi alde dira Camus'engan eta, aatik, bi irakurle-mota: alde daudenak, bere bertuteengatik; kontra daudenak, berriz, bere ateismoarengatik.

Alde daudenak, Camus'en presuna defenditzen dute.

Kontra daudenak, berriz, bere filosofia kondenatzen.

Au dala-ta, gauza zelebrea gertatzen dira Camus'ekin: katoliku askok bere alde itzegiten dute; eta komunistak, ordea, aurka.

* * *

Camus'ek, nere ustez, oker egon ala zuzen EGIASKOTASUNA eta JATORTASUNA ditu bere alde. Oitantxe ikusi uste dut nik bere baliorik gorena.

(6) La Peine Capitale, 1957.

(7) La Chute, 1956.

«Nik gizon bat izan nai dut», dio Camus'ek Rieux atxete-raren aoz. Camus'ek egia nai du, egia batez ere eta garratza baldin ba da ere. Eztu aitzekiarik nai, eztu estakururik nai. Bere xede au agirian dago, eta orrengatik aukeratu dut idazpuru, irakurleak irakurria duena. Auxe dio ere Guehén'n'k artaz itzegiten duelarik: «Beti ere eskasian finka gindezkean bildur zan bera».

«Nere aroa ulertzeko alegin bat da au», dio Camus'ek. Berak lekuko izan nai du aurrenik; eta, aal ba lu, aztertu ere bere garaieko gizonaren kezka.

Sasi-literatura etzaio ajolik: «idazkera», idaz-«legeak», eta «teknika» ori guzia, bost ajola zaizkio. Berak sustraia eta pentsaera nai ditu bakarrik, gure Unamuno'k bezela. Badu, dudarik gabe, bere idazkera zolia eta bizia: baiñan au bidenabar lortzen du; eta, askotan, ezta ideien edertasuna eta naturaltasuna baizik. Bere izkribuetan ezta apainkeriaren aztarnarik aurkitzen. Camus apala da. (Izakeraz ere izutia omen zan oso.)

Bilbotar filosofoak «nivola» esan ba zien bere nobelai, onek ere ezte «nobela»ren izena eman nai bereai; eta «récit» edo «chronique» dietzen die. Sekulan ez «roman».

Danetan Camus GIARRAZ eta MAMIAZ arduratzen da; eta ez sasi-estiloetako azaleko mintzaz.

Gogorregia zaio Camus'i gizonaren prolema txikikeriatan eta uskeriatan ibiltzeko. Idatzi zuen guzia, biotzetik zeriola idatzi zuen. Camus'ek eztu pasarteko izkriburik. Camus'ek ezin dezake ariñean idatz.

Iritzi ontantxe dago ere R. M. Albérès: oraindak goizegi zaio eskierki esatea. Baiña bere ustez «Camus'ek etzuen Proust irakurri; eta Colette, Virginia Woolf, eta Bernard Shaw etzitzaizkion ardura».

Au egia ba litz, ni enintzake sobera arrituko. Camus'ek («Jai-kitako Gizona» irakurri besterik ezta) eztu idazle geiegi goratzen: Dostoievsky aipatzen du, Nietzsche, Democrito... Rimbaud ere atsegin zaio olerkari, baiña Abisinia'ra joan zan ezkeroztik, saldukeria bat egin zuela eztu izkututzen.

Santamaria'k ere orregatik maite du Camus: «Bere izkribuetan larruaren azala besterik ipintzen eztuten idazleak, galerazi giten naute. Gaiñaldea bakarrik ematea, ezer ez ematea baita.

Literatura guzia alperrikako xekeriak asmatzea besterik ezpada, nik eztakit idazleak zertarako idazten duen, ezta idazlearen deia ere zertan datzan».

Camus'ek askatasuna maite du malla eta arazo guzietan. «Combat» egunkaririk, Resistenzian eta gero ere bai; «Express»-tik, UNESCO-tik, eta beti, askatasun guzien alde mintzatzen da eta jokatzeko du, eta kolore guzietako nagusikerien kontra: «teatroan bezela urian ere, eriotza darraio bakarriketari».

Camus'en izkriburik geienak saio-antzerak idatzirik daude; eta tankera ontan zorrotza da oso.

Baiña bearbada ohea da oraindik olerkari-antzerak. Arjelian'ko edertasunaz mintzatzean, «Noces» obran esate baterako. Bere irudipenak amesgarriak dira:

...«Itsasertz auetan, urtero-urtero lore-neskatxan uzta berri bat azaltzen da. Dirudienek, udara batez irauten dute bakarrik. Urren-go urtean, aurrekoan beren soiñak zugaitz-kimak bezin gogorrik zituzten neskatillak etortzen dira beren orde, lore gartsu... Goi-zeko amaiketean, zelaietik jetxita, oial nabarrez doi-doi jantzita aragi gazte ori guzia, ondarrera ixuritzen da, eta ugin koloretsu baten antzo leertzen»...

Eriotzaren kezka eta Mediterraneo'ko edertasuna nahasita agertzen dira. Eta naaste orrek berak biziago eta sakonago, egiten ditu biak. Ontan ere Unamuno'rengandik urbil dabil. «Témoignage Chrétien» astekariaren kolaboratzailea dan Jacques Madaule ezagunaren itzez azaltzeko: «nolabait esateko, guztiz batera eta aldi berean, bizitzeko atsegiña eta bizitzeko absurdua azaltzen ditu.»

Beraz, arima bat aurkitzen da ortan guzian, gurekin sentitzen duen biotz paregabe bat.

Camus'engan, nik beintzat, gizon aparta bat aurkitu uste dut leenik. Gizon bat: ezagutu nauen gizon bat, gure aldiko lekukorik bikainenetako bat. Ez, gaiñera, Fontán'ek eta bestek diotenez, geure aroko lekuko bat. Nik eztut ori uste. Gizonaren heina, larrimiña eta gogoa, orren errotik ezagu-erazi dituen idazle bat, illezkorra da, eta ezta sekula guzian aaztuko.

Beraz, bjoakio Camus gizonari nere errespetu-itzal guzia.

Danok zor diogula uste dut.

Eta, Unamuno'k bezela, soluzioa emateko Camus'ek balio ez-padu, bizierak bear duen sentiduaren egarria pizteko, leengo mallakoa dala deritzat.

SARTRE'REN UKOAZ

(1964-XI-18)

Suezia'ko Akademiak eman dion Nobel-Saria ez onartuz, Sartre'ren izena berriz ere izan da munduan zehar aipatua.

Eta, bestetan bezela, ez hozki. Batzuk arras onetsi dute Sartre'ren ukoa: «hori da gizon bat», esan dute. Beste batzuk, aldiz, arras gaitzetsi dute: «horra hor Sartre faltsukerian eta demagogian berriz ere, 250.000 koroak ez ukanik ere, bere entzutea berretzen baitu, eta sosa ere ez baitzaio falta hain zuzen».

Zergatik? Zertan da kakoa?

Sartre'ren obran eta bizieran ba dira alde batzuk, itxuraz arrunt liferenteak. Hiru aipatuko nituzke nik.

Sartre'ren Literatura-lana, batetik: «Le Mur», «La Nausée», «Les Mains Sales», antzerkiak eta nobelak batez ere; Sartre'ren Filosofia-lana bestetik: «L'Être et le Néant» bereziki; eta Sartre'ren Politika-lana azkenik: ez partidu baten edo besteren agin-dupean egiña, Sartre ez baita partidu-gizon; baiña bai politikazko arazoetan bere agiriko jokabideena: Erresistentziaren denborakoa, Budapest'eko gertaeren ondoriozkoa, Arjelia'ko gerlazioa, eta abar. Hiru joera edo alde horietatik, zeiniek egin du Sartre —orain, eta lehen ere bai— batzuen ustez guztiz txalogarri, eta besteenez guztiz ere arbuiagarri eta higuigarri?

Literaturako bere obretan anitz likiskeria dago, sobera: ukazterik ez dago. Eta hori dala-ta, kaltegarri jo ohi dira bere izkriburik gehienak: Eliza Katolikuak, esate baterako, bere lan guztiak sartu ditu «Indize» dalakoan. Literaturaren beraren aldetik, beraz, ba du Sartre'k etsai franko eta oso aipu txarra.

Gazteriaren hondatzailetzat daukate batzuk. Nobel-Sariaren berria jakitean, Gabriel Marcel'ek, esate baterako, ez zuen bere luma gozatu: «Là est la raison pour laquelle je n'hésite pas à dire, pesant mes mots, que dénigreur invétéré, blasphémateur systématique, il aura répandu autour de lui les enseignements les

plus pernicieux, les conseils les plus toxiques qui aient jamais été prodigués à la jeunesse par un corrupteur patenté». Ezin diteke nehor bortizkiago mintza. Ez dugu ahaztuko ere Gide'ren esaera gogorra: «1920-ean 'dada'-mogimendua sortu zan; 1944-ean, aldiz, 'caca' dalakoa»... Eta, Gide halere, gauza jakaña, bere iritzi eta jokabideetan Moral hertsu baten esklabo hain zuzen ez izaki...

Ba da, beraz, zerbait horrelakorik. Eta Sartre'ren kontrako gorrotoaren parte bat azal dezake lohikeriez izkiriatzeko tema horrek.

Halere Sartre'k azaltzen dituenak, ez dira gaurko giro ustelaren sortzaille izan, giro ustel horren Literatura-iduria baizik. Europa'ko zinemakiak eta europar idazleen idazkiak (Moravia, Malaparte, Vaillant, Mann, eta abar) irakurri besterik ez dago: giroaren ustela ez du Sartre'k bere kaskotik atera eta ohituretan sarrarazi.

Ba da besterik. Zeren-eta Sartre'ren izkribuen kakoa, bere filosofian baitago: alegia, bere etsistentzialismo-mota berezian.

Sartre'k ez du Jainkoagan siñisten. Ez du Jainkoa aipatu ere egiten (eta huntan ez da biziki bitxia, ez pentsa).

Eta, bestetik, filosofiaren aldetik, etsistentzialismoaren ezagugarriak ditu: ikusi gabe behar du gizonak hautatu; gizonaren sentidua ezin dezake adimenduak ezertan argi; Ezerezak inguratzen gaitu alde guzietatik; heriotzarat ari gera; eta abar. Beltza da Sartre, ukatzaille da, Kierkegaard bezela, Unamuno, Heidegger, eta gaiñerako etsistentzialista guziak bezela.

Hutsean dardaratzen baldin bada gizona, Sartre'ren Literatura-norki edo pertsonajeak ez dira bere filosofiaren nahi-ta-nahiezko ondorea baizik. Sartre-ren etsistentzialismoa da, horrela, Sartre'ren kakoa. Eta aurkintza huntan zer harriturik ez dago.

Hots, Sartre'ren filosofia ez da bere asmazio zoro bat, ez. Filosofo kate luze baten mail bat baizik ez da Sartre. Eta ongi adierazten du horrek etsistentzialismoaren funtsa, problemari berari gagozkiola, gauza sakona dala; eta ez bizar kontu bat, edo espantuka ibiltzeko seta bat ere.

Gabriel Marcel katolikua etsistentzialista da alde askotatik. Eta berdin ere Pascal, Maine de Biran, Kafka, Berdiaeff, Nietzsche, Husserl, Agustin saildua, eta... Buda Sakyamuni bera!!! Buda'k eta Sartre'k filosofia antzekoak dituzte: «Entre certain

existentialisme et le bouddhisme existent de telles affinités, que l'attraction exercée par l'un explique le goût que l'on éprouve pour l'autre», zion orain dala urte batzuk Fr. Taymans jesuitak.

Bai, irakurle. Etsistentzialismo-motak oro, funtsean harturik, (ez beraz Sartre'ren erakoa bakarrik) gizonaren kezka nagusiaren ume dira; eta ezin ditezke huskeriatzat edo modañoztat har.

Sartre, alde huntatik, munta haundiko filosofo bat iruditzen zait; eta literaturako bere lana, filosofia horren erakusle eta argizaille dan aldetik hain zuzen, oso inportantea ere.

Baiña, horrez gaiñera ere, politikaren maillako bere jokabi-deek azal dezateke, ongienik nik uste, Sartre'ren kontrako gorroto amorratua: Sartre ezkertarra baita politikaz.

Ez komunista. Komunista izateko marxista izan behar da; eta marxistaz gain, leninista; eta leninistaz gain, stalinista, krutxefista, brexnefista, eta abar, aldikal. Bistan da, ordea, «L'Être et le Néant» eta «Le Capital» bi mundu dirala. Sartre ez da nehunik ere komunista.

Baiña sozialismoaren aldeko da, eta kapitalismoaren etsai: hau bai. Nobel-Sariari uko egitean, ez du bere ezkertar joera hori izkutatu: «Mes sympathies vont indéniablement au socialisme, et à ce qu'on appelle le bloc de l'Est». Bere iritzia hori da; eta iritziak libro dira. Bestetik, bere ideia horien arabera jokatzuz, «intelektual» izena merezi izan du berriz. Ezen ideien arabera jokatzeak merezi baitu txalo; eta are gehiago merezi, hogeitaz zazpi milloi liberaren galera dakarrenean. Ez dut ikusten, beraz, bere ukoan, ezer ere arbuigarririk. Ukoa ohore zaiola uste dut.

Sartre beti jokatu da aitzina edo progresista guzien alde, eta kolonialismoaren kontra. Bertrand Russell ere berdin. Ez dut hortan akatsik ikusten.

Horixe da anitzek barka ezin dizaiokeana. Ezkertar bere joera horrengatik, nun-nahiko eskuindarrek bihotzaren erditik gorroto dute: Franco'ren prentsak joan dan Urrillan frantsesaren kontra bota dituenak baiña haundiagorik botatzea, zail da.

Gisa da.

Sartre'ren kasoan, beraz, hau agertu da batez ere argi eta garbi: eskuindarren eta ezkertarren arteko muga gaur nondik pasatzen dan.

Eta hori jakitea beti izaten da ona.

LEVY STRAUSS'EK UNAMUNO'RENGANA

(1965-V)

«Ba dira gure artean, bere konbentuetako ikaskizunetan existentzialismoa azkenengo filosofi-bolada bezela ikasten duela ta, gaurko gizona larritasunez, angustia eta ezin-egonaren pean bizi dela uste dutenak. Baiñan egia oso besterik da. Gaurko gizonak ez du larritasunik sentitzen, ez du tragedia ezagutzen. Bearbada mundua mundu danetik ez da gizona paradisutik ain urbil sentitu. Ba dirudi Sisifo'k azkenengo aldiz aldapa gaindu duela, ez dela aurrerakoan eroriko».

(Mikel Lasa'k, 115 gn. Z. Argian)

Iritziaren pisua!

Etsistentzialismoa, hasierako hitz horietan ageri denez, ez litzake gure munduaren sillu edo ezagugarri... estalgarri eta nahaspide baizik! Egia ote?

Ez, nere ustez. Lasa adiskidearen izkribuak gogotik irakurri ohi ditut: luma gazteen artean, berea zait trebeenetako bat. Bere ideiarik gehienak ere, eskuarki onar nitzake.

Goiko puntu hortan, ordea, ezin natorke bat.

Gure mendea, nere ustez, barne-asalduz eta bihotz-larritasunez ittota dago. Nabarmen agertu da hau oraingo filosofian, literaturan eta artean. Heidegger, Kafka eta Picasso ez dira uste-kabeen bateratu, aria sakonik gabe: funtsezko zerbaiten esale jator eta egiazko izan diran neurrian dirudite alkar. Sustraietan daude alkar-harturik.

Egia esan —eta hau Lasa'k berak garbi lizaiguke ongienik bere iritzia xehero argituz— artikulua egilleak berak ez du zin-zin ezandakoa siñisten. Eta, hasierakoa legundu nahiz edo, hunela mintzo da aitzina: «Itxurarik gabeko euforia honetan guk ez dugu siñistu nai».

Bego hortan gaurkoz.

Zeren-ta ba dago «amerikar» irribarre zozoaren mitoa. Irribarre geldo eta tentela, ba dakigu zein. Dentifrikoen eta telebistaren irudietan agertu ohi da usu: kolorezko aldizkari batzuk ikusi, zalantza ar diteke. Irribarre hortara biltzen bide da zo-

riona, helburua, zerua, eta gaurko gizonaren kakoa bera: baso bana eskuan, ximenki.....

Dentifrikoaren eta Coca-Colaren giro xuri eta xeru hortan, etsistentzialismoa gerra ondoko «erikeria» ere, funsgabe eta bizartzu baten pare kontsidera diteke. Komunista likits bat litzake Sartre, Jaspers «crypto» bat, eta abar. Danak munstro-eli bat...

Nola konpreni, ordea, gure gizartean gero eta ero gehiago izatea? Estadistikak aztertzea besterik ez dago: gero eta burutik egindako gehiago, gero eta adimenduz eri ugariago. Ez da bau gizartearen oreka irribarretsu horren alde mintzo...

Gure mendeko jendea egarri da, barneko pakea behin ere baiño galduago du; eta hauxe adierazten digute batera bai artearen eta bai Zientziaren beraren joerek.

Barne-asaldu horren emagarria erlijioa baita, biek eman dezateke fenomenuaren neurria.

Munduarekiko etsipenak, norarik gabeko zorabioak oro, eta herio hortan hozitu ohi dan absolutuaren kezkek, ordea, axaleko itxurak zenbait aldiz besterik gogorazi arren, gure mendean eta gure gizartean larridura kosmikoak bizi-bizirik eta zindo baiño zindoago diruela erakusten dute.

Entzun dezagun Jung psikanalista, esate baterako: «Arimaren muiñaren azterketak, azalean pentsatu ere ezin zitekean gauza anitz dakar argitara. Hori dala-ta, ez da batere harritzekoa, indartsuenik eta berezkoenik izpirituaren erlijiozko ekiera kausitzea. Egungo gizonarengan ekiera hori baita nagusi, eta sexotasunarena edo gizarte-jokabidearena baiño aisa finkatuago». Zinemak eta literatura ikusiaz, ez genuke guk horrelakorik esango.

Positibismotik eta arrazoin-bide hotzetatik aldegin nahi bizi hori, beste mailla batzutan ere agertzen da. Arrazoiña omen da gidari gure mendeko gizartean; baiñan hau ez da egia. Galdegin dezagun zein liburu irakurtzen dan gehienik, edo zein astekari gehienik saltzen, edo-ta zenbat aldizkari argitaratzen dan astrologiaz eta «jakintza izkutuez». Txundituta geldituko giñake! Xehetasun bakar bat hemen aipatu nahirik, bijoa hau: Paris'en bakarrik, 1935-ean, 3.460 astrolojia-bulegoren berri zeukan Seine'ko Prefeturak... Gehiago ba zegokeala esan beharrik ez.

Beste zerbait behar du jendeak bihotz-bihotzez. Eta ahal due-la guztietara lehiatzen da.

Gaurko soziolojia eta pisokolojia urrundik bederen jarraitzen dituztenak, ez dira albiste horietaz mendrenik ere harrituko. Zientziak berak dionez gizona ez baita gure soziedadeetan zipitzik aldatu, eta jakintsu guziek onartua baita gaur gizonak bi pentsaera-hildo dituela betidanik: «arkaiko» deritzana, eta «positiboa».

Mende huntan Zientzian eta Filosofian berriera eta aldakuntza funtsezko batzuk gertatu dira: Einstein, Heisenberg, Freud, Husserl, Heidegger, Teilhard de Chardin.

Baiña beste jakintza-sail batean ere, orain arte gutxiago eza gutzen dan beste aldakuntza sakon eta oiñarrizko bat hasi da. Ez, nik uste, gorago aipatutako horiek ekarri dutena baiña apalago halere.

Larriz, Lévy-Bruhl'ek eman zion abiada pentsakera-bideen azterketa horri; eta Jung'ek, Eliade'k eta Lévy-Strauss'ek ekin diote gero.

Erreboluzio hori soziolojiaren eta psikolojiaren muga gertatzen ari da; eta gizonari buruz ekar ditzakean ondoreak ez dira oraindik guztiz garbiki agertu. Urratu berriak dira bideak; eta pentsatzaille horien liburuen salera errazak erakusten du ongi, jende ikasien interesa eskualde horietan dagoela egun!...

Zertan datza Lévy-Bruhl'en pentsaera-astindua? Huntantxe: gizonak bi eratara «pentsatzen» du.

Gizonak zientziaren arabera pentsa dezake, enpirismoari heretsiki lotua; baiña, betidanik ere (eta gaurtxe ere bai geure artean, kasu!) pentsakera arkaikoaren arabera pentsa dezake: enpirismo-mota guztietatik at, bere baitatik intuizioz gauzei erasten dien sentidu baten arabera, mitoren bidez, «partizipazioz».

Pentsakera arkaikoak (guziok: melanesiatarrek eta geurk europarrok dugunak, berriz diot) ez ditu subjetoa eta objektibo berezten: «dalakoan» «dalako» egiten du, adimendutik eta sendimendutik datozkion burutazioak parean ezartzen.

Pentsakera positiboak, aldiz, berezi egiten ditu. Eta berezte haxe da pentsakera positiboaren ezagugarri nagusia: sendimenaren nahikundeak hozki alde bat utzi, eta adimenak garbiki ulertarazten dionaz kanpo deus ere ez entzutea.

Pentsakera arkaikoak bihotzaren arabera aztertuz, kasik bihozkadaz jokatu, sentidu bat agerrarazten du munduan eta bi-

zian: mundua mundu dan ezkeroztik, azalpen guztizko baten ega-
rriak hilduratu du gizona; hortan egon da erlijioen eta mitologia
guzien kakoa: adimenduak atxeman ezin dezakean ulerbidea eman,
lojikatik landa emanik ere.

Pentsakera positiboak, aldiz, ez-entzuna egiten die bihotza-
ren dei guziei; eta, hotz eta latz, froga ditekianari baizik ez dio
begiratzen.

Pentsakera arkaikoa, bizi eta nortu egiten dan mistikaz eli-
katzen da, mistikari dagokiona da bere funtsezko izaera; pentsa-
kera positiboa, berriz, beti arrotz egoten dan ideiaz, eta ulertu
baizik egiten ez dan zientziaz. Zientzian ez dago hortzerik, ez
dago «partizipazio»rik, ez dago parte hartzerik. Ez dago misti-
kazko hartu-emanik. Mistikan ez dago silojismorik.

Lévy-Bruhl'ek herri atzeratueta xoilki aurkitu uste zuen pen-
tsakera arkaiko hori, hastapenetan batez ere: Australian, Tas-
manian eta Melanesian. Eta geure gizartean...

Iritzi hau oso larria zan. Zer esan nahi zuen biketa horrek?
Pentsakera arkaiko hori mundu aurreratueta itzaldu egin dala?
Bi giza-mota al daude, beraz? Bi pentsa-bide, ote? Bi gizadi, hor-
taz, eta ez bakar bat? Dana ote da, pentsakeraz, fase-kontua?
Mitoak, erlijioak, eta metafisika bera, arkaismo huts bat baizik
ez dira funtsean?

Ez dut artikulu labur huntan azalduko Lévy-Bruhl'en gambia-
mendu eta billakaera guzia. Aski izan bedi bere azken iritzia:
«gizonaren izpirituaren lojika-moldea edo estruktura, bat eta ber-
diña da leku guzietan eta ezagutzen ditugun gizarte guzietan».

Nahiz-eta pentsakera arkaikoa eta pentsakera positiboa oso
diferenteak izan, Lévy-Bruhl'ek ez zuen azkenean onartu sustra-
iezko bitasunik batere; gero eta garbikiago errepararazteko: bi
ezagupide, bi pentsakera, bi pentsa-bide dituela gizonak, egia hu-
tsa da; eta positiboa berriki baizik ez dala hasi gizadian ideien
iturri eta galbaitzat ere, egia haundia. Baiña pentsakera arkai-
koa, mitoak eta erlijioak sortu dituen (eta hein batean Artea eli-
katzen duena ere) ez da ez itzaldu eta ez iraungitzen hasi ere
gure gizarte modernoetan. Hain zuzen ere, pentsakera arkaiko
edo mito-egille horixe dugu gaur gizonaren pentsakeraren kun-
tzarik irmoena.

* * *

Etnologoen artean Lévy-Strauss dugu dudarik gabe gaur aipatuena eta sonatuena. Estrukturalismoaren azterbideak eta aurkikundeak gero eta harrigarriago dira. Etnolojia —eta gizonari buruzko filosofia, sahetsetik— dardaritzen hasia da.

Zer dio Lévy-Strauss'ek pentsakera arkaiko hortaz? Bere iritzia jakingarria da.

Lévy-Bruhl'engandik beste muturreraiño doala esan diteke... Baiña, berbera goragotik esateko!

Pentsakera arkaiko bat ba dago, dio; baiña gizon arkaikorik ez. «Arkaismoaren lillura» salatzen du Lévy-Bruhl'engan. Alegia: zibilizazioan eta zibilizaziotik at, herri atzeratueta eta herri arzeratueta, gizona beti da bat, beti berbera; eta pentsakera arkaikoa...

Are gehiago. Itxura diferentetan, eta jazkera desberdinetan, sozioloji-giro bestelakotan, gizonak beti eman die bere barne-katramillei soluzio-multzo bakar bat, aldaketa gutxirekin.

Benetan diferenterik eta harrigarririk, gizonak ez du gauza haundirik asmatu. Azalpenen barne-moldea edo estruktura azertu ezkeru (alkarrekin azalpen guziak hartuz, eta ez banaka edo bakarka) funtsezko azalpen-estruktura bakan batzuk daudela kausitzen da. Mitolojian estruktura eredu batzuk atxeman ditezke; ez milla. Ez problemak bakarrik, beraz. Soluzioak ere gutxi dira. Pentsakera arkaikoak beti ikusi uste izan du gauza bera mundua azaltzekotan.

Zibilizazio guzietan (zibilizazio «hotzetan» eta zibilizazio «be-roetan», gizonaren ekintzaren balioan siñisten ez duten eta siñisten duten zibilizazioetan, beraz) mito-multzo eta siñiste-sistema berberak erreparatzen dira. Estruktura bera behin eta berriz ematen da, anitz koloretan diximulaturik.

Barka bekit Jung'en hitz bat erabiltzea Lévy-Strauss'en teoria agerrarazi nahi huntan: gizadiak, gizonak, beren inkonzientean izkutaturik daramaten «arketipo» bat jantziz eratu dituzte betidanik munduaren funtsezko teoriak.

* * *

Zein da, horiek horrela, gizonaren jokabidea, edo ihardukiera hobeki, gure arrazionalismoaren aurrean?

Arrazionalismoak, jakiña da, ez du enpirismotik at datorre-

nik ezer aintzakotzat hartu nahi. Ikus ezin ditekeana, begiez edo fotografia-tresnez ikus ezin ditekeana, nolapait bederen zentzuen bidez adi ezin ditekeana, izan ez da. Ez dago arimarik, beraz, ez dago Jainkoa, ez dago metafisikarik. XIXgn. mendea positibista izan zan; eta XXgn. ere ez oso bestelako.

Arrazionalismoak ukatu egiten du arras pentsakera arkaikoaren jokabidea; plano bera ukatzen du. Erljioak eta mitoak maila berean jartzen ditu, berdin jotzen otoi-tza eta majia, metafisika eta zentauroen siñistea, Ozeania'ko «mâna» eta kristauen grazia: danak zaku berean ezartzen, danak aditu-eziñak, ezin neur-tuzkoak, eta ezin frogatzekoak zaizkiolako. Mito dira beraz; ipui, alegia huts eta alfer. Hitz batez: arrazionalismoak pentsakera arkaikoa bera ukatzen du, «gizonarengan dagoen gauzarik aldakaitzena» (Lévy-Bruhl).

Hori obratu dan momentutik beretik, gizonaren pentsakera arkaikoa, betiereko habe nagusi eta jakinbide izan bada ere, ukatua eta baztertua izan da. Eta, ezin bestean, arrazionalismo horren kontra, bihotzaren eta erraien muiñetatik datorren ugolde baten antzo, etsistentzialismoa altxatu da gizon osoaren laguntzan, mehatxuz eta deihadarrez.

Etsistentzialismoa ez da kasketa bat. Etsistentzialismoa ez da, hain zuzen, sekulan suntsituko. Pentsakera positiboaren ukoa baita etsistentzialismoa, eta pentsakera arkaikoaren abotsa. Comte eta Kierkegaard, Russell eta Unamuno, alkarren ukatzaille dira. Eta horrelako antipoda-bikoteak, arrazionalismoa azkartu ala, behin eta berriz sortuko dira. Gizonaren bi pentsakeren haurride baitira.

* * *

Pentsakera positiboaren hedadurak bi irteera utzi dizkigu.

Batzuen ustez, munduaren funtsezko sentidua ez dugu guk gaurkoz ezagutzen. Baiña pentsakera arkaikoaren jakinbidea —mito-en bidez munduko kontradizioak ezeztaraztea— sustraiez dute arbuiagarri. Iguriki egin behar dugu, diote. Gaur ez dugu konprenitzen. Zientziak aurreratu-ala ulertuko dugu. Egon eta itxaron: horra leloa. Ez dute halakoek problema ukatzen, mitozko soluzioa baizik. Marxisten teoriko dan Roger Garaudy'k eta marxista batere ez dan Bertrand Russell'ek, esate baterako, ia hitz berberak darabilzkikete puntu hau adierazteko.

Baiñan etnologoei, psikologoei eta soziologoei kasu egin ez-

kero, «oraingozko» itsualdi hori ezin diteke egiazko soluzio bat izan; gizonaren pentsakerarik sakonena ukatzen duelako.

Beste batzuen ustez, ordea, munduak ez du sentidurik; ez guk diogu kausitzen, eta ez bestek ere etorkizunean. Sentidurik ez baitu. Gu gizonok deserriturik gaude galaxietako errauts-ale galdu batetan. Izartegi osoa lokamuts hutsa da. Ezerk ez du sentidurik... Eta oihuka ditugu hortantsu Kierkegaard, Heidegger, Sartre eta Kafka.

Bigarren ikusera hunek uzten dituen larridurak, ezin-egonak eta barne-egarriak, lojikari uko, eta pentsakera arkaikoaren intuizioetara eta jakintza-bideetara eramaten dute. Hasiak dira eramaten!

Hortan gera nik uste, Lasa adiskidea.

Parabisutik hurbil? Ez dut uste.

Bere buruaren kontra ari da gizona. Eta, horregatik, bihotzean hiltzaturik darama, behin ere baiño mingarriago, gizatar kez karen ezpata zorrotza.

UNAMUNO ALA JAMMES?

(1966)

Aspaldian, orain dala hamabost bat urte, irakurri nuen Jammes'en «Los Robinsones Vascos» liburua. Egia esango ahal dut? Bai. Esan egingo dizuet: liburua hasi, eta... ez nuen bukatu. Horra egia: ezin! Bi gazte xeru haiek... hondartza xeru hartara etorriak... euskal izen «garbiak» eta gaiñerakoa frantseseraz... dana hain xerukiro gertatzen... hain xerukiro ibilki... Ene! Nolako garbitaxuna euskaldunona! Nolako xaxi-olerkitasuna gure hondartzetan! Miarritze'ko «Syndicat d'Initiatives» dalakoak azaltzen duen «Chambre d'Amour'aren istorioa eta Jammes'en hori nola ez aldera?

Mistral'en «Mireio» (españolaz eta euskeraz) orduan irakurri nuen ere, edo orduantsu; baiña plegu berekoa izanik ere, ez ninduen hainbestetaraño... gogaitu.

Berdintsu ere Pierre Loti bere kide eta adiskidearen izkribuekin: bizpahiru liburu irakurri ditut osoki, «Ramuntcho», esa-

te baterako, nekez, oso nekez, amorro bizian batzutan, baiña... gainditu egin nuen.

Jammes ez. Hunekin ezintasun guztizkoa. Francis Jammes gogaikarri izan zitzaidan, faltsu, arras pikuan ari, guztiz Euskal Herri'tik urrun (Loti eta Peyré, Trueba eta Zunzunegi, sail ederra dugu!).

Hazparne'ko bere jauregia, eta herrian oraindik ere gelditu dan jauntasun-aztarna, neuk neure begiez ezaguturik, hobeki ulertu dut: Jammes Hazparne'ko jauntxoa zan. Urbil bizi izanik ere, urrun bizi. Euskal Herri'ko geografia maite izanik ere, Euskal Herri'ko jendea nagusiro eta jauntxokiro mespretxatuz. Jammes'entzat gu turismoko bitxikeria giñan.

Nor zan kontrako nere joera sakon horien eragille eta errudun nagusia? Bilbotar famatu bat zalantzarik gabe: Ronda-kalean sortutako gure Unamuno.

Ikasle nintzan garai hartan Bilbo'n, eta, bata bestearen ondoan, Unamuno'ren lanak irakurri ohi nituen. Horrela itsatsi ziran nigan bizkaitar «olerkari filosofo»aren ideiak. Eta horrengatik, gizonaren barne-sukarra eta gogo-zorabioa egiazkoegiak zitzazkidan, gure herriaren zoria txantxetan, kontrabando-ohitura baten gisa, edo folklore-estakurutan edo sasi-olerkigintzan lardaskatua eta xahutua onartzeko.

Nork uka dezake, ordea, xerukeriarik gabe, bigunkeria guzietatik urruti baiño urrutiago, Unamuno olerkari eta idazle aparta danik?

Fagoaga'k haunditzat hartzen ditu biak, batari mesede eta besterai laido egiñez; Zumalakarregi eta Eraso parean jarriaz gertatuko litzakean bezela.

Unamuno sakona dalako, gizatarra dalako, eta egiazko olerkitasuna senditzen eta sendiarazten dakielako, idazle eta olerkari haundia da. Baiña bizkaitarra, bestelakoa izateaz gain ere, biar-notarra baiño milla aldiz gorago da nere ustez. Zeren-eta Olerkia Egiak egiten baitu; eta ez belaskeriak edo egiarik ezak. Fagoaga'k ez du hau esaten; baiñan esan egin behar zuen, nere ustez. Idazleak eskubiderik ahal du herritik eta gizonarengandik aldegitoko, eta ametsetan gerizatzeko?

Zer da Olerkia? Zer da idazle bat? Zein da Literaturaren betekizuna? Kalkoa hortan da.

Korapillo hori ezin diteke hitz gutxitan aska. Idazle batek bere burua sartu behar ahal du munduan, ala pikuan bizi diteke «Olerkia» eta «Literatura» egiteko?

Erantzuna garbia da nere ustez: Unamuno, ez Jammes.

Olerkia eta arinkeria, Literatura eta xerukeria, idazkintza eta ameskeria, ez dira bat, ez datxezko alkarrri, ez dira soin bereko haragi eta hezur.

Jammes, beraz, ongiegi hartu du Fagoaga'k bere artikuluan, bien artean irakurleak prestuki bata ala bestea berdin aukera ahal balezake bezela. Kaskarinkeria eta burgeskeria ezin ditezke olerki-iturritzat eta filosofiatzat har (hedonismoa eta olerkia nahi gabe bederen).

Jammes idazlanetan ez dago gizatar egarririk, ez dago surik, ez dago arimarik; nik behintzat ez ditu aisa aurkitu. Bere zuhaitzek berek ez dute lurrean sustrairik. Bere euskaldunak ez dira turistentzako jauzkari mordo bat baizik: koloreztatuago eta hobe! Bere Euskal Herriak, bere Biarno'k, bere Ortheze'k berak, ez dute zaiñik. Bere sorkurek oro ez dute gizatar giharririk. Mundutik at bizi dan haundiki baten amets zonzook baiño ez dira; edo ez zaizkit neri.

Unamuno'ren izkribuenak ez. Unamuno'ren sorkariak eta giza-kezkak, geureak dira; bere Euskal Herria, gaztetan gerra ondoan ezagutu zuena batez ere, geuk ezagutu duguna da, zoritarrez, bere bidearekiko itsutua.

Unamuno gure etsai amorratua danean ere (eta gehiegitan dugu etsai, ondikotz!), geurea da, Baroja bezela; eta bere odolak daramazkien berotasuna eta ukoa, gure herri gizajoak eta gizadi osoak pairamendu eta sofrikario ikaragarritan zehar mami-tu eta bildu dituen egia latzak baizik ez dira.

Hau dio Fagoaga'k: «el diálogo... entre el poeta bucólico y el pensador existencialista no fue posible». Egia. Baiñan ez zait xuxena edo bidezkoa iruditzen bi idazleak parean jartzea, berriz diot; ez baitira nehundik ere mailla berekoak, Jammes ez baita, ez jokabidez eta ez gizatasunez, Unamuno'ren arikoa.

Unamuno'k ez du gizonaren tragedia bere kaskotik, edo eroaldi batean, «asmatu». «El Cristo de Velázquez» ez da beroaldi bat... Jammes'en mundua, aldiz, axalekoa da, gezurrezkoa da eskierki Euskal Herri'ko ikuskera dan aldetik. Alde huntatik,

atzerritar aspertu eta aspergarri baten sasi-Euskal Herria bat baizik ez da.

Unamuno gure etsaia da. Jammes gure «empresario»a.

Kasu, halere. Mutur batetik bestera igarotzea errexka baita.

Etsistentzialisten kontra, «ezker» (?) aldetik batzutan egiten diran maiseoak ez dira oso bidezkoak izaten. Ilya Ehrenbourg'en ustez, esate baterako (P. C.-aren zerbitzari leial beti), etsistentzialisten larrimiña (eta «El Sentimiento Trágico de la Vida»ren hestuasunak, beraz) ez dira burgeskeriaren hondakiñak baizik. Ehrenbourg'ek dionez, «sozialismo»an ez da horrelakorik sentitzen: ustelkeria horiek amaitu egin dira...

Eskuñaren muturrean, aldiz, Robbes Grillet (Robbes Grillet eskuñean, bai, berak oso aurrerakoitzat bere burua hartu arren). Literatura eta Politika guztiz berezi behar dira. Hau egiñaz, noski, burgeskeria guzien jopu billakatzen da. Hitzek ez badute fitzik esan behar, idazleak ez badu ezer esan behar... ixil bedi!

Zaillago da, esate baterako, Sartre'ren jokabideari eustea. Fe-dea elizkeriarik gabe, ekintza itsukeriarik gabe. Zaillago eta xuxenago hargatixek. Nola joka? Etsai askoren kontra: «toutes les Eglises nous repoussent et nous excommunient». Unamuno'k ere hori zion: «no me clasificuéis».

Idazlearen bidea hori da: zernahi gostarik ere, Egia zerbitzatzea. Eta Egia hortan, gizonaren norarik-ezari eta larrimiñari parte haundi bat dagokio. Funtsean ez dira Sartre eta Unamuno alkargandik hain urrun.

Literatura eta Politika, Egia eta Ekintza: ez dira gauza bera; ez dira aisa ezkontzen. Hau ongi dakite egiazko intelektualek. Ezin ezkontaraztetik, milla katramilla datoz. Beste hainbeste Egia ezin obratzetik eta ezin aurkitzetik beretik ere. Zer predika? Zer egin?

Ipuiei eta sasi-olerkitasunei uko egiteko bertute izar behar da.

Eta hortan, iruditzen zait, Unamuno'ren aurrean kendu behar dugu txapela.

BERTRAND RUSSELL HIL DA

(1970-II-12)

Hirurogei urte zaharrago ni baino, sekulan ez nik buruz-buru ikusia (neretzako zoritxarrez!); eta, halere, gure ondoko adiskide min bat galdu dugula iruditzen zait. Ez gure ondoko lagun arrunt bat, gure gaineko lankide eta gidari argitsu bat baizik.

B. Russell'en biziera miresgarria aztertzen saiatu naiz aspaldidanik. Bere autobiografian berak argiro erakasten duen bezela, hiru gauzak bultzatu zuten munduan: Eros'ekin lotua dan maitasunak, Egiaren egarriak, eta zapaldutako gizonetikiko kupidak. B. Russell gizon aparta izanik, eta nik apalki segi ahal izan dudaren neurrian, hiruetan miretsi dut: bai amodioaren olerkaria, bai zientzia-gizona eta filosofoa, eta bai erreboluziolaria. Hirurak batera gizon berarengan aurkitu: ez da maiz horrelakorik gertatzen.

Goitasun hortako gizon baten emana artikulu batera biltzen ezina da. B. Russell ekintzan iruditu eta jakintzan irakurri egin behar da; eta hortara bultzatzen saiatuko naiz ni.

Russell matematikalaria zan batetik. Bere «Principles of mathematics» eta geroko «Principia Mathematica» (hiru liburutan), egiazko aintzindariak izan omen dira gaurko Logika eta Matematika berrietan. Fisikari buruzko bere lanak oso inportanteak izan dira, era berean: bai materiari buruzkoak, eta baita errelatibidadeari buruzko liburu labur baina trinkoa ere: Einstein ia inork konprenitzen ez zuen garaian argi eta errazki azaldua.

Oso gaztetandik jainkogabe, Russell sinistuta zegoen erlijioak kalte ikaragarriak ekarri dizkiola gizadiari. Bere «Zorionaren bidea»n oso hotzean, baina oso gogorki ere bai, mintzo zaigu erlijioaz; ez berez filosofi-problema zaiolako, kondairan izan dituen alderdi txarreatatik baizik. Jainkoaren hipotesia ez zaio «batere» beharrezkoa» iruditzen; eta Jainkoa «sobera» dagoela uste du. Munduan, «kosmo atsekabe hontan», zentzugabe iruditzen zaio Jainko on, amultsu eta zuzen bat sartu-nahia. Zentzugabe eta kaltegarri.

Ohitura-arazoetan Russell guziz zegoen gure soziedadearen Moralaren kontra. Sexo-kontuetan bereziki, ezkontza hautsi-ezinararen etsai porrokatua zan (eginetara paseaz lau aldiz ezkondu zan, 80 urteetan azkenekoz!). Bere maitasunez argitara dituen

gutunak nik ezagutu ditudan ederrenen artean jarriko nituzke. 1950-ean, jakina danez, Literaturako Nobel-Saria jaso zuen.

Erreboluziolaria *zen ezkerero*, sozialista ere zan arras eta 'lord' izan arren, kapitalismoaren kontrakoa izan zan osoki. Wilson'en politikaz nazkatu arte (Wilson'engatik utzi zuen Labour-Party), bere erresumako sozialistekin jokatu zuen betidanik. Marx'en filosofia ez zuen halere inoiz ontzat eman: marxismoan teologia berri bat antzeman zuen hasieratik. Eta, horrengatik, anarkismotik bertago egon zan marxismo-leninismotik baino. Ez zuen honek, halere, eskubi aldera eraman: 1963-an, esate baterako, Sartre'ren laguntzarekin, Viet-Nam'en «Tribunal Russell» famatua sortu zuen, amerikatarren genozidioa salatzeke eta agerrarazteke. Baina, era berean —eta Sartre'k bezela berriz ere— 1968-an Txekoslovakia'ko okupazioa salatu zuen. Régis Debray'ren alde jokatu zuen, bai; baina Soljenitsine'ren alde ere bai. Russell ez zan manikeotarra, ezta teokrazia baten morroin ere.

Oso gogoz gomendatzen diot irakurleri 1920-ean B. Russell'ek idatzi zuen politika-liburu sonatua: «Théorie et pratique du bolchévisme.» Lenin, Trotsky, eta gainerakoak ezagutu ondoren, zail da sinisten orduantxe Russell'ek dana hain garbi ikusi zuela, eta etorkizuna hain zehatz igartzea. URSS'eko dogmakeriaren arriskua, askatasunik eza, burokrazia berriaren nagusikeria: dana esana dago liburuan Stalin ezaguna ere ez zalarik (hontan argiago izan zan Bakunin, egia esateko, akats berberak orain dala ehun urte salatu baitzituen...). Oso inportantea iruditzen zait, batez ere, burokrazia horren kontra burrukatzeke B. Russell'ek orrialde luze eta mamitsutan, proposatzen zuen bide bakarra: autjestioa. Nekez esan diteke besterik 1970-ean!

Benetan galdu dugu gizon haundi bat, genituen haundienetako bat zalantzarik gabe. Bere obra eskerga utzi digu argi-iturri; eta bere jokabidea ere bai, Russell ez baitzan behin ere ekintzarakoan atzean gelditu: dozenaka aldiz bisitatu zituen Ingalterra'ko gartzelak, orain dala urte gutxi azkeneko aldiz!

Egia du Lacroix filosofoak: «bi eragile izan ditu Russell'ek: matematika-logikarena, eta ASKATASUNAREN ETA ZUZENTASUNAREN GURTZA».

Agian frutu ugariak emango Russell'ek Euskal Herrian!

MAURIAC

(1970-IX-1)

Mauriac hil da. Eta neure barne muinetaraino, beste asko bezala, hotzikara batek iharrausi nau.

Mauriac albistaria istimatu dut, egia da: urte askotan barrenara, «L'Express» eta «Figaro-Littéraire»n, oso gogoz irakurri ditut haren «Bloc Notes» zorrotzak. Behin eta berriz topatu dut Mauriac katolikoa aurrerazaleen eta ezkertarren bidea hartzen; eta hau pozgarri izan zait. 1930-etik 1965-arte gutxi gora behera, gaurkotasunari buruz, deskoloniatzeari buruz, politika-ekin-tzari buruz, Mauriac-ek hartutako bideak beren buruz mintzo dira idazlearen alde. Ez dezagun ahantz, bestalde, ez Mauriac-en jatorrizko giroa ez Elizarena. Euskaldunok bereziki ez ditugu nolana ahaztuko ordu larritan Mauriac gure alde agertu zela; eta hau eginez barne-ausardia handia izan zuela.

Egia aitortzeko, ordea, ez da Mauriac politikoaren heriotzak bortizkienik dardaratu gaituena. Haren nobela ederretan bizi den Mauriac olerkariak hunkitu bait gaitu sakonkienik.

Bai, jaunak. François Mauriac olerkaria da Mauriac-etan haundiena. Ez teknikeriatan eroritako idazle bat, ez azken snobismoaren bila abiatutako sasi-poeta bat, ez zozoak zurtu nahirik bitxikeriatan barrenara joandako berrikoi bat. Ez. Egiazko olerkariak ez da istorio horien beharrik. Mauriac olerkaria nobeletan da olerkari: liburuetan zehar, han eta hemen, behin eta berriz, eta espanturik gabe, olerkigintzan ari dela esan ere gabe, inork ez bezala sendi-arazi dizkigu pertsonarekiko kupida eta zeru-lurra-erekiko lilura. Nik bederen Mauriac-en liburuak bukatzean, behin eta berriz, azaldu ezinezko malenkonioa batek harturik egin izan dut. Eta nik bezala, nik uste, beste anitzek.

Dohain hau izan da, dudarik gabe, Nobel-Saria-ren kakoa (1952).

Nik ez nituen orain dela gutxi arte ezagutzen Gironde-ko landa bakartiak. Ez zaizkit arrotz gertatu, halere; eta Mauriac-en orrialde zoragarrietan somatu bezala aurkitu ditut hemen: goizetan behe-laño urdinen azpian isilik, eguzkiaren lehenengo errai-
nuetan nekez iratzartzen ari... Eta Mauriac-ez oroitu naiz.

Mauriac-en heriotzaren berri ikastean, argi-printzak bezala iragan dute ene barnea nobelen oroitzapenek: Genitrix, L'Agneau,

Destins, Les Chemins de la Mer, Les Anges Noirs, Un adolescent d'autrefois, Ce qui était perdu, Plongées, La Fin de la Nuit; eta, batez Thérèse Desqueyroux eta Noeud de Vipères ahaztuzinak... Liburu bakoitzean, beti ere kutsu berberaz baina beti ere liferenteki, zorionsu eta olerkibera batera izan nintzela ohartu dut. Ohore eta helburu haundiagorik bila ote dezake idazlek?

Jacques Madaule-k oso ederki zion orain dela urtebetetsu: «Egun batez, ezerk ezin horretatik bazterturik, guziok haurtzaroko lauso argietan sendi genituen zauskada haiek, ilun eta nabasi, azalduko zituen François Mauriac-ek. Ez dut Bazadais delakoa ezagutzen ((Bazas herriaren inguruko eskualdeari deritza 'Bazadais')); eguzki betean zapalduarik, ez dut inoiz hatsartu oihan zabalaren usaina. Baina Mauriac-i esker, bideskarik izkutuena berak, etxeko zaizkit... Eta —oraingo artikulu hau egitekotan bezala— berriz Mauriac irakurtzen dudalarik, neure barne-muintan beretan hunkitua naizela nabaitzen dut; gizon guziok bat egiten gaituen parte barne horretan hunkitua, hain zuzen».

Egia hutsa. Berdin nioke nik ere.

Zerk urrun dezake Mauriac haundia, beraz, gaurko mundutik? Zerk urrundu du dagoeneko, halere, gazteria berritik? Ez da zaila erantzuten.

Mauriac-en kristau fedea aurrenik. Gaurko gazte askori zentzugabe zaizkio bekatuaren kezka eta Jainkoaren egarria. Hots, askotan, hauetxek dira Mauriac-en norkien azken maratila.

Mauriac-en gizarte-giroa bigarrenik. Bordale inguruko «château» horiek (mahasti bakoitzari «château» bat dagokio; «bordeaux» ardo-mota bat, beraz) eta bertako gora-beherak ez dira gureak. Uza biltzeko etorri diren kanpotar langileak, erdi-base-ritar erdi-aitonseme horien arteko herrak, bekaizkeriak eta dirugoseak, eta abar, arrotz dira gure bizimoduan, urrun daude gure gureak, ez zaizkigu axola.

Mauriac-en «ikusle»-jokabidea azkenik gaizki ikusia da. Hau xe da, beharbada, kritikariek gogorrena eta aspaldikoena. 1935-er geroztik, Gide-k moldatutako Idazle Erreboluziozaleen Biltzarretik; eta geroxeago Sartre gazteak 1939-an aurrez-aurre Mauriac-en kontra egin zuen oldarralditik, Bordale-ko idazle famatua idazle «burges»tzat salatzen da. Alegia: oro har, ez duela zalantzan jarri, are gutxiago osoki kritikatu, gure soziedade. Hori egin beharrean, psikologikierian eta olerkikierian erori dela; Artea eta

bizia, idazkintza eta erreboluzioa, bi gauza desberdin balira bezala. Horrela jokatzuz, «divertimento» gisa hartu du Mauriac-ek literatura, eta ez burruka-tresnatzat. Hots, horrela jokatzea komeni zaio burgesiari. Mauriac, beraz, burgesiaren morroin gertatu da.

Bestaldetik ere, Mauriac-ek bere norkiak «barnetik» aztertuz, Jainkoaren jokoa egin du. Ez hau bakarrik: kristau Morala onhartuz, indartsuen jokoa egin du berriz ere.

Honetan guzian egiazko den zerbait aitortu beharra dago. Baina egia osoa ez dela ere esan daiteke, ene ustez. Batzuen iritziz (eta egun hauetan maiz entzun dugu) Mauriac nobelarien ekarria bezin inportantea izan da Mauriac albistariaren lana; eta lan hau, azkeneko urteetako ultra-gaullismoa kenduz gero (Mauriac 85 urteetan hil da), helburu aurrerazaleen alde egin duela esan behar da.

Mauriac ez zen sozialista. Hau ez zuen berak ukatzen. Eta 1969-an P. Dumazet-i aitortu zionez: «Marx nor den jakin uste dut; baina ez dut inoiz irakurri». Joera baten seinale, dudarik gabe; eta intelektual aurrerazale batengan, hutsune eta hoben larri.

Horrengatik esan dut haseran, eta bukatu aurretik berriz esango, hitz-lauzko olerkaria dugula Mauriac-etan gorena.

Noiz izango dugu euskaldunok «Noeud de Vipères» edo «Genitrix» euskeraz irakurtzeko aukera?

Hauxe litzake, ene ustez, euskaldunok Mauriac-ekiko ditugun zorrak kitatzeko biderik txalagarriena.

LEVI STRAUSS GAILEN

(1973-VI-5)

Zail da munduan iragarle on izaten. Eta Levi Strauss-en eta estrukturalismo guztiaren hileta jotzeko beharra garaitu ez zutenak, ez dira iragarle hobe gertatu: «1968ko Maiatzak —esan zuten delako hiletari presatuok— betirako desegin du estrukturalismoa. Modaren fruitu zena, gainerako modak bezala berehala suntsituko da orain».

Althusser-en ahuleziak eta heterodotsiak berehala salatu zi-

tuzten ortodotsoek; Chomsky-ren esanak berehala presentatu zituzten batzuek azken hitz modura; eta batzuen iritziz, Levi Strauss denon branka edo denez, gauza bera: «kitto duk» entzuten zen bazterretan orain dela bizpahiru urte.

Ez nintzen ni orduan, eta are gutxiago gaur, batere iritzi horretakoa. Gizonaren ezaguerari buruz, egiaren partetzat daukat estrukturalismoa. Baina, jakina, gai hau kaseta-artikulu labur batez baino sakonkiago aztertu behar litzake; eta agian egingo dut (berriro ere!) halako batez liburu berri edo aldizkariren batetan.

On izango da, halere, gaur hemen zerbait bederen gogoraztea. Ilara nabarmenean, hiru koroa hartu berriak ditu etnologiarari famatuak udaberri honetan (nahiz hirugarrena, itxuraz, arantzazko koroa badirudi ere...)

Alde batetik «Erasmus Sari» garrantzitsua jaso du Holandan (pitin bat Nobel-Sariaren kidea). Bestetik, ia harekin batera, Parisko «Académie Française» ospaturako hautatua izan da. Eta, hirugarrenik, (eta ez arrakastarik axalenekoa, beharbada) «Esprit» hilabetekari ezagunak berriro ere, eta hiru edo laugarren aldiz gutxienez azkeneko hamar urteotan, bereziki aztertu du, baita gordinki eraso ere, Levi Straussen filosofi-ekarpena (ikus «Esprit», 1973-III, Domenach).

64 urtetan, hortaz, ikerturik, arakaturik, eta alde eta aurka solastaturik ikusten ditu «Tristes Tropiques»en idazle jakintsuak bere burua eta bere izkribu eskergak.

Zergatik? Zertan datza bada Levi Straussen ekarpenaren muina? Zein da haren ideia nagusia?

Haren pentsamolde zabalari gagozkiolarik, hiru argi funtsezko somatu uste ditut nik Levi Straussengan, eta hirurak gaurko euskal modako joeretatik arras urrun aurkitzen.

* * *

Levi Strauss etnologilaria da aurrenik; edo, nahiago baldin baduzu, gizarteen, etnien eta herrien ezagutzan eta gonbaraketan bereziki zaildua eta hezia. Herri arkaikoen erlijioen kataderaz arduratu da Parisen urtetan barrena.

Etnologi-ikerpideetan, hitz batez, oso handia da Levi Strauss, garai honetako handienetakoa segurki. Gaur arte, hain zuzen, etnologiaririk bat ere ez zen Frantses Akademiaren mailaraino

iritzi. Kasu honetan, aldiz, etnologoa bakarrik ez baina idazlea eta gizarte-filosofoa saritu da. Zer dio, beraz, jakintsuak, gai honetaz? Zer deritzo gizarteari?

«Erasmus»ren irabazlea pluralista da osoki eta denean; hau da, ez da monista, ez du GILTZA BAKAR BAT ikusten denen funtsean. Ez du inolaz ere sinesten, esate baterako, gizadi guztia ibilbide edo bilakabide berberetik doanik; eta gizarte-plegu honi edo hari nahi-ta-ez segidan «hurrengo»rik datxekonik. Ez du inolaz ere sinesten gure zibilizazioa berez besteak baino «aurrera-go» dagoenik, eta hortaz «atzeratuak» gero honetatik pasa beharko dutenik. Ez du inolaz sinesten, ideien mailan, ideia batzuk besteak baino «aurrera-go» datozenik, eta hortaz, piskanaka, «fase» horretara denak geroenean helduko direnik.

Errelatibista da osotara, eta arrazakeria guztien etsai («Arraza eta Kondaira» liburuskara edo Brasilgo genozidioen kontrako agiri ausartak irakurri besterik ez da behar). Hizkuntzak desberdinak diren moduan (eta ez hau beste hori baino «aurrera-tuago», eta abar) iruditzen zaizkio zibilizazioak eta kulturak desberdin eta pareko.

Kondairaren «aurrerapenak» oso oso errelatiboak eta zalan-tzakokoa iruditzen zaizkio; eta Kondairaren «sentidu» famatu hori, XX. mendeko mitologia huts.

Ez hori bakarrik: kulturen eta gizarteen arteko desberdintasunen ezabaerak edo galerak gizadi-dinamikaren beraren suntsiera ekarriko lukeela iruditzen zaio; eta eten gabe mintzo da berdinkeria guztien kontra: herrien bestetasuna behar du gizadiak, kulturen aniztasuna eta desberdintasuna atxiki behar dira: «Il faut revenir à la complexité et à la diversité».

Hortik zer entzuten da, ordea?: «Saludamos toda asimilación étnica y cultural no forzada como un paso al frente positivo en la marcha hacia una sociedad única y planetaria»...

* * *

Levi Straussen jakintz-adar berezia (azken hogeitun urteotan batez ere) MITOLOGIA izan da. Mitologiaren azterketari jalki zaio gogotik, eta hemengo eta hango, gaurko eta atzoko, mitoak ikertu ditu. Zer aurkitu du funtsean?

Ez batere gure arteko sasi-jakintsuren batek (gaur!) egiten duen politikeria errazik, baina mitoan pentsakera eta antolakera-

moldearen funtsaren batasuna. Maila honetan, bai: giza-izpiritua-
ren batasuna atxeman du akademiko berriak.

Ez beraz mitoen mamiaren mailan, ez Kondairaren balioaren mailan, ez klase-aitzekien mailan bertan ere; baina mitoen OPOSIZIO-EGITURAN, mitoen ELKAR-OSAKETAN, mitoen giza-izpiritua-
ren ERANTZUN-BEHAR sakonen mailan. Mitoek ARGITU ETA AZALDU egin nahi dute mundua; eta argibide eta azal-
pide hori ALDAKAITZAK DIRA FUNTSEAN, nahiz gero nahi bezala erabiliak izan. Horretan bai —esan digu— badago mitolo-
gia guztien artean, eta denboran barrena, FUNTSEZKO BATA-
SUN BAT. Mitoen batasun honek, beraz, ez du oinarria politi-
kazo edo ekonomiazko EZINTASUNEAN (gizonaren INGURA-
MENDUAN, alegia), baina gizonaren PENTSAKERAN BERTAN
baizik (alegia, gizonaren ADIMENDU-EGITURA GORDE ETA
INKONTZIENTEETAN).

Politikaren mailakotzat jotzen diren alienazioak, hortaz, sa-
konagoak dira; eta frogak mila aldiz emanaz ditu Kondairak. «La
conception d'un entendement menant une ACIVITE AUTONO-
ME et asservie d'abord à elle-même se trouve à mes yeux confir-
mée par la découverte et le déchiffrement du code génétique,
cette langue universelle qu'utilisent toutes les formes de vie, et
où l'on peut voir le PROTOTYPE ABSOLU dont, à un autre
niveau, le langage articulé répercute le MODELE auquel res-
tent associés les noms de Troubetzkoï et de Jakobson» (Jean
Pouillon-ek bildutako deklarazioak, Nouvelles Littéraires, 1971-
X-1).

* * *

Levi Strauss, azkenekorik, biziki uzkur agertzen da —lehe-
nengo puntuan adierazi dudanez— gizadiaren «aldakuntzei» da-
gokienez. Ez ditu ganbiamenduak berehala sinesten, eta sasi-iraul-
tza asko somatzen du. Horretatik haren kontra zabaldua den
«eliatista» deitura: alegia, anti-dialektiko eta gelditasunaren al-
deko. Eta MODELOEN MAILAN hala da Levi Strauss.

Teorien atzean, dio, teoria horien ELKAR-OSAKETA ETA
AURKARITZAK aztertu behar dira. Mitoak suntsitu egiten di-
ra Kondairan zehar, bai; baina mitoen arteko ESPERANTZA ETA
ULERKETAREN EGITURA GORDEA ez da batere aldatzen.
Aurrerapenik ez dago kultura batetik bestera pasatzean: aurrera-
penak BARNEKOEK EZ BESTE sinesten dituzte. Brahma-Siva-

Vishnu ahazturik ere, HIRUKOTE HORREN EGITURA ez da aldatzen, Dumézilek erlijioen gonbaraketan frogatua duenez.

Mitologiak eta sinestek SISTEMAK osatzen dituzte, sufi-joek eta soinuek SISTEMAK osatzen dituzten bezala. Gizonaren azken jokabidea eta azken egarria ulertzeko, argi handiagoa eman dezake Hizkuntzaren jakintzak, gainerako giza-jakintze baino. Zeren-eta gizonaren kakoa bere pentsakeraren EGITURA IZKUTUAK baitira, eta ez, banaka harturik, USTEZKO arrazoinak.

* * *

Ez da harritzekoa, beraz, Piaget, Freud eta Levi Straussen artean ideia-lotkia harrigarriak topatzea. Eta hiru jakintza-gizon aparta horien egokiera sakonak, Levi Straussen ekarpenaren BALIOA adierazten du, ene ustez, eta ez inolaz ere berorren irizien hutsala.

On litzake, beraz, egiaren bila ari diren euskaldun intelektual gazteek balio hori kontutan hartzea; eta, ahal dutelarik, akademiko berriaren libururik funtsezkoenak bederen (teknikoenak ez badira ere) irakurtzea; hau da: «Race et Histoire», «Anthropologie Structurale» eta «La Pensée Sauvage».

Ez dut uste irakurria damutuko zaienik.

CLAVEL FEDEAREN SUKARRAZ MINTZO

(1975-VI-13)

Liburu batzutan egilearen txukun-nahia eta itxurakeria aski nabarmen soma badaitezke ere, beste muturrera eramaten gaitu Maurice Clavel-ek bere «Ce que je crois» liburu berrian. Ez baldarki egina delako, ez. Baina gure mendeko Isaias bailitzan beroberoan mintzo zaigu Clavel, egiaren egarriak eta Fedearen segurantziaz bizkorturik. Liburu harrigarri honek kiskaldu egiten gaitu, zinez, geure kuntzetik ateratzen, galda goriz eta ximiko zorrotzez oratua balitz bezalaxe (Edit. Grasset, 34,00 F).

Clavel ez da esamesen batere beldur. Bost axola zaio bere esanak nola hartuko ote diren, moda eta errazkeria guztiez trufatzen da. Urte askotan barrena mundutar bideetan gaindi errebelaturik ibilitako gizona, Lip eta 68-Maiatzaren defendatzaile

suharra, «Libération» eta beste ekintza «gauchiste»ren laguntzailere beroa, besterik ere bada: gaurko Clavel, ez lehengoa, kristaua baita; eta kristau agertu nahi du bere burua. Oso berandu arte ez gomertitua, Paulo eta Agustin sainduak gogorazten dizkigu; eta lehenengoaren hitzak bere eginez, hauxe esaten du: «Ez naiz ni mintzo, baina Kristo mintzo da nigan».

Aitor hauek, jakina, gaurko Europan, eta ezker muturretik jalgiak batez ere, zeharo bitxi gertatzen zaizkie ezkertar ofizialei, Lacan-ek behin «progresista estacionario» deitu dituen horiei. Clavelen liburua probokazio hutsa da, herronka hutsa; mila aldiz gogorragoa, ene ustez, modako dogmakeria eta pornokeria guztiak baino. Clavel kontrakarrean dator osoki; eta zaku berean sartzen ditu gaur sasi-bidetzat jotzen dituen guztiak, «Sorbonako marxo-husserlo-heidegerriano-sartro-freudo-structuralo-nietzscheo-marxisme» bataiatuak. Errespeturik? Batere ez! Clavel ikonoklasta da.

Kontrakarrean dator, hasteko, «kristau aurrerazala» delakoei buruz: «Ils ont si peur d'être les derniers chrétiens, qu'ils seront les derniers marxistes!» (101). Euskaraz esanda, hain dira beldur azkeneko kristauak gertatzeko, azkeneko marxistak izanen direla. Marxisten eta kristauen arteko «elkar-hizketa» horiek eskarniatzen ditu ezin gupidagabekiago; eta kristau «progre» delakoen aurkako irainetan ez da txikikeriatan gelditzen: «Il y aura toujours une avant-garde d'Eglise pour relayer l'arrière-garde du Monde à l'instant même où elle s'évapore! Pareils aux résistants de 1945, ils découvrent Marx quand c'est mort, le prolo quand il est bourgeois, la lutte de classes quand elle est devenue foire d'empoigne de cinq à six catégories sociales!»... (101)

«Opio» iruditzen zaio marxismoa, «mito», nik dakita zer besterik? (= le marxisme est un opium, un mythe, una projection, un phantasme», 177); eta marxismo «zuzen»ari buruzko «okerkuntza» famatuetan ez du mendrenik ere sinesten: Proudhon-ek, gogorazten digu, 1844-an (eta stalinismoa baino lehentxeago, beraz, alajainetan!) hitz hauek izkiriatu zizkion Marx-i: «zure pentsakerak beldurtu egiten nau gizonen askatasunaz oroitzen naitzelarik». Clavelek, horretara, *osoki* arbuiatzen du marxismoa; ez puntu honetan edo hartan bakarrik, ez eskuin aldetik; baina halaz ere gizartearen *alienatzaile nagusitzat* dauka, eta «azken pozoina» deitzen du (= le dernier poison, 198).

Kontrakarrean ere, guztiz, «filosofi kristau» guztiei buruz. Fedea *bizi* egin behar dela uste baitu Clavelek, Jainkoaren deiarri erantzunez; eta ulertu eta azaldu nahi guztietatik urrun. Nor-tu egin behar da Jesukristo. Kant-en ekarria betirakotzat joaz, kristautasunaren «azalpen» eta apologetika guztiak gaitzesten ditu. Fedea adimenetik at dago. Fedea adimenera bildu nahi izatea, hain zuzen, Fedea hiltzea da. Mistikoek bezala izkiriartzen du Clavelek, eta mistikoek bezala sinesten: harrigarriak dira honi buruz, mistikoetatik kanpo bederen, Fedearen eta setsu-amodioaren artean Clavelek egiten dituen pareketa ausartak. Urrun gaude «Ce que je crois» honetan «haragikerien» arbuio errabiatuetatik! Bertago senditzen dugu Nietzsche, Pla-y-Deniél zena baino!

Kontrakarrean ere Clavel egungo munduaren gaitzaren giltzarriaz: egilearen iritzi *Jainkoa* falta du gaurko gizadiak, baina ez omen du aitortu nahi: «pour ne point avouer qu'on a tout perdu avec Dieu, et d'abord soi-même, on s'en prend à n'importe qui et à n'importe quoi» (183). Bideak erratu bakarrik ez, beraz: *helburua bera* da hutsegina Clavelen ustez; gizona bere baitara dezakeen bakarra Jainkoa baita. Baina «Jainkoa» esanez, Jesukristo bera aipatu nahi du Clavelek.

Nori ez zaio hizkera hau ezinago harrigarri gertatzen? Zenbait apaizen predikuak entzunda, nor da Jesukristoren mezuaz eta esperantzaz mintzo, eta nor besterenaz? Badaki Clavelek: «Ez naiz ni gauza —dio— eta ez dut egin behar ere, jesuita horren bidea hartzeko; Hegel-en mezua salbatu nahiago baitu berak bere lagunurkoaren arimak baino... Hegelen fedea, ordea, atxiki edo lortu nahi dutenek, aski dute Aita agurgarri horrengana joatea» (63).

Baina Clavel, Agustin bezala, ez da gizon txintxo istilu-gabe horietako bat. Clavelek ezagutuak ditu mundua eta loria, bidaiak eta atseginak; eta ez du izkutatzen. Bere ondokoei beharbada min emateko moduan («je ne comprenais pas ce qui l'avait retenue (bere emaztea, alegia) auprès de cette vieille loque méchante», 10), gorri-gorrian, bere mila amodioez mintzo da ausarki: «femmes, femmes»... (238). Harrokeriarik gabe aipatzen ditu bere arrakestak sail horretan: ez bide ditu urri izan! Eta egoki mintzo da beti, jator, egiazki. Gauza bera bere nobelez eta antzerkiez. Gaur 54 urte dituelarik, ezagutua du munduaren loria, gizon handien adiskidetasuna (hunkigarria Mauriac-i buruz diona). Bihotzez ere, eta espanturik gabe, izkiriartzen du berak jasandako eroal-

diaz: luzaz gaisorik egon ondoren gomertitu da idazlea, nahiz gaisoaldi horretan «sekula ez» Jainkoaz oroitu.

Pascal du maiteenik agian, eta askotan aipu; baita Kierkegaard, Unamunoren «anaia bizkia». Michel Foucault-en pentsamenduari jarraitzen zaio bertatik, Fraitziako intelektual asko bezala, Foucault oso inportantzea izan daitekeela sinetsirik (ikus «Magazine Littéraire»ren banako berezia, Foucault-i buruz, número 101, 1975-ko Ekainekoa; 6,00 F).

Eta gure giro itsu geldian (ideiei buruz ari naiz) ezin aprosago dator hori guztia.

Ezen, funtsean, zerk bultzatu ote ditu Clavel eta Garaudy ezin desberdinagook, guztiz modaren kontrakarrean, iturri bere-tik edatera? Zer gertatzen da Europa «intelligentzian»? Zer adierazten du honek guztiak?

III

EGUNEAN EGUNEKOAK

ZINEAK GUTXITZEN ARI

(1969-III-4)

Hein batean bederen, zinea gain behera doa. Ez itzaltzera edo ahaztutzera doalako, hau ez; teatroa joan ez dan bezela. Zine-ikusleak, halere, gutxitzen ari dira Europa guzian. Hitz batez: zinera doan jendetza hurriago da gaur orain dala urte batzuk baiño; eta hurritzea ez da oraingoz gelditu.

Estadistikek argiro erakusten digute hau. Belgika'n, esate baterako, hauxe da zine-egoera:

1962-an	1432 zinema-areto
1968-an	820 zinema-areto

Azkeneko sei urteotan, beraz, %-eko 42 izan dira hetsiak. Ia-ia erdia.

Habaita hortan, beraz, laister galduko du zineak orain dala zenbait urte zuen inportantzia.

Zer egiten du jendeak, hortaz, zinera ez doalarik? Irakurleak berak ere ba daki: jendeak telebixta ikusten du. Telebixta nagusi zaio zineari urte gutxitan. Eta zinearen eragiña ukatzen duenik ez dago, nik uste. Hots, telebixta herrikoitu eta ugalduta ala, eragilleago bihurtzen da. Herriarengana irixteko bidea, beraz, gero eta garbikiago, telebixta da.

Ondorio larriak ditu fenomenu hunek. Herriaren moldagintzan, pentsakeran, hizkuntzan, estadistikek ongi erakusten dute-nez, telebixta da gaur urrutitik nagusi; eta, Belgika'ko kasoak agerrera zuten duenez, gero eta inportantzia haundiagoa hartuko du. Telebixtaz jabetzeko burruka (De Gaulle'z gogoratzea aski da) gero eta latzago egiten da nun-nahi.

Zer egingo dugu guk, beraz, euskaldunok, telebista osoki er-

deraren menpean dagoen artean? Deus ez! Besterik gertatzea miraria litzake. Gure etorkizuna eskolan jokatzeko da, dudarik ez. Baiña telebixtan ere bai, eta ez gutxiago. Telebixtak gidatzen ditu herriak gaur Europa'n, telebixtak igarotzen baititu aterik izkutuenak eta hestuenak.

Gure euskera maitea «mendi-tontorretan garbi eta orbanga-be» beti egongo dala predikatzen zuten zozoak ixildu egin bide dira. Gaitz erdi! Baiña estadistikak erakusten dituen dato bildurgarri horiek kontutan ez hartzea, tontorzalekeria litzake. Eskolarenaz gain, badugu euskaltzaleok helburu nabarmen bat: telebixta euskeraz.

EDDY MERCKX ETA SYLVERE MAES

(1969)

Lerro hauek idazten ditudan momentuan, ez dakit Merckx'ek Frantzia'ko Ingurua irabazi ote duenez. Egun gutxi falta da jakin dezagun, halare; eta garaizaitzat jo diteke.

Hau dala-ta, eta bidezko danez, anitz aldizkaritan agertu da gogoeta berbera: Belgika'k ez zuen «Tour» dalakoa 1939 ezkerroztik irabazi: urte hartan Sylvere Maes'ek garaitu zuen 30 minutu Vietto'ren aurretik. Belgikarrak milaka abiatuko dira datorren larunbatean «Parc des Princes» aldera beren txapelkun berria txalotzera. Lehendabiziko tren berezia iragarrita segituan bete da!

Frantzia'ko Inguruak ba du —eta irakurleak nik bezin ongi daki— bere alderdi txarra: ilabetean barrena Europa'ko herriek (Euskal Herrian, eta Erdal Herrietan gauza bera...) arazo guziak alde batera uzten bide dituzte; eta txirrindularien gorabeheretan jartzen bide dute arreta guzia. Berez kirol bat besterik ez zana, hortara, txirrindularientzako dirubide bihurtu da (Europa'n bai, beste tokitan ez beti: Bolibia'ko Ingurua, gonbarazio baterako, diru-saririk gabe jokatzeko omen da; eta jarraitzaileentzako, telebistaren bidez edo prentsaren bidez jarraitzaile diranentzako diot, alienazio nabarmen bat bihurtu da. Robic'ek aste hauetantxe eman duen argibide itsusia ez da-izan kontrakoa...

Herri xehearengandik besterik itxarotea, halare, ez ote da utopia bat?

Ez noa, halaz ta guztiz ere, alde hortatik jotzera nere huntan: kritika hori bestek egingo dute nere ordez (dagoeneko egin ez badute beren...). Eta nik beste ikuspuntu bat agerrerazi nahi dut nere artikulu huntan. Alegia, Frintzia'ko Inguaruak ba duela askorentzat (nahi ez badugu ere, urte koloregabe eta legunen aztarna besterik ez bada ere) urruti-kutsu gazi gozo bat; eta urte bakoitzari kanta igarokor bat ohi dagokion bezelaxe, askoren bihotzetan, eta neurean ere bai, aspaldiko txirringularien izenek eta gorabeherak ba dakartela beti joandako urteen urrin bitxia.

Merckx'en arrakastek, horrela, neuri eta beste askori eskierki, gerra nagusiaren aurreko giroa dakarkigute saihetsetik. Merckx'en bidez, René Vietto, Gino Bartali, Guy Lapébie, Slyvere eta Romain Maes, Tiéthard, Trueba, eta garai urrun haietako txapel-dunak agertzen dira. Eta hauekin arras loturik, urte haietako haurtzaroko oroitzapen ahaztuak. Neretzako, esate, baterako, Sylvere Maes'en izena zeharo lotuta dago Ondarreta'ko ondartzarekin: Frintzia'n hiru urtez egondako adiskideek eta lehengusuek, berriki etxeraturik, erakutsi ziguten «Tour» delakoa zer zan. Ez genuen orduan ulertu haien frantsestasunak zer adierazten zuen...

Frintzia'ko Inguaruak, hortara, urteen iraganaren azkarra nabarmenarazten du miloi askoren kontzientzian; gauza agiria baita txirringularien ospe gaitzak urte gutxitan ez duela ia aztarnarik ere uzten. Brusela'ko Gare du Nord'en ondoan ba zegoen, hain zuzen, oso gutxi arte (bera hil arte), bizikleta bat ezagugarri, Maes famatuaren trabena apal eta ez-ezaguna. Nola uka hunen ikuspenak erruz pentsarazten zuela?

Eta nik ez dut uste konturatze edo oharrera hunek batere kalte egiten duenik, nahiz askotan oso agirikoa ez izan. Garai bakoitzak, herri bakoitzak, pertsona bakoitzak ia-ia, bere jainkoak ditu; eta jainko-sistema horrek ez du besterentzako ez baliorik ez itzulpenik. Estrukturalismoan gaude bete-beteean. Mitoeke jarraitu egiten diote alkarri, multzotan; baina gaurko mitoeke ez dituzte biharkoek desegingo, uxatuko baizik. Ez dago funts aldakaitzik: «konnotazioa» beti da desberdina. Bartali eta Merckx bi aroren lekuko dira, bi biziera-urteren idarokitzaile, bi mugarri belauen segidan.

Orain 40 urte dituztenek, gogotiago irakurtzen dituzte «Orain dala 30 Urte» sailean Sylvere Maes'en eginak, gaurko Merckx'enak baino; eta gehiago dutenek, gogotiago irakurriko lituzteke Franz'enak, Leduc'enak, Bottechia'renak edo Thys'enak... Bizi legea da.

Ez dakit nik hau zertan izan ditekean guztiz kaltegarri, gizonaren kakoaren irudi garbi bat ematen baitiku kirolaren hizkeran: danok gera geure aldiaren eta geure kondaira-zertzeladen seme eta jopu. Bidezkoena eta jatorrena ausarki aitortzea litzake.

Nekez egin ohi dugu, ordea. Ondikotz!

NORUEGA'KO «SUPERMARKET» BATZUK GAINBEHERA

(1969)

3.800.000 lagun, 324.000 kilometro koadratu, 2.500 kilometro Ipar'etik Hego'raino. Horra hor Noruega hozki aurkeztutze-ko modu bat.

Noruega ezagutu duen bat, ordea, ezin diteke hortan geldi. Noruega olerkiaren aberri berbera baita. Ni neu, bederen, ez naiz aurrerakoan gauza izango, malenkonia kutsu nabarmenik gabe Noruega'ri buruz ezer pentsatzeko edo idazteko.

Aspaldidanik somatzen nuen, hau bai, Knut Hamsun'en liburuetan eta Edward Grieg'en melodia hunkigarrietan. Noruega'n aurkituko nuela, joatekotan, illunabarretako isiltasun geldi hori. Eta aurkitu egin nuen gainezka; eta, beste euskaldun batzuk bezela, iparralde horietarako joerak kilikatzen nau bortizki. Euskal Herria'n ezagutu dugun amai-giroak argitasun epeletara bultzatuko baikintuen gu, eta ez Mediterraneo'ko betetasun haragikoietara.

Noruega'ko bazterrak ezagutu ondoren, gure inguruetan Izadia erdi-Izadi besterik ez dala aitortu beharra dago; eta gure urrutietan bizi diran baseritarrik bakartienak, kale betean bizi dirala!

Geilo'tik pasa naiz ni, esate baterako, Oslo eta Bergen'en arteko bide erditsuan, mendi-mendian. Herriska urrun hartantxe hil zan berriki Trigve Lie famatua aspaldian ONU'ko lehendakari izana. Igarotzerakoan Maiatzaren hondarrean ginan; eta eskualde menditsu garai haietan Geilo'ko aberrian bertan lakuak hormaturik zeuden oraindik eta elurra inguru guzian nagusi. Eguraldia epela eta eguzkitsua izanagatik ere kaminoa elur lodian idekitako hildo hestu sakon bat besterik ez zan. Gure Lorraine

edo Uztarrotze hiri ondoko hauzo erosoak iruditzen zaizkit Noruega'ko herriska haien ondoan.

Itsasertzean jakina danez eta «Gulf Stream» dalakoari esker, giroa askoz epelagoa da. Oslo'ko kaia ez bide da sekulan histen. Hiri ederra Oslo, itsasoko kolkoak ugari eta ikusgarri, zurezko etxeak eta hormigoiezkoak alkarren lehian ugaltzen ari; baina, Belgika'n eta Holanda'n bezela, familia-etxetxoak milaka hiriaren ondoko inguru guzian. (Noruega'koak, noski, danak zurez eginak).

Kaiarengatik beharbada, eta arrain-azokari darion usainarengatik eskerki, gureago atxematen da Bergen'go hiria. Kai zaharreko Hansea'ko etxeak erasten dute urruntasuna.

Telemark'eko bakardadeetan baserri guziak dira zurezkoak; eta gauza bera baserri guzien ondoko ukuilua eta bizitegia. Hirukote horiek oso tipiko eta desberdin egiten dute ikuspena.

Hunek guziak, alabainan, ez luke etorlearen bihotza inarrosiko. Fiordoek hunkitzen dute bihotza. Eta Noruega'z oroitzean, ikuskari bat dago gailen hura ezagutu duenarengan: fiordoak.

Noruega ez dago aldamenean. Baina olerkiaren ahalmena piztu edo indartu nahi duten euskaldun guzietan, aholku ziur bat eman go diet nik: aukera gertatzen zaielarik, zalantzarik gabe fiordoan bakardadean elikatzerat joan ditezela. Hardanger'ko eta Sogne'ko fiordoetara bereziki.

Fosse'ko erroitz ikaragarrietan behera iritxi nintzan ni igaz Ejjfiord eta Kinsarvik'a. Inoiz ez dut nere burua apalago eta ezteusago ikusi, eta Izadiaren edertasun kupidagabea nabarmengo eta gaitzago. Uxolak ehunka metrotan behera, arkaitz gogorak zut mila metrotako paretak osatuz, kresal usaina ezin sarkorra go aidean, itsas-gain geldi hura ispillu baten pareko, ontzi zuri-beltz hura fiordo-beso meharrean barrena urruntzen ari, goi esker ga guzietan elurra zuri-zuri; eta isiltasun giro hura urratuz, urrutiko uxolen zurrumurrut jarraikian eten gabe ari, anitz antxeta eta kaiuren oihua... Gustave Doré'ren marrazkiek han dukete iturburua; eta horrengatik izan ziran Dante'ren dina.

Pake harrigarri hura ezagutu dutenek, illunabar luzakor haietan pasean ibiltzeko zoriona ezagutu dutenek, ongi ulertzen nautte: malenkoniaren Arcadia Noruega'n dago.

Bainan Izadiak Naturalezak, Noruega'n hunkitzen badu ere,

noruegatarrek berek ez gutxiago. Bergen'go inguruan, esate baterako, ugarteak milaka daude, kilometrotan zehar sakabanaturik, eta ontzien bidea oso zail eginez. Arkaitzezko ugartetxo gogor askotan, zurezko etxe bakar bat agiri da: ugarte hartan arrantzale-familia bat bizi da. Bat, eta ez bi. Handik bostehun metro-tara, beste ugarte ñimiño batean, beste familia bakar bat. Eta abar. Bergen'an joateko (itsasoa oso nahasia ez badago...) ordu-bete behar da, edo ordu pare bat...

Fiordoetan, halere, harrigarriagoa da ikusten dana. Fiordoetan dauden herriak oso txikiak dira: Ulvik, Odda, Ardal, Norheimsund, edozein, herriska txiki-txikiak dira. Eta Ballestrand, esate baterako, koskoarragoa baldin bada, estatuek egin dute haundiago, Ballestrand bakantza-leku baita. Hori hala izanik ere, fiordoetako arkaitzezko hormetan beretan zintzilikaturik uretara jeisteko ere nondik joan ditekean ulertzen ez dalarik, etxetxoak agertzen dira han hemenka...

Noruegatarrak, aspaldiko vikingoak bezela, itsastarrak izatea derriorrezkoa da. Itsastarrak eta artistak. Kon-Tiki'ren eratzaila noruegatarra izatea konprenitzekoa da, Noruega'tarra itsasoan eta mendian murgildua bizi baita. Hamsun'en libururik ezagunenak, Nobel-Saria balio izan zionak, «Pan» du izena; eta Pan Izadiaren jainkoa da.

Zer eman du Noruega'n mundu berriak? Aldakuntza haundiak, noski. Norainokoak diran zail da jakiten.

Baina Flugesand jaunak supermerkatuei buruz berriki esan duena oso gogoangarria iruditu zait: «Ba dago ere —dio Flugesand'ek— eta nik nekatu gabe esaten dut behin eta berriz, Noruega'ko pentsakera. Berriketa apur bat eginez erostea maite dugu guk. Giza-hartu-eman horri atxikitzea oso inportantea iruditzen zaigu: helburutzat daukagu alkarketa-eta horiek ez galtzea. Noruegatarren izakera da hunen kakoa. Saltzailearen eta eroslearen arteko alkarrizketak lotura bat sortzen du gurean, eta lotura hori ez dugu inolaz ere galdu nahi»...

Hau da Flugesand jaunak eman duen azalpena. Gertaerak izuririk baititu ekonomikoiak eta amerikanismoa bereutetzat dutenak: alegia super-merkatuak ez dira batere aisa ari Noruega'n: jendeak ez ditu maite. Haundienetako batzuk hetsi ere behar izan dute; eta beste mordo bat koloka omen dago. Galestixeago or-

daindurik ere noruegatarrak alboko lagunari erosteia nahiago du!

Nola ukatuko beraz fiordoez gain, ba dagoela Noruega'n zer miretsirik?

«LA FROUSSE DU DIMANCHE»

(1970-I-31)

«Plus de la moitié des gens a la frousse du dimanche»: jendearen erdia baino gehiago bildur zaio igandeari. Hauxe esaten zidan lehengoan baionar adiskide batek; eta, jakin gabe noski, gaurko soziologilarien sospresa-buru eta katramila-iturri bihurtu den egia aipatzen zidan.

Alegia: jendeak ez duela astirik izan nahi. Jendeak lanegin egin nahi duela funtsean, hori uste ez badu ere. Jendea, horregatik, ikarak dago jai-bezperan; eta, ene adiskideak egokiro zion bezala, igandearen bildur da.

Hauxe da hain zuzen Georges Friedmann soziologilari ezagunaren azken tesia (irakur, otoi, berriki agertu duen «La Puisseance et la Sagesse» liburua), eta argi eta garbi aitortzen digu berak, ez zuela horrelakorik espero. Uste zuen G. Friedmann-ek, gehienek bezala, lanegin-behar aspergarriaren loturatik libratu nahi duela gizonak; eta, teknologia aurreratu ala, gizonak pozik baliatuko eta uxtiatuko zituela bere asti berri guziak. Eta ordurarteko denbora baldindu horiek —alienatu horiek, hobeki esateko— nolana hiko lotkia guzietatik at jarriko zituela, eta hutsik utziko.

Ez da horrelakorik gertatu, ordea; eta Friedmann'ek aitortzen duenez, nahasi egin ziren soziologilariak hori pentsatuz: ez bide da egia gizonak lanaren hersturatik eta loturetatik irten nahi duela: «Etxeko lanak, diru-ordainik gabeko 'bricolage' delakoa, etxen behartasunik gabe egiten den lana, alegia, ez bide zaio aski. Beste lanbide ordaindurik bilatu behar du kanpoan, eta, batez beste bederen, behartzaile behar du izan bigarren lanbide horrek».

Kasu! Ez dut nik esaten, eta ez inork, hamabi orduz lane gitea kirol bat edo festa bat denik, ez seta hutsa! Gaur gaurkoz,

urritasunaren garaian gaudeno (Sartrek bezala esateko), bizi ahal izateko egiten da lana, eta astirik ez dago, edo ia. Erdipurdi edo gaizki bizi ahal izateko egiten da lan, baita osasunarentzako aki-garri den moduan. Zer esanik ez orain dela ehun urte, kapitalismo gaztearen mendean... Honek ez du dudarik.

Baina nork bere burua eta familia mantentzeko behar dituen lan-orduak gutxituz doaz. Eta Ameriketako Erresuma Elkartuetan, gonbarazio baterako, eta Europa-ko herririk «aurreratuene-tan» (Suezia, Suiza, Alemania, Holanda) astiaren arazoa sortzen hasia da. Astean 36-an-ordu, eman dezagun; eta gutxiago. Langile batzu, beraz, gero eta langile gehiago, astia izaten hasi dira: denbora apur bat ba dute egunero (larunbata eta igandeaz gain) librokori ari izateko, eta diru-lanari datxezkon ordu alienatu batzuk gutxienez alde batera uzteko.

Hots, zer gertatzen ari da USA-n? Astia duen jende horrek «bete» egin nahi duela asti-unea, «lotuta» pasa nahi duela denbora hori; edo, ene adiskideak zion bezalatsu esateko, astegunetako igande-pusken bildur dela: «ez da batere gauza segurua pertsona guzientzako, irabazketa haundiago izan eta astia luzatzeko aukera gertatu, eta nahi-ta-nahi-ez, asti luzeago baten eskaera benetan egingo denik».

Igandean oso erraza da pentsatzera eta gogoeta ilunetara leratzea; eta jendeak, orain inkestek erakusten dutenez, lanegin nahiago du (baita bi lekutan, baita hirutan) igandeko asti-une geldí horietan bere buruarekin heriotzarat ari topo egitea baino.

Mintza bekigu berriro Georges Friedmann: «ongi-biziaren bultzada, eta 'standing' edo bizi-maila delakoa, urrun daude bigarren lanbidearen kakoa arras argiztetik: askotan, aitzitik, bai lanean eta bai lan-ezean somatzen den barne-ikarari ihes egiteko bide bat da bigarren lana: biderik kilikagarriena eta errazena hain zuzen». «Egiazki —dio Friedmann-ek— langile askok ez du asti luzeagorik bere esku izan nahi».

Behin eta berriz dio Friedmann-ek lanak taxutu edo «estrukturatu» egiten duela gizonaren biziera; eta, honen bidez, falta ohi zaigun «biziaren zentzua» lortzen dugula. Lanak, hitz batez, paketu egiten gaitu geure buruarekin, lasatzen, eta erantzun argirik gabeko galderetatik urruntzen. Lanak, beraz, alienatu egiten gaitu; baina esan ohi den mailan baino sakonkiago. Lanak estali egiten du gizonaren benazko egoera.

Sasi-terapeutika hau ongi ezagutzen dugu. Nancy Morse eta Robert Weiss-en inkestek erakutsi dutenez, galdera egin zaien langiletarik %-eko 80-ek hau erantzun dute: baita bizi-beharrak beharturik ez baleude ere, lanean jarraituko lutekeala...

Psikologilariek, bestalde, gauza bera esaten dute. Friedmann-ek Erich Fromm aipatzen digu. Honek, psikiatra askok bezala, sentidurik-ez eta helbururik-ez ezin sakonago horretan somatu uste du gaurko gizonaren ihes-egin-beharraren kakoa. Eta hau dio: «Eragile edo bultzagarri horien inportantzia haundia (alegia, diruaren, indarraren edo izen-onaren bilaketa errabiatuak) pertsona alienatuak bere barne-hutsuneari ordari edo konpentsazio-kide bat aurkitu nahi izateak horretaratzen du; eta ez, askok hau uste bait du, eragile horiek berezkoak eta inportanteenak izateak».

Soziologilariek, hortaz, harriturik, hau aurkitu uste dute: erretiro-aldia, lan-eza eta lanegin ondoko astia, anaia bixkiak direla; eta sosaren arazoa ez dela beti haiekiko izan ohi den bildur eza-gunaren kakoa. Hau barneago dago itxuraz.

Friedmann-en teoria zientifiko hauek aisa sala daitezke «burges»tzat. Ez zaio arrisku hau frantses jakintsuari itzuri. Baina gizonaren barne-kezka eta sentidu-behar horietan sinisten ez dutenek, ez dute gizonarengan urdail-betearen problema baino goragokorik ezer konponduko; eta, aski dela esanez, batetik irain egiten diote gizonari; eta, bestetik, laister bilduko dute, sinistuta egon, beren sukaldekeriari dagokion txerrija eta hondakinuzta. Gizona gauza apurra da, bai; baina ez da ogi hutsez elikatzen. Gizartearen gaitzak sakonago dira urdail gorabehera guziak baino; nahiz hauek dauden bitartean, hau egia hutsa da, besterik somatzen zail izan.

«Astia barne-hutsune bat bezala hartu ohi dute Ameriketako langileek», ekiten du Friedmann-ek. «Hutsune hori diru-emale den brikolajeen bidez betetzen dute zenbait aldiz, beste batzutan bigarren lanbide batez; eta ez bakarrik 'diru-gose' direlako ('money hungry', sindikatoetako zuzendariak esan ohi dutenez); baina baita hutsune hori bete nahi dutelako».

Jendea igandeari bildur zaio, hitz batez, oso bildur. Bai, jaina. Eta nekez uxa daiteke arazo-iturri funtsezko ahu axalean gelditzen diren fraseologiez.

ZIFRA BATZUK

(1970-XI-4)

Joan den Urrian, beste urtetan bezala, Bichat-eko Elkarrizketak izan dira. Eta oso dato gogoangarriak aipatu ditu prentsak. Oso kontutan hartzekoak, batez ere, gizonak jasaten dituen gaitzak eta zampaketak nolakoak diren garbi ikusteko.

Sexotasunari buruz orain dela urte gutxi arte tente egon ziren hesiak gaur eroriak direla idatziz ez dugu inor harrituko: hori gauza agerria daigu denoi.

Zifrak mintzo direlarik, ordea, nabarmenago agertzen bide da egoeraren kakoa eta nolatasuna.

Estadistikek erakusten dutenez, Ameriketako USA-n «gizakia-
ren eritasun bakteriatsuetan lehendabizikoa blenorragia da. Hain da zabala gaur, gaitzaren kontrako soluzio bakarra txerto bat izango litzakeala. Izurrite-maila hartua du hiri-gisako puntu guzietan».

Ez USA-n bakarrik. Frintzian, esate baterako, 200.000 kaso gertatzen dira urtean. Bretainia Handian 1960-tik 1969-ra arte, %78 goititu da sexo-eritasun honen kopurua.

Hauek eritasun bati dagozkion zifrak izanik, sexoaren arazoaz gure gizartea zertan den somatzen ez da zaila: aspaldiko hesi moralak funditu egin dira, gazteen artean batez ere.

Zein adinetan laxotasun hori? Honetan, beharbada, estadistikak harrigarriago zaizkigu. Pilura dela-ta, ikastoki guzietara zabaldu dira hesirik gabeko sexo-ohitura berriak; eta, neskei dagokienez (13 urtetatik 16-etarakoak) hauek dira osagileek eman dituzten zifrak. Sexo-askatasunik handiena Bretainia-Handian dago: adin horretako ehun neska ikasletarik 63-k izan dituzte sexo-loturak. Segidan Alemania dator (%60), gero Noruega (%54), gero USA (%47). Oso neska gazteri buruz ari garela ez ahantz. Mutilei buruz ez dut datorik ikusten, baina gorago jo beharra legokeala bistan da.

Hots, soziologilari batek ongi esaten duenez, hau ez da harritzekoa, gizarte guzian egiten den propagandak «banalizatu» bait du sexo-lotura.

Baina sexotasuna erotismorik gabe ez bait da gizonaren betegarri, eta ez gutxiagorik ere, sexo-laxotasun honek, erotismoa

hilez eta pornografia hutsera bultzatuz (gaur ideki da Alemanian *aurtengo* bigarren pornografi-erakusketa... Alemanian bakarrik hau), sakondu egiten du gazteriaren hutsunea; eta lehen erotismo gizatar batek elikatzen zuen lilura erauziz, gaztaroaren lilura nagusia erauzi duela iruditzen zait.

Morfina, heroina, LSD, eta gainerako drogak, horretara, gero eta maizago erabiltzen dira; eta, era berean, gazteek darabilzkite gehienik, ez helduek. Ottavioli-ren Txostenak orain dela hilabete batzuk erakutsi zuenez, toxikomanoetan %-eko 90-ek 30 urte baino gutxiago dute (21 urte baino gutxiago kasoetatik %40-ek). Eta hau zion: «le milieu scolaire ou étudiant se trouve aujourd'hui davantage atteint par la toxicomanie».

Nagusiek aski dute beren ogibidearekin. Omen hau ere, ordea; ezen Georges Friedmann soziologilariak dionez, gizon modernoak ez du astia maite; eta askotan, herririk aurreratuenetan, ez diru-beharrez baina bere buruarekin bakartasunean ez gertatzeko, bigarren lan bat hartzen du! Zerbaitetan «hala-beharrez» ari delarik, ez du ezertan pentsatzen, eta lasai dago. Baina, libro delarik, pentsatzea gertatzen zaio; eta hauxe nahi ez, USA-n garbi agertzen hasi den bezala...

Gauza bera gazterian. Itxuraz bederen libroago delarik, inoiz baino aurrerago joan bide da gizartearen kontrako bere ukaeran. «Gauchisme» delakoa dugu ukaeraren aurpegi bat; «hippy»-ismoa da bestea. Lehenengoan oraindik ba dago mundu honekiko esperantza bat; bigarren arbuio osoa dago, basamortuko bakarti haietan bezalaxe.

Gazteria ez da, beraz, batzuek ikus-arazi nahi diguten zoro multzoa, axalez irribarre eta barnez zoriontsu. Gazteak nagusiak baino kezkatiago eta tristeago bizi dira askotan. Nagusiek etsi egin dute, eta ohitu egin dira. Gazteek ez beti. Ez askotan.

Eta hauxe da gogorrena. Pertsona helduetan Europan heriotza-bideetan suizidioa laugarren heriotza-saila den bezala, gazterian... heriotza-iturri nagusia suizidioa da! Hesirik gabeko gazteria horrek bere buruaz beste egiten du inoiz baino maizago! Suezia-ko soziedadeak suizidio-mailarik gorena ematen duen bezalatsu.

Zer adierazten du honek guziak?

Ez dakit.

Baina gizonaren liberazioa zer ote den ez da batere xinpleki agertzen zifra bildurgarri hauetan.

ALFERREI GUTUN IDEKIA

(1971-II-15)

Agur alfer hori:

Alferkeria ez duk munduan gauza berria. Ba zekiat eta ba dakik. Kokodri loen losusta luzeen berri duenak, nekez uka zieza-keek saurioak alferrak direnik. Hots, saurioak Sekundarioan bizi izan hituan! Orain dela ez zekiat zenbat miloi urte!

Alferrarena egin ahal izateko erabiltzen diren aitzekiek, alde-rantziz, itxura «berria» hartu diate gaur. Funtsezko eta betiko alferkeria horren «superstrukturak» edo azalpenak, aldatu egin dituk. Alde horretatik, hi alfer «berria» haiz. Alfer «klasikoen» ondoren, alfer «berriak» agertu zarete gaur gure artera.

Hik ez duk, eskierki, Paul Lafargue-ren «Le Droit à la Paresse» liburu famatua irakurri, nahiz liburu horrek 90 urte izan. Jakin gabe, ordea, aitagarrebaren teoriak baino maiteago dituk hik suhiarenak (parte hau bederen!), eta gogozago jarraitzen. Lafargue-k bezala hik ere «lanaren mistika» gorroto duk; eta, Marx-en suhiaren teorien berri izan bahu, maizago aipatuko hituzkean heure alde. Lanaren mistika hori, burgesiaren «azken argudio metafisikoa» dela uste bait zuen, langileria zeharo eta bururaino zabal ahal izateko.

Aurreko mendeetan, betespenak, kontenplazioak alegia, ohore guzia merezi zian, eta bizimodurik gorenekotzat hartu ohi huan; beharbada mende haietan Eliza eta komentuak nagusi zirelako. Gaur batere ez. Gaur «american way of life» delakoa gutzaz jabetu duk, eta lan egin beharra zegok. Beharraz gain ere, ahal dugun eta plus-valiarik haundiena lortu behar omen diagu. Baina, horrekin batera etekinak noren poltsikura doazen aztertzen ez badugu, beteko diren poltsiku horien jabeen jokia egiten diagu. Baietz, beraz: konprenitu uste haut.

Orain ba dakik, beraz. Laura Marx-en senarrak berak Thiers-en bitimak, Londres-a desherritutako sozialista ospatsuak, gauza bera esaten zian: alferkeria gizonaren ESKUBIDE BAT dela, eta

«lanegiteko eskubidea» eskatzea astakeria hutsa... burgesiaren menpean bederen.

Ni neu ere sorkuraz alferra izanik, bai Lafargue eta bai hi konprenitzeko egoera onean nagoela uste diat: surangilek hainbat maite uste diat nik ere eguzkitan etzan eta kolperik eman gabe ordu pare batez egotea. Nork ez?

Eta ba zekiat, eta ez ez sorkura hutsez bakarrik, ba dagoela gure gizartean produktibidadearen mithologia bat, burgesiak oratua; eta, hau dela-ta, oso gaizki iritzia dela alferkeriaren defentsa. Gehien-gehienik alferra izan ziaitekek; baina alferkeriaren defentsa egitea ez duk haizu, ezin itsusiago duk; besteren lepora bizi direnei ziaiek itsusiena hain zuzen. Hik ba duk, ordea, alferkeriaren teoria bat egiteko ausardia. Ez oso bikaina izanik ere, zorionak biltzea merezi dik hire kemenak.

Dudarik gabe, beraz, hire jokabidean ba zia gok zerbait funtsezkorik; edo izan ziaitekek.

Gizonaren kakoa, bestalde, ezin ziaitekek lanaren arabera eta lan-ordutan neur; batez ere lan-ordu horiek, janari-bilaketa-ordu besterik ez direnean: helburuz eta izanaz faltsutuak. Hein batean, gizonaren gizatasuna janari-bilaketa-ordu horietatik at mamitzen duk. Sentidu honetan, horrengatik, hire jokabidea, eta lanari dioan gorrotoa, ongi ulertzen dizkiat.

Bigarrenekorik, beraz, hire laguntza «sistema»ri eman nahi ez dioala diok. Hik ez omen duk inolaz ere nahi burgesia ezertan indartu, eta ez duk sistema barruan lanegin nahi. Gaurko lana alienatua zia gok; eta hik salatu eta errefusatu egiten duk. Bego. Horrek guziak ba dik bere funtsa. Aitor diat.

Baina hire jokabideak oso kutsu txarra uzten dik nigan; eta, sinistuta egon, are kutsu txarragoa uzten dik langileengan. Zeren-eta hik gure gizartearen lana arbuiatzen duk, baina gizarte horren ekarriak, BESTEREN IZERDI ETA NEKETAN MAMITUAK, lasai eta gostuan erabiltzen dituk. Ez haiz basamortura joaten, gizartearekiko mespretxuz; kafeterietara eta trabenetara baizik. Mutila haiz!

Langileak «sistema»ren barruan ezin-bestean eta bizi-beharrez ari dituk lanean, ez zia gok zalantzarik; beren bizia hondatzen ari dituk ere bai; eta hire jokabidea jauntxokeria bat iruditzen ziaiek. Nola ez? Eta hire argudioak eta abileziak, nahiz Lafargue-ren na-

hiz Marcuse-ren soinekoz jantzirik, alferkeria erruduna eta nabarmena iruditzen ziaizkiek. Ezen Lafargue-k eta Marcuse-k besterik esan eta besterik egin ere bait zuten; baina hik, itxuraz bederen, iraultzaz kalaka ugari eta alferkeriari eutsi.

Langile askok eta askok ez zekitek goiz bateko astia zer den. Betidanik, haurtzarotik beretik, EGUNERO lantegi batera edo baserriko eginkizunetara inoiz hutsik egin gabe joaten akitu eta zahartu dituk; eta goiz bakar batetan alferrarena egitea zer den ez diate jakin. Arrantzale, nekazari eta industri-langile askok eta askok ez diate sekula astegun bateko astirik ezagutu... gaisorik egon edo erretiroa hartzean izan ezik. Orduko astia miseriaz eta oinazeaz nahasia irentsi behar izan diate. Lehenago hil direnek ezta hori ere. Eta hori gaur, lehenago erretirorik ez bait zegoen. Hik defenditu nahi dituan horiek, beraz, ez diate behin ere das tatu, igandez kanpo, astiaren gozoa. Horiexek dituk, beraz, zapalduak, ez hi. Hire zapalketa teorikoa duk, alegiazkoa. Hi ederki bizi haiz, bapo, lasai. Langileen zapalketa, berriz, praktikoa eta egiazkoa duk: hauetxeak bizi dituk alienaturik, loturik, eta astirik batere gabe. Kontuz, beraz.

Hi ez haiz oraindik «sisteman» sartu. Zorionak! Ez zak ahantz hori lujo bat denik. Ez pentsa gero lujo apala: lujorik haundiena, hain zuzen, denbora eta astia ezin bereztea!

Irain haundia duk txiroarentzako aberatsek beren ondasunak lotsarik gabe haren aurrean erakustea eta beren indartasunaz harroputz agertzea.

Baina irain larriagoa duk, nik uste, DENBORA ALFERRIK HONDATZEA ETA XAHUTZEA. Egunero goizeko hamaiketan ohetik jaikitzen dena, egunero arratsaldeko lauretan oraindik ere mahainetik jaiki ez dena, egunero berriketa aspergarritan denbora pasatzen duena, beharbada oso egokiro mintzo duk «sistemaz». Hik ere ederki egiten duk. Baina ni bildur egiazko langileei, egiazko zanpatuei, asti zer den jakiteko 65 urteak bete behar dituztenei, eta egiazko sozialistei, ez ote hatzaien hi «sistema» bera baina higuinarrago.

Ez diat inolaz ere esan nahi goizetik arratseraino (eta ahal baduk, gainera) eten gabe «lanean» egon behar duanik, are gutxiago zein lan-motatan. Hori norberak ikusi behar dik bere helburuen arabera... eta bere patrikaren arabera!

Ez hori bakarrik: ni ados negok funtsean Lafargue-rekin; eta

pentsatzea, gogoeta-egitea, eta izadiaz goza ahal izatea, lehen mailako eskubideak iruditzen ziaizkidak. Lafargue-ren batere gogai-de ez zen Mahatma Gandhi-k ere astero hartu ohi zian «isiltasunaren eguna»; pentsatzeko, otoitz egiteko, bere buruarekin solasean egoteko; eta, hitz batez, «alfertasunean» igarotzeko. Ezen horretan ez bait dago «keriarik».

Gauza bakar bat gogorazi nahi nian gaurkoan: astia urrea dela, urrea baino baliosago ere bai. Eta nik, itxuraz, asti hori alferrik hondatzen duala. Gogoan har zak, otoi: langile askok, gehienek gaur arte, astia zer den ez dutela bizi guzian jakiten ahal. Eta langile horiek eta nik neuk hi sinis hazagun, astiarekiko errespetu osoa eta ezin haundiagoa erakutsi behar diguala aurrenik.

Azken ohar bat bukatu aurretik. Horrela jokatzuz, hire esanetan bederen gorroto uste duan «sistema» hori, heuk gotortzen duk. Gizarte berriaren eredutzat heure burua aurkeztuz, heuk ematen diek aitzekia eder bat sozialismoaren etsaiei. Heuk uzten dituk farragarri heure burua eta, okerrago dena, zinez eta egiazki «sistema» horren kontra egiteko dena eskeintzen dutenak.

Denbora galdu nahi izatekotan, ez hadi plazara ager; izkuta hadi bederen. Izan zak astirik gabe bizi direnekiko errespetu apur bat.

Agur t'erdia!

ERRORIK-EZA ETA GIZON ABSTRAKTOA

(1971-IV-24)

Bestetan ere aipatua dut neure lerro hauetan Georges Friedmann soziologilariaren azken liburu bikaina: «La Puissance et la Sagesse» deritzana. Eta nik aipatzea baino zuk irakurtzea hobe; ez bait dio benetan liburu askori zorrik. Ba du liburuan irakurleak zer pentsaturik eta zer kezkatutik.

Friedmann larritzen duten problemetako bat (Simone Weil kezkatu zuen bezala) gizon modernoaren «déracinement» delakoa da: euskeraz nolapait esateko, gizon modernoaren errorik-eza, des-erroztaera, erauzketa edo sustrai-falta. Teknikaren (eta areago automazioaren) soziedade honek, bai Ekialdean bai Mendebaldean, bai kapitalismoan bai sozialismoan, errorik gabeko gizon kolore

eta «monodirezionala» ematen du. Eta egungo gizon horrek, ekonomi-estrukturen gainetik ere, gizaki-mota berbera ematen du: errorik gabeko gizon bat, gizon «horizontal» edo «abstraktoa».

Hots, gizon «abstrakto» honek ez du inundik ere ez barne-bakerik erakutsi, ez zorion-itxurarik, ez gutxiagarri eta irudigarri egin zezakeanik deus. Gizon berri horrek, beti, aztertzailea soziologo izan ala olerkari, filosofo ala langile soil, beti erortzen da gure aurreko soziedadearekiko malenkonian eta galdu-minean. Zergatik hori?

Gure arteko baikorrenek (eta ez dira urri) ez dute dudarik egiten: malenkonia, tristura eta belaskeria horiek ez dira sasi-azterketa eta atzerakeria baizik. Eta lasai gelditzen dira, munduak eta zibilizazio honek gizonari gero eta zoriontasun haundia-goak emango dizkion segurantzirik gotorrenean.

Ez nago ni, ordea, hala gerta dedin *batere* ziur. Gero eta zalantzakorrago nago, hain zuzen. Eta ez neure buruz neure gertakarien arabera mintzatzeraz uzten dudalako: honek ez luke garrantzirik. Baina irakurri egiten dut arazo hauetaz ahal dudana; eta gizon abstrakto eta errogabe horren trajeria gauza nabarmenak iruditzen zaizkit, nori nahi bezala. Gure zibilizazioari buruzko baikorkeriak gogoeta-faltaren haurride dira, nik uste. Eta zibilizazioaren beraren akatsak sistema-akats (politika-sistema akats, alegia) bihurtu nahi dituztenek, argitasun-eskasia berbera erakusten dute. Ene ustez, jakina. Friedmann irakurri behar lukete hainek.

Baina soziologilari izan gabe ere, gauza nabarmena da gizon «abstrakto» horren gezurra. Lur-sustraiak eta aberri-loturak betirako «gaindituak» dauden sentimendu farragarriak omen dira. Hitz batez: gizaro batetan sustraitu beharra ipuin hutsa litzake; edota Mundu Berri Zoriontsu eta Desalienatuaren Jaiotza freinatze-ko aitzekia izkutu eta itsusi bat...

Ez dut uste benetan.

Eta neronek maiz solastatu dudan fenomeno bat aipatuko dut. Atzerrian bizi-beharretan dagoen jende dexente ezagutu ondoren (euskaldunak askotan), gauza bat esan dezaket: errorik gabeko gizon «abstrakto» horrek mito hutsa dirudiela. Errorik gabeko gizona, gunik ezean, ihartu eta hil egiten da. «Orhiko xoria Orhin laket».

Harrigarria litzake honi buruz estadistika batzu izatea, eta ez

ditut. Baina egin aurretik ere, neronek erreparatu dudan fenomenoa beste edonork errepara dezake: atzerrian bizi direnen arteko proportzio haundi batek, barne-oreka zeharo galdu, eta psikiatrarren laguntza behar izaten duela. Emakumeek batez ere. Frantses psikiatra lagun batek aitortzen zidan behin: «J'ai parmi mes clients actuels des Basques que vous connaissez; mais je ne vous dirai pas leurs noms. Vous seriez certainement étonné» (Zuk ezagutzen dituzun euskaldun batzu daude oraingo ene bezeroen artean; baina ez dizut haren izenik esango. Harritu egingo zinake eskierki).

«Diru-egoera txarra»ren bidez dena argitu uste izango luke zenbaitek. Eta, jakina, askotan diru-egoera oso txarra izanik, hein batez azal dezakeala pentsa daiteke. Baina psikiatrarren behar gorritan gertatu diren desherritu aberats batzu ezagutzen ditut.

Bretainarrek inkesta mamitsu bat egin zuten orain dela urte batzu atzerrian bizi diren bretainarrez; eta, oker ez banago, «Ar Vro»n argitara. Eta behin ere ez zaizkit ahaztu ondorioak. Gutxi gora-behera, artikulua ez bait dut hemen, hauek ziren: atzerrian bizi ziren bretainarrak, proportzio bildurgarritan, ardoaren jopu dira; eta proportzio bildurgarritan ere erotu egiten dira. Batez ere «Bretagne bretonnante»ko semeak; alegia, bretaineraz mintzo den Britaina-ko seme direnak.

Zergatik hau guzia?

Erantzuna gauza garbia da, ene ustez; errorik gabeko gizona, errorik gabeko landarea bezalaxe, ihartu egiten da, eta hil. Gizon «abstraktoa»ren teoria, nun-nahi etxekotua eta nun-nahi burruka jeneraletarako gertu, mito hutsa da: fededun berrientzako ipuin hutsa.

Gizonak, biziko bada eta munduarekiko eta bere buruarekiko arrotz izango ez bada, sustraiak behar ditu: sorterri-sustraiak. Gaur arteko zibilizazio zaharrak, gupidarik gabe arrastaka darabilgun zibilizazio madarikatu horrek, gizonari bihotzaren erditik behar duen erroztatzea edo sustraikuntza ematen zion. Eta gizonak «sentidu» bat aurkitu uste zion bere biziari, Naturalezarekiko harremanak atxikitzen zituen, eta sutondoan eskuak berotzea zer zen ba zekien. Ez dut galdutako parabisu bat artikulugai; baina parabisurik lehen izan ez den bezala, geroan ere ez da mamituko.

Gizon abstraktoa, ama duen *teknika*-zibilizazio «aurrerazale» honek, errogabe bihurtzen du, Naturalezatik arras berezten, eta ezinago zoritxarreko egiten. Astakeria guztiz sakon hauen ondo-

rio hilgarriak ozta-ozta hasi dira agertzen: hyppiak, droga, kontestazio guztizkoa. Inoiz baino ageriago bait zaio gazteriarri gure zibilizazio honen beltza, hutsa eta gezurra.

Mundua ez omen da atzera bihurtzen. Baina «atzera» zer den ez dakigu. Soziologiarren ustez, teknika-zibilizazioa, eta dagokion hiri-kuntza edo urbanizazioa, aurrera joango dira, nola-edo-hala. Gaixo bilobak...

Gauza bat ageri zait garbiro, dena dela: ez dakigula zer gertatuko den. Atenas eta Erroma suntsitu egin ziren. Eta Tiahuanaco suntsitu egin zen.

Errorik gabeko gizon «razionala» ihartu eta erotu egiten da; eta errorik gabeko herria, bastartu eta eskastu.

Euskal Herriak ba du oraindik lurtasun-sustrai hori. Otoi: ez dezagun gal. Zibilizazioaren krisia ezin nabarmenagoa da. Krisi horren giltzarriak aurrerapen abstraktoaren eta gizon monokromo, sustraigabe eta abstraktoaren «zorion»aren mitoak izanik, erokeria ezin erogo litzake soziologiariek erroztatu beharrenden alde agertzen direnean, guk des-erroztatzearen alde jokatzeari.

FONFURUAK

(1971-VIII-2)

Ez zait inoiz ahaztuko, nik uste, lehengo eguneko gertakaria. Ba zetorren ekaitza —kasetek esan dutenez, aspaldi honetan ezagutu den bortitzena— eta, zero beruna hurbildu ala, tximistak bertago, eta ozenago bihurtzen zen ihortzirion orroa. Zalantzarik ez zegoen: hodei itsusi haiekin kaskabarra heldu zen.

Orduan, lehendabiziko haize balekin batera, kanpai-hotsa hasi zen etxe-ondoko eliza zaharretik inguruko bazterretara zabaltzen. Kanpaiari haizeak eragiten ziola pentsatu nuen haseran, soinua apala eta jarraikia bait zen, ia-ia metalezko zurrumurru bat. Lehendabiziko jasak hasi ziren orduan, eta kanpai-hotsa beti eten-gabe ari, dei etsian.

Zer oten zen hura galdetu nien alboko etxekoei; eta hauek, jende eskolatua, guztiz lasaiki honela erantzun zidaten: «Kanpai-hotsak gesaldu egiten du kaskabarra, eta euri bihurtzen. Uzta horrela babesturik gertatzen da».

Ez nuen deusik erantzun, ez alde ez aurka. Kanpai-hotsak ordu erdi batez erauntsi zuen hala-hala; eta gero, turmoiak urrundu zirelarik, isiltasuna osoa nagusitu zen bazterrez. Eta, egia aitortzeko, han ez zen kaskabar alerik erori.

Zientiaren arabera ez da ulertzen, noski, kaskabarrik ez sortu horretan kanpai-hotsak ezertxotan ere lagun zezakeanik. Jokabide horretan, beraz, lehen Euskal Herrian oso zabaldua, oso gertakari gogoangarri bat dagoela iruditzen zait. Zeren-eta eskualde hauetako baserritarrak, teknikari eta ekonomiari dagokienez, ez bait dira batere «atzeratuak»; hemen ez da idirik ez mandorik ageri, telebista nun-nahi da ikusten, eta nekazaritzako makina berriak etxe guzietako lanabes dira. Armagnac-eko nekazari jendea, «moderno» da. Kaskoina ere ez da maiz entzuten, eta haurren artean inoiz ez.

Halaz ere, ekaitza hurbil delarik, kanpaiari eragin; eta bai kaskabarra, bai barazuza, bai harria urtuko badira, «fonfuruak» jo behar. Ez 1100-an edo 1700-an bakarrik. Ez. Fraitntzia-ko departamendu aurrerazale eta antiklerikal batetan, telebista-oihan betean entzun ditut nik fonfuruak 1971-an turmoia heldu aurretik. (*Obarra*: Lanne Soubiran-en izkiriataua, Monzon lagun).

Gaurko Gizadiaren berriaren axala, horretara, gauza ageria iruditu zait. Mekanizazioak, «mini»ek eta «midi»ek, eskolak, telebistak, berebilak eman duen kosmopolitismoak eta harat-hunatak, ez dute gizon «zaharra» hil; alegia, Kosmoaren indar izkutuekin mintza daitekeala uste duen gizona. Gizon «zaharrak» makinen artetik ateratzen du burua, askoz ere lehenago harri landuen artetik burua altxa zuen bezala.

Funtsean gizon «zaharra» atxematen da bizirik, eta gizon «berria» behin eta berriz makaldurik, larriturik eta burtzoraturik. Hobeiki esateko: Gizona da bizirik dirauena, eta haren izuak eta esperantzak. Alegia: Kosmoaren aurrean ezintasunean galdurik eta abandonaturik dagoela inolaz ere sistu nahi ez duen gizona. Hauxe da bizi; eta bestea, razionala, herio-suhar.

Atzera ote doaz fonfuruak, eta zegozkien sendimenduak? Baietz erantzun behar dela dirudi. Baina ez zait hau oso gauza segurua iruditzen.

Fonfuruak jotzea atzera doa bere horretan, hau bai. Hain zuzen ere, harritu egin nau ohitura hau bizirik aurkitzeak.

Baina gaurko gizon modernoak, fonfuruak jotzen ez diren hi-

rietan beretan, ez ote ditu fonfuruak bestela jotzen? Ene ustez dudarik ez dago: bai. Eta «bai» oso bat eman behar da. Baina itxura-aldaturik datoz fonfuruak gaur. Bestelako gerizabide magikoak erabiltzen dira. Baina bai helburua, eta bai jokabidearen muina, berberak dira funtsean: Naturalezak gizonarentzako pres-tatu duen zoritxarra magiaren bidez uxatzea, Kosmo etsai hau magiaz adiskidetzeari, behin eta berriz kaskabarra fonfuru baten bidez euri bihurtzea. Gaurko fonfuruak teknika-itxurakoak dira; baina kanpai-hotsaren kide ondorioei buruz... eta garantiei bu-ruz!

Fonfuruak bizi dira.

Eta kakoa ez da iluna, ene ustez, eta ez berriki aurkitua ere: Adimenaren eta Biziaren arteko dialektikak argitzen du dena, baita izan ohi diren gora-beherak. Gure Unamuno aipa liteke me-zu honen iragarle gisa. Baina ba dago haundiagorik ere: Friederich Nietzsche dugu beharbada denetan haundiena.

Oraingo gure zibilizazioan —ez txiripaz Zibernetikaren aita— Adimena nagusi, eta Analisia. Guraso zaharrak fameliatik bota, eta agure-etxe batetara eramatea oso «logikoa» da. Sexotasuna eta sendimendua elkargandik bereztea oso «erosoa» da, pilura batzuk lagun. Kanposantuek agerritik urruntzeak eta disimulatzeak ba-retu egiten du. Gure zibilizazioa profilasiaren eta asepsiaren zibi-lizazio idorra da. Gure zibilizazioa «razionala» da; edo izan na-hi du, hobeki esateko.

Baina gizonarentzako funtsezkoena ez da-izan Zibernetika jain-kosaren araberako «adimen» hotz hori, gizonaren HELBURUEN zerbitzutan erabili behar den zibernetika laguntzailea baizik. Zai-lena ez bait da problema bat askatzea edo garbitzea, problema bat SOMATZEA baizik. Hots, gaur modan dagoen adimena zi-bernetikoa da, analitikoa; eta hortaz BIZIERATIK ETA SINTE-SITIK AT. Gizonaren kakoa, gizonaren patuari sentidu ematen diotena, baloreak dira, helburuak, jatorrien berri ematen duten hitzak. Eta xede hauek ez dira Adimen huts eta hotzaren sor-kari, beste maila batetako bilakizuna baizik.

Zaratustra-ren esanak, gure zibilizazioaren krisiaren salatari, inoiz baino egiago dira gaur; eta Nietzsche, heren profeta heren filosofo heren olerkari (gizon haundi guziak bezala), BIZIAREN mailan mintzo delako, eta BIZIAREN beharren alde deihadarka hotsegin zuelako, 1971-ko igarletarik beharrena da.

Zergatik jotzen dira fonfuruak? Nola uler daiteke Lurde-ko peregrinazio etengabea, ehun urtez isuri ugarian ari? Nola uler daiteke Bernadette Zubiru neskaitilla arlosteak sortutako imajina-industria txundigarria? Nola uler Benares, La Mecca, Compostela edo Jerusalem? Nola konpreni hainbeste intelektual baiko-
rren desliluratzea? Nola azal drogaren hedakunde bildugarria? Nola «Planeta»ren arrakasta?

Ez naiz, noski, fenomenu horien guzieren barne-egiaz arduratzen neure honetan, sortu duten giza-erantzun gaitzaren problemaz baizik.

Ene ustez, gertaera horiek guziok iturri berbera dute: besterik behar du Biziak; gaurko zibilizazioak eskeintzen ez dion zerbait.

Gizonak Kosmoan bakarrik eta alferrik iraungitzen den izakia ez dela sinistu behar bide du. Hau eskeini ez dion zibilizazioa, anitzetan madarikatu du. Eta bihar ere gurea, hau segurutzat daukat, Kosmoarekiko loturak zeharo eten nahi dituelako hain zuzen, madarikatu egingo du; eta «confort» hau eta gainerako hobariak penarik batere gabe basamortuko bakardadean ehortziko.

ZALANTZATAN DAGOEN APAIZ HORRI

(1971-IX-5)

Agur:

Eliza mundutar agertu nahi duen mementoan, apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira. Horra hor dato bat. Igandean mezatara joatea, baita herri txikietan ere, modaz pasatzen ari da; Garizuman lehenago haragi-uztea modaz pasa den bezala. Gurasoekiko errespetua eta amodioa gainbehera doaz; eta European zehar zaharrak ez dira etxen hiltzen, agure-etxeetan baizik. Mendetan zehar sexo-arazoetan gizarte-tabu izan diren erregelak, zaharrak eta erortzen ari dira; eta «beti hala izan dela» esateak ez du gaur egia biltzen, eta hitz eroso bat besterik ez da: arazo honetan benetako «débâcle» bat dago. Hamabi urtetako neska-mutilek argi-eta-garbi esaten dute Jainkorik ez dagoela; eta hamasei-hemezortzirekin (kasu, bai geroen artean ere!) drogaren

beharra nabaitzen hasiko da laister, Ameriketan eta European bezala (Polonia barne!). Ez da ia inor aurkitzen bizitza honetan «bidenabar» gaudela zinki sinisten duenik; eta inoiz Jainkoari bakardadean otoitz egiten duenik aurkitzeko, kandela bat ez litza-ke aski.

Kristau fedea atxikitzen duten fraileek eta serorek ez dute abitua ikusi ere nahi; eta komentua utzi, ezkondu, eta kalean eta kaletar gisa eraman nahi dute Jesukristoren mezua. Dena omen dago gaingitua, «superatua»; eta zutik ez bide da deusik ere geldituko. Zuk zerorrek ere dena utzi, eta mundutar saltsan abiatzeko asmoa izan duzu behin baino gehiagotan; eta deliberoa ere aurki, itxura denez. «Apaiz berri» izan nahi duzu. Nork ez zinduke ulertuko?

Maila honetako krisirik inoiz ezagutu badu, ez du Elizak ezagutu aspaldi honetan horrelako gain-beherakorik; eta agnostiko garenok errepara dezakegu hau Eliza-barneko inork baino hobeki, nik uste. Ez dago aitor honetan hileta jotzeko gogorik batere. Krisia ez bait da instituzio-krisi huts bat, sinistun baikor batzuek sinistarazi nahi luketenaren kontra; Fede-krisi oso bat baizik. Ez da egia predikatzeke «modua» aldatu beharra dagoela, edo ebanjelioa «gaurko» problemen arabera azaldu behar dela, edo Eliza beste modu batera «antolatu» behar dela; eta, BESTERIK GABE, gauzak normal jarriko direla.

Krisia sakonago delako, bai instituzioak, bai morala, bai dena, koloka daude gure begien aurrean. Eta zu zeu ere bildur zera oso; eta ez zinake gaur inolaz ere ausartuko, esate baterako, kalean zehar, are gutxiago gazte-biltzar batetara, Asis-ko Frantses edo Ars-eko Apaizari buruzko liburu bat besapean daukazarik agertzera. Herabe zara kristau fedea, edo gelditzen zaizun azken apur hori, erakusteko. Defentsiban zaude osoki.

Soluzioa politikaren mailan aurkitu uste duzu. Egia esateko: joera hau konprenitzen dut. Ukatu ezina bait da Elizarekiko urrunera politika-mailan sortua dela askotan. Mendi-gaineko sermoia gidaritzat omen duen Eliza, indartsuen morroin agertu da eskuarki; eta indargabeen aldeko nahia, Elizaren kontrako iraultza bihurtzen da errazki. Zuk hau duzu gogoan, sentidu horretako tatxa-pilo esker ga garbitzen lagundu nahi duzu, eta aisa ulertzen zaitut. Baina krisiaren soluzioa, sinistuta egon, ez da politika hutsaren mailakoa, politika-mailan ondorioak izango baditu ere.

Kamaleoia bezala egitea erabaki bide duzu. Alegia: mundutarrak bezala jantzi, mundutarren kezka ez beste onhartu, eta mundutarren nahiak, esperantzak eta helburu nagusiak (denak mundu honetarako, gisa denez) zeure egin. Hitz batez: «modan» jarri nahi duzu, edo jartzeko bezperan zaude. Asmo horretan abiatu, ez zara aurrerakoan beste munduaz mintzatuko, mundu honetaz baizik; eta ez duzu gizonentzako zeruko loria bilatuko, lurreko zoriona baizik. Zure erlijioa horretara politika iraultzaile bihurtuko da; eta zure predikua, mitin ezkertar. Indartsuen laudoriotan eraturako politika lotsagarria egin beharrean, beste muturrera joango zara, baina politikaren mailan beti. Pilatos-en etxean egunero bapo afaldu beharrean, Pilatos-en kontrako iraultza muntatuko duzu. Eta ez da dudarik aldakuntza horretan Kristo-gandik bertago zaudela. Zeure kontzientziaren arabera jokatu duzu.

Nik neuk, era berean, neure barneak esaten didana esango dizut. Federik ez baduzu, Jesukristo galaxien egilea dela eta hil ondoren piztu dela sinisten ez baduzu, ongi egingo duzu molde hori hartuz; nahiz hobeki litzakean aurrerakoan Jesukristoren lekuko gisa ez agertzea. Kristau fedea baldin baduzu, berriz, mundutar moda horietara egokituz gaizki egingo duzu.

Laister Ameriketara joango den emakume gazte bat ezagutu dut berriki. Segurantzia haundiaz eta txit sutsu mintzatu zait kontsumo-gizarte nazkagarri honen kontra; baita 1968-ko Maiatzean izan zuen itxaropen liluragarriaz. Ondoko gertakari hitsak, ordea, ilundu egin zuten, etsiarazi, eta betirako markatu. Partidu «guziek» saldu zuten iraultza orain dela hiru urteko aste gogoangarri haietan, eta denak zaku berean sartu beharra dago. Guztiz gogaituta, ameriketar talde iraultzaile batetara biltzea erabaki du senarrarekin eta haurrarekin; iraultza USA-n gertatuko bait da aurrenik. (*Obarra*: Mitterrand-en errainaz mintzo nintzen).

Zein iraultzaz mintzo da? Bi puntu nagusitara bil daiteke, ene ustez, emakume honen helburua: 1/ gaurko gizartean ez dago «maitasunik», zion ermuki; 2/ gaurko gizartean dena da «zikoizkeria» eta «txatxukeria». Mundu berri bat behar da, EGIAK argitua eta MAITASUNAK oratua. Helburu honi instituzio «guziek» egin diote uko. Gizarte osoa dago ustelduta, eta organizazioak «oro», baita ezkertar izenekoak ere, zeharo ondoratuta. Ihes egin behar da Fraintzia-tik, ihes Europa osotik, ihes

kontsumo-gizartetik, ihes orain arteko sasi-profeta guziei. Nora ihes?

Aspaldian hau zitzakean erantzuna: «basamortura». Gaur ez: «Ameriketara», esan zuen ene lagunak. Nahikunde metafisiko bati, erantzun politiko bat eman dio, erantzun alienatu bat beraz. Ameriketara-zion; Erresuma Elkartuetara hain zuzen; euskaldun zaharrek bezala esateko, «artaina burutik usteltzen hasten delako», eta kontsumo-gizarte honen burua USA delako.

Emakume horren desiretan eta etsipenetan ez dakusat sendimendu nahasirik edo funsgaberik. Beregan somatu dudan iraultza-garra fina da; USA-ko arrazakeria eta beltzen zoritxarra kondenatzeko erabili dituen hitzak, bidezko zaizkit oso; G. Jackson-en gartzelaldi ezin lotsagarriago eta heriotza bitxia gaitzesteko, edozein gizon prestuk erabiliko lituzkean hitzak eta arrazoinak aurkitu ditu; gidari harturik dituenak (Sartre, Angela Davis, Che Guevara, Jackson bera) gizon bikainak dira. Emakume hau, zinez, justizia-egarriak itota dago; egiazki dio kontsumo-gizarte doilor hau uzkailei eta hankaz gora bota behar dela.

Jende askoren azterpidea, iruditzen zaidanez, eta gazte prestu fin askorena bereziki, horixe litzake gutxi gora-behera; eta gure artean molde honetako pentsakera gaur lehen baino zabalago izatea, oso seriotan hartu behar da, altxor bikain bat delako gure gerorako.

Kontsumo-gizartearen GORAGALEA, eta berean nagusi eta jabe diren zapaltzaileekiko GORROTOA, az dira sendimendu berri bat; eta zuk, apaiza izanik, ba dakizu Jesukristok MADARIKATU egin zituela bai aberatsak bai farre-egiten dutenak. Baina horiek gaur, nik uste, sendimendu zabalago, egiazkoago eta hedatuago dira. Etsipen etsiaren zabalkunde bildurgarriak ez du, erroan, besterik erakusten: gu ohitu egin bide gara lohiaga kirats honetan, baina gure begien aurrean mamitzen ari den mundu-mota bizi ezina da bere horretan.

Areago ere bai: ezagutu dudan emakume horrengan; eta politikaz etsi, beren ezintasunaz jabetu, eta drogatzen hasten direnengan, akuilu berbera bide da eragile: kontsumo-gizarte honi ihes egin nahi, baina ezin egitea. Hippy delakoek eta USA-ko ezker berriak elkarrekin lotura izatea, normala iruditzen zait: hauek eta haiek mundu hau gainditu nahi duten gizakumeak dira, eta sentidu horretan ezkertar. Besteak, mundua bere horre-

tan baliatu eta uxtiatu nahi dutenak, eskuindarrak, pozik bizi dira kontsumo-gizartean; eta ihes egin beharrik ez dute senditzen.

Hots, zein da gaurko gizadiaren ihesi-nahiaren kakoa? Hemen, iruditzen zaidenez, batera letozke psikologoak eta soziologoak, literatura-joeren aztertzaileak eta zu zerori ere: ez datza kakoa mekanizazio edo automatizazioan bertan, ez teknikaren aurrerapenetan, ez baserria eta mendia utzi-beharrean, ez gizartearen hirikuntzan, ez klase-banaketan eta ekonomi-desberdintasun lotsagarrietan beretan. Kakoa bizierari SENTIDURIK EZIN AURKITZEAN DATZA.

Max Weber-ek bezala esateko, mundua «desliluratuta» gelditu zaigu, «désenchanté, desencantado». Kritikamenak hoztu egin du mundua, erantzi, kamustu, itsustu, lilura-gabetu. Eta haragia zeharo larrutu ondoren, hezur iharrak azaldu zaizkigu gorri-gorri; eta kosmoan arrotzak gabela ulertu dugu. Ikaspen honek areago ukatu gaitu naturalezatik, dirudienez, lehenagoko soineko eta estalki koloretsu eta gezurtatzaile haiek baino... Bizieraren sentidua emateko balio ez duen egia, Egia ez bait litzan...

Sexotasunari buruz gertatu dena iruditzen zait gizarte-eboluzioaren eredu on bat: sexo-gorabehereri misterioa eta izkutukia kendu ala (eta eranzketa fenomenoaren neurria da) egoera txartu egin da; eta sexoari buruzko liberazioak ugaltu egin du neurotikoen armada, antibiotikoez minbizidunen ostea ugaltu duen bezelaxe. Giza-sexotasuna, bestalde, kontsumo-gai bihurtuz, glandula-mekanika axaleko bilakatu da; eta urrats honi datxekon deslilurari, barne-hutsunea jarraitu zaio. Sexo-liberazio deritzanak, horretara, agertu egin du giza-egarriaren bestetasun funtsezkoa, eta ez ematu. Tabuaren zapalckerari, taburik ezaren desesperantza nagusitu zaio; eta lilura debekatu urrunari, deslilura gogaikarri ezin hurbilagoa. Sexotasunean funtsatzen zen guzia, eta arimaren elikatzaile ziren iturri freskoak, idortu egin dira.

Arrabotsa eta zalaparta gero eta beharrago zaizkio horrela gizon modernoari.

Ba dirudi, hitz batez, gaurko deslilura oso horrek bi aurpegi duela: bata misterioaren suntsiera, bestea bizieraren sentidurik eza.

Hots, batetik misterioan funtsaturik eman behar da munduaren azalpena, gauza nabarmena bait da mundua OSOKI dela misterio hutsa. Iritzi hau batzutan inkontzientea izanagatik ere, mui-

netan beretan iltzaturik darama gizonak: astrologiaren eta «Planeta»ren arrakastak lekuko.

Eta, bestetik, misterio horretan eraturik, gizonak helburu eder zabal bat behar du gidari, Absolutu bat, eta honen arabera bizierari sentidu bat eman.

Itzul gaitezen, beraz, orain zure asmora.

Zuk, adiskide ezezagun horrek, mezu bat dakarzu; eta mezu horretan misterioa eta bizieraren sentidua dira oinharri. Gaiari dagokionez, beraz, seguru egon zaitez: gizonak behar duen HIZKUNTZAZ mintzo zara misterio eta sentidu horietaz mintzo zaren guzietan. Eta, alderantziz misterioa eta bizieraren azken azalpena alde batera utziko dituzun neurrian, gizonak behar duen hizkuntzatik urrunduko zara.

Pilatos-en alde jokatzek ez du barkaziorik. Hau garbi da. Baina Pilatos-en kontra, eta Pilatos-en mailan kontra, jokatzek ez da aski besterik gabe, trazendentzia-mezu orokor berezi baten ondorio ez bada. Pilatos ez da ebanjelioaren arazoa; eta Pilatos-en defentsa, noski, are gutxiago. Beste modu batera esateko: mundutar moldera aldatu ala, zure mezuaren balioa galduko da; eta «ulergarriago» edo «baliagarriago» egin ala, ezabatu egingo da trazendentzi-mezu gisa.

Ez da egia zure mezua funtsean moral-mezu huts baten mezua denik: estoikoen moralak ez dio zorrik kristauenari gogorrez, ez zorrotzez. Zure mezuaren indarra honetan datza nik uste: gizonak barne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela.

«Apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira» esanez hasi dut artikulua. Baina hau erants liteke ene ustez: apaizak mundutarrago, eta elizak hutsago. Horretan kausa/ondorio bikotea ikusi uste dut.

Mintza zaitez zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkizu faltako; Absolutu-egarria ez bait da gaur inoiz baino apalagoa.

Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzei entzungor egiteko kuraia. Izan zaitez ulertu-ezina.

Ala konkordismoak utz, eta uztazu dena.

Bihotzez agur t'erdi.

TABU ETA MITOLOGIA

(1972-VII-15)

Maiatzean argitara den «Cuadernos para el Diálogo»aren XXX-gn.alean, bi artikulu luze datoz ezkontzari eta dibortzioari buruz; eta orain arte gure gizartean tabu izan den gai hori (legearen mailan, bestalde, horretantxe dago) argi-eta-garbi aztertzen da.

Ia horrekin batera, X. Kintana-ren «Behin Batean» azken liburua irakurri dut. Eta gainerako atalak, eta «Ukronia»ko errazkeriak batez ere, neure gogokoak izan ez ditudala aitortu behar badut ere, «Amore Maite» delakoa biziki istimatu dudala esan nahi nuke. Hots, Kintanak kapitulu horretan agertzen duen pentsakera-joera orain arteko tabu batzuen kontra artez doala gauza ageria da.

Setsu-harremanen arazoa, honetaz ez da dudarik, giroan dago.

Oraintxe, Uztailan, Metz-en izan den «LIX Semaine Sociale» delakoak ezkontza eta maitasuna izan ditu aztergaitzat; eta intelektual katolikuak berak, kasetetan irakurri dugunez, argiro eta lasai mintzatu dira setsutasunari buruzko gorabeheraz. Aspaldiko partez...

Sail honetan, beraz, badago liberazio bat. Eta oskurantista ez garen guztiok jotzen dugu txalo. Hain zuzen ere guk geuk, orain dela gutxi arte iraun duen tabu-giroa ezagutu eta jasan dugunok, jotzen dugu txalo gogozenik.

Ezen Erdi-Haroko atso zahar, agure edo senton ez garenok ere (berrogei bat urte izatea aski) tabu-giro hori osorik ezagutu baitugu. Orain dela oso urte gutxi arte, ezkontzaz eta maitasunaz hauxe zen erakasten zitzaiguna (ezkontzaren helburuak, alegia, nagusitik axialera):

- 1/ Jainkoari haurrak ematea;
- 2/ haragikeriaren kontrako babespeide lortzea;
- 3/ elkar-laguntza ematea.

Jasan dugun moral horren arabera, hortaz, setsutasuna eta maitasuna berezita zeuden. Setsutasuna haurrak izateko ez bestetarako erabil zitekean. Zenbat haur? Berriz ere berezkunde bat: setsua batetik, burua bestetik: nola gerta. Galdera bera pekatu: Jainkoak eman hainbat, bost, bederatzi, hamazazpi... Setsutasunak ez zuen helburu aipagarri bakar bat baizik: haurrak ematea.

Bigarren puntuan, halere, eta ikus dezakezunez, bazegoen setsutasunarekin zer-ikusia zuen beste helburu bat. Baina berau ere ez zen maitasunari buruzkoa, haragikeriaren («keria», jakina!) kontrako babesa izatea baizik. Alegia: setsutasunaren lohikerietatik, satsukerietatik, zikinkerietatik eta likiskerietatik ihes egiteko bide gisa.

Zeharo tabuak elikatzen zuen pentsakera hori gainbehera joatea, txalotu besterik ez da egin behar. Hau gauza ageria da. Nahiz kontzientziaren eta filosofiaren mailan moral-zarrakaera horrek askori ekarri dizkion kezkek eta zalantzak oso larri izan.

Metz-ko bilkuretan, esate baterako, setsuaren atseginak eta amatasuna elkargandik berezita presentatu dira. Eta, alderantziz, atsegina eta sendimendua elkarturik, baita elkarren elikatzailerik eta oinarri gisa. Ezkontza-aurreko setsu-harremanak berak, gaur arte madarikazio iturri, sendimenduak azkar erroturik eta datozkeen ondorioez bikoteak zinez jabeturik daudelarik, ez dituzte kristau moralista guztiek besterik gabe kondenatu.

Hau guztia urrats gaitza da; baina, berriz ere, argia kanpotik etorri bide da Elizara, giza-askatasunaren sail hau jainkogabeek bultzatu dute, eta argi-egile ofizialen aurka ari da baztertzen oskurantismoa arazo garrantzitsu honetan. Argia behin eta berriz Ilunpeetatik bide dator. Ez da xehetasun apur bat, eta gazteek erreparatu egiten dute.

Problema honetan, beraz, gainerakoetan bezala, farisauek maitate dituzten erregela eta agindu jeneraletatik urrundu, eta gizonari dagokion erantzukizunaren moralera ari gara pasatzen. Moralak gizonaren errespetua izan behar du oinarri, eta ez funtsik gabeko tabuak eta hertsikeri ilunak. Moralak, euskarazko hitz berriak egokiro dioen bezala, «gizabidea» izan behar du.

Setsutasunaren arazo hauei gagozkielarik, hortaz, *emakumearen errespetua* izan behar gidari nagusia; eta, hala nahi izan denean, datozkeen hurrekikoa. Eskubide osoa du emakumeak (gizonak ere bai, noski; baina emakumeak izan ohi du gaurko bikotean, gizartearen eta izadiaren aldetik, egoerarik ahulena) maitasunean eta setsutasunean bere nortasuna begiratzeko eta osatzeko; eta haren sendimenduek eta nahirik sakonenen errespetu osoa merezi dute. Hauxe da freinu bakarra, ene ustez. Emakumea ez da arraren jostailu bat, pertsona bat baizik. Setsu-harremanetan, haurrik etorriko ez bada ere (eta gauza ageria da

gaur setsutasuna eta amatasuna bi gauza desberdin izan daitezkeala) emakumearen sendimenduen begiramendua dago gailen. Gizonok hau aitortzea bidezko da. Maitasuneko harremanetan bi parte daude, ez bat; eta bion zinezko adostasunetik at ez dago setsu-zapalketa besterik. Adostasunean, berriz, tabuak erauzi behar.

«Macho ibérico» negargarriaren ipuinak zeharo baztertu beharra dago gure aldetik. Eta aski lan! Gizona eta emakumea BI PERTSONA dira; ez pertsona bat eta «majefesa» bat. Emakumeak bere dei berezia du emakume gisa, ez arraren eraskin gisa. Mahomet-ek esan omen zuenez, gizonak sartzen dira Alah-ren zerura; eta emakumeen loria... gizonen loria betestean omen datza! Mahomet-ek horrelakorik esan ez bazuen ere, oso sarturik daude Euskal Herrian tankera horretako iritziak.

Setsutasuna «a-priori»ko tabuetatik liberatzea, horretara, guztiz beharrezkoa zen; eta oraindik ere lan gaitza dago sail horretan, ia dena eginkizun dagoelako. Jokabide burugabeak nagusi dira oraindik; eta funtsik ez duten debekuek eta ikarek arrunt betetzen dituzte gizonen eta emakumeen arteko harremanak. Sail horretan gure gizartea arras bizi da oraindik errutasun-komplejo arkaiko, oso eta nabarmenean. Ezer ez da zilegi; baina, batera, emakumea ohera edo sukaldera.

Badirudi, halere, batzuk ikusita bederen, tabu horiek hankaz gora botatzeko, beste mitologia berri bat eraiki beharra legokeala. Eta setsu-liberazio gisa, beste mito bat proposatzen da: alegia, emakumearentzat gizon kaskarinaren «superazioak» eskaintzen dira.

Hots, gizona eta emakumea ez dira berdinak; eta izanari dagokion parte ez du kultura-iraultza batek aldatuko. Nietzschegandik hasi, eta Freud-ek, Hesnard-ek, Simone de Beauvoir-ek berak («Le Deuxième Sexe» ikus) funtsezko liferentzia hori nabarmenerazi dute. Emakumeak BESTELA irizten die setsutasanari eta maitasunari; eta erotikako bestetasun hori oso kontutan hartzen ez duten teoriak, emakumea berriz kateatuko dute beste muturretik.

Oso arazo zaila da hau, jakina. Izadiak eta Kulturak, giza-izanak eta gizarte-kutsuak elkarrekiko muga nun duten asmatzea baita kakoa.

On da, halere, tabu-girotik irteten hastea.

Eta, ahalean, mitologia berririk gabe jokabide egokiagoak bi-
latzen saiatzea.

SELFRIDGE ETA VISHNU

(1973-IV-13)

Hotz zen Urtarrileko goiz goibel lanotsu hartan. Baina Ox-
ford Street-eko Saltoki nagusietan ez zen liferentziarik ageri; go-
ra eta behera pilatzen ziren jende multzoak, eta bi estaiatako
autobus gorri ezagunek etengabe kurritzen zuten Londresko kale
koloretsua. Bruselako Rue Neuve, Bordaleko Ste. Cathérine edo
Antwerpen-go Meir bezala, Londresko Oxford Street kontsumo-
zibilizazioaren ikurtzat har daiteke: Selfridge magasin gaitzetik
azken dendatxoraino helburu bakar bat bazterretan: nola gehia-
go sal.

Eta horretan nintzela, hastapenetan izuti, gero eta ozenago,
joan-etorriaren orroa etengabea piskanaka gailentzen ari, txilin
hotsa entzun nuen Ekaldetik. Gazte talde bat zetorren, hamar
bat neska mutilek osatua. Neskek paperak eta liburuskak eskain-
tzen zituzten. Mutilak, berriz, dantzan eta kantari zetozen. Bu-
rua soil zeramaten, Saigongo bonzoek herrikoiei egin duten itxu-
ran gutxi gora-behera; eta denengan, buruaren atzekaldean zin-
tzilik, txintxosta ñimiño gisa, ile mordoxka bat ageri zen aidean
jauzkari. Gerrien parean loturik, atabaltzar harrigarriak zekazki-
ten; eta hatsaren lurrinari jaramonik egin gabe, Indiako erdi-
soineko laranjaz ez bestez jantzirik, alai ekiten zioten beren kan-
ta-dantza azkengabeari.

Ikusleei ematen zieten kaseta bitxia hartu nuen. Letra han-
ditan: «Back to Godhead». Eta txikiagotan: «The Magazine of
the Hare Krishna Movement» (n.º 47!). Neska gonaluze bat on-
dora zitzaidan, eta irribarrez tarjetatxo bat eman zidan: «You
are cordially invited to the Rādhā Krishna Temple - 7, Bury
Place - Bloomsbury, W.C.1, London».

Txundituta gelditu nintzen. Selfridge-enetik metro batzutara,
Vishnu-ren mezua neukan eskuetan! Gazte haien barne-ausardia!
Eta taldea dantza, eta dantza, eta taigabe dantza; eta kanta bera
ari, nik uste:

«Hare Krishna,
Hare Krishna,
Krishna, Krishna,
Hare Hare».

Arthur Köstler irakurri ondoren, nekez sinets daiteke India sinestun zoragarrian. Baina gazte haiek ikusita, Asiako India egiazkoan zeharo bederen sinesterik ez badago ere, geure barruan darabagun India horretan sinetsi nuen. Eta gazte haien mezu kementsuak nigan oihartzun harrigarriak lortzen zituela erreparatu nuen. «Retour du refoulé» ote? Ez dakit. Baina gazte burusoil laranjatsu haiek goiz hartan ematen zuten lekukotasunak, barne-muinetan ikutzen zuen. Neska-mutil haiek dantzan eta kantuz ari, kontsumoaren erdigunean bertan esaten baitzioten «utikan» kontsumo zibilizazio harroputz huts honi.

Beti miretsi ditut egiazko «provo»ak, beren buruz «provo» direnak, alegia; «correcto»ak, aprobetxategiak, modakoiak, eta «haizeak nora zapiak hara» moduko gizonak betidanik ere mespretxatu eta mespretxatzen ditudan bezala. Ez ditut kamaleoiak maite! Oxford Street-eko talde hura, horretara, oso gogoko nuen. Aitor dut.

Gure segurantzi giro ustelean, egiazko ostikoak iruditu zitzaizkidan aldizkariaren ekarriak. Azalean, perlaz eta pitxiz ederturik (josirik hobe!) heriotzatik libratzen duen «soma» famatua neskatala bat txirla batetarik edaten ari. Liburuskaren barruan, berriz, Vishnuisten bilduma txiki bat: irudi batetan Krishna xirula jotzen ari; anitz fototan ageri, bestalde, «His Divine Grace A.C. Bhaktivedanta Swami Prabhupāda» jauna, gaur Krishnaren lekuko nagusia ageri denez; orrialde oso bat «Yoga» eta «Bhāgavad-Gītā»ren azken argitaraketan berri emateko...

Hindutar ebanjelioa den «Bhāgavad-Gītā»ren aipamenak topatu nituen erruz, han eta hemen; eta denok iruditu zitzaizkidan «mini-skirt» eta takoi nabarmenen Londresen (eta Donostian eta Iruñen) probokazio eta kitzika huts: «Krishna Mogimendua Pertsona Absolutuaren ZIENTZI-hurbilkera bat da... Alimaleen EKONOMI-beharrak gureak bezain inportanteak dira... Prestuki jokatu beharra dago, HURRENGO BIZIAN jaiotza on bat izateko... Krishna berbera mintzatu zaio gizonari BIBLIAN eta Koranen»... Eta abar.

Gaurko teknikeriaren salaketa («māyā»ren ekarle delako, li-

lura, ALIENAZIO ekarle delako) aurkitu nuen; eta hinduista heterodotso baina guztiz aparta izan zen Gandhiz oroitu nintzen; bai hartaz, bai gaurko Vinoba Bhave harrigarriaz; bai hindutar izpiritu-gidari guztiak, Vedaren eraginaz, gaurtxe arte munduari eta zibilizazio teknikari atxiki dioten mespretxu osoaz.

Batzutan Marco Aurelioz oroitu nintzen: «Egintzaz beraz ardua hadi —zion Krishnak, Vishnu-ren azken gizagundeak— eta ez behin ere egintza horren bitartez izan dituzkean fruituez»...

Eta «Anti-Düring» gehiegi, eta «Bhâgavad-Gītā» gutxiegi irakurtzen direla ulertu nuen; eta honetan ez dagoela zer pozturik, ez zer loriaturik. Gizona eta gizonaren egarriak ez baitira atzo agertu. Eta gaurko hazkurri eta edariek okegin arte biguinduko baitute laister: sei Krishna-biltoki Alemanian, bost Britainia Nagusian, lau Frantzia, bat Belgikan, bat Holandan, dozenaka Ameriketako Erresuma Elkartuetan...

Oxford Street-eko gazte-multzo hura, horrela, geroaren aitzindari argitsua iruditu zitzaidan, eta ez ihartutako mundu zaharkote baten azken arrastoa. «Sanâtana Dharma» zaharra xehetasunetan xuxena ez bada ere, egia da funtsean; eta hurrengo ideï-mogimenduaren iragarle batzu ezagutu nituela segur izan nintzen.

Gaurko filosofia batzutan, alderantziz, funtsean gezurra direla esan behar da, nahiz xehetasunetan egia izan.

Oraindik ere horrela, txilinak orroan gailen eta dantza etengabea, talde hura neure barruan gogoratzen dudalarik, sinbolo bat ikusi nuela iruditzen zait: gazte haiek ez zihoazen Selfridge-ra, baina Selfridge-tik itzultzen baizik.

OLERKI ETA ILUNPE

(1973-II-21)

Badakit: «horra hor erromantiko porrokatuok berriz ere ilunpeen alde mintzatzen ari. Betorkigu argia, eta urra biltza honek atzerakeriaren azken errezelak».

Gauza ezaguna baita ilunpeak maite zituztela erromantikoek: Erdi-Haroa zuten gogoko, ostarteko ilargi zurbila, lanbrotan hislatzen den gaztelua, itsasoaz bestalde ahaztutako herri urruna,

galtzear zen ohitura edo ipuin zaharra... Erromantikoa, fosil- biltzaile. Hein batez bederen argitasuna gaitzi zaio erromantikoari. Alde honetatik, beraz, Turner da, eta osoki izan, erromantikoen margolaria. Erromantiko guztiek maite dute Turner-en giro lanotsua.

«Zer derasa, beraz, Larresoro belaska horrek?»...

Eta nik arrapostu: «Egia ote da ilunpeen aldeko joerak oro direla erromantizismo merke eta atzerakeria huts? Ez dakit».

Orain dela gutxi, hain zuzen, Barojaz mintzatu nintzelarik, argiaren eta ilunaren arteko hauzi zahar hori ikutu nuen; ezen Barojak, euskaldun anitzek bezala, fjordoetako argitasun epela nahiago baitzuen, Kreta-ko edo Rodas-ko zero urdin argitsu arazta baino. Era nik neuk ere bai: ez dut ukatzen.

Ez dakit zein olerkarik, bide beretik mintzo, hau esan zuen behin gutxi gora-behera: «Dès que le soleil apparaît, la poésie s'en va» (alegia, eguzkia agertu orduko olerkiak alde).

Hots, eguzkiak, eguzkiak berak, eguzki ederrak berak, uxatzen baldin badu olerkia, zer egin dezakete erotismoaren «teknokratek» maitasunari eta setsutasunari dagokien olerkia erotik hondatu eta suntsi arazi baizik? Munduaren xarma hondatzen baldin badu eguzki dirdaitsuak (eta ni ez nago uste horretatik urruti), zer ez du pornografia nabarmenak hondatzen, lardazkatzen eta likistutzen?

Aste berean ikusiak ditut «Le Dernier Tango à Paris» eta Carpentier-en Agiria («Le tract du Dr. Carpentier»). Eta bion egokiera horrek ideia bakar bat gogorazi dit: eguzkiak berak honda badezake olerkia, oso «modan» dagoen joera porno honek birrindu egingo ditu, funditu, desegin, olerkia eta olerkiaren muina bera, lur-barnean apika atxik zezaketen azken zaintxoak berak bortizki erauziz.

«Le Dernier Tango à Paris» ikusi dut, bai; eta, besterik gabe eta argi-eta-garbi, oso pelikula txarra ikusi dudala iruditzen zait, atsekabea, itsusia, olerkirik gabea; eta Marlon Brando-k bere ize naz eta itzalaz pornografi-saio bat gerizatu duela. Ausardia gauza bat baita, eta itsuskeria eta gusto txarra beste gauza bat. «Le Dernier Tango» delakoa bordeletako lore kirats bat da, bordeletan ez bestetan erakusteko egokia. Eza? Tira, tira, mutilak! Ez gaitezen (berriz ere!) «moda»ren jopu izan!

Carpentier-en Agiria irakurri dut behin eta berriz; eta ez diot funtsik aurkitzen. «Homosetsualidadea arbuiatzeko arrazoinik ez dagoela» dio; «badirudiela (sic) setsu-harremanetan atsegintsuenak bi setsu desberdinen artekoak direla»... «errobera egiteak ordu-beteko klase-arte hutsa edo arrastiri aspergarria bete ditzakeela»... «'normal' eta 'anormal' hitzei dagokien mamia ez dela ezertan funtsatua... Setsu-ekintza guztietan gauza bakar batek duela munta: senditzen den gogoia eta lortzen den atsegina»; eta «askatasunik handienak gidatu behar dituela gure hautuak»... «ez dagoela anormalik ezer»...

Beste hitz batez, eta buru-muinari gagozkiola, hau itzuliko genuke: adimenaren erabilkera 'normal' eta 'anormal' zer den ez dakigula. Erabili egin behar dela adimena: hauxe dela dena. Hil berria den Frank Costello-k bezala edo Che Guevara-k bezala erabiltzea, ez zaigula axola...

Eta ekiten du Carpentier-en paperak: «Paper honek helburu hau du: setsu-ekintza guztiak (sic) bultzatzea».

Kama Sutra liburua, era berean, modan dago.

Hitz batez, setsu-arazoetan ere teknokratak mintzo zaizkigu ozenki, eta gainerakoak isiltzen. Olerkariak isiltzen bereziki.

Hots, olerkariak isiltzen diren herrietan, laister heldu da isil osoa; olerkiaren amaia azken ilunpeen sarreraren aitzindaria delako.

Buruz eta frantsesez eman beharko ditut, zoritxarrez, arabitar olerkari haren esakun bikaina: «la sexualité n'apparaît que lorsque l'érotisme est mort» (setsuaren alderdia ez da erotismo-giroa hil ondora arte agertzen). Filma horiek, ordea, Agiri horiek eta setsuaren teknikeria horiek oro, maitasunaren eta erotismoaren hilberria barreiatzen dute, eta ez inundik ere atsegin berrien eta egiazko maitasunen hastapenik edo gorengorik batere. Higuinak sortzen ditu horrelakoak; ez liberatu-nahiak, ez «gorago» iritsizanak.

Ez dut, beraz, «moda»ko joera «berri» horien ARINKERIA salatuko (nahiz honetaz ere zer esana franko balegokean ere). Ez dut «moda»ko joera «liberatzailerik» (??) horien GEZURRA agerrera; ez baitago inon ideia horien arabera eraikitako gizarterik, ez zoriontsurik ez zoritxarrekorik. Ez dut «moda»ko joera horien DIRU-ALDERDIA azalduko; gauza ageria baita telebistak hil duela zinea (edo zine arrunt erraza behintzat), eta zinemaren

kapitalistek ez dutela pornografiaz beste biderik jendea erakartze-ko. Ez dut, azkenik, joera horien MORALIK EZA aipatuko (zein moralen arabera egingo nuke?); gure kapitalista gizarteotan, gainera, gizon osoarekiko errespetuaren arrastorik ez izanik, moralik ez baitago batere, eta diru-hirrika moralgabea baizik nun-nahi eta zer-nahitan gidari baita.

Joera porno horietan, beraz, beste zerbait salatu nahi dut: GIZONAREN DESIRKUNDEEN ETA LILUREN EZAGUERARIK EZA.

Eguzkiak berak baldin badu olerkia lekutzen eta hiltzen, zer egiten du hartaz pornografiak? Hauxe izango da gaurko ene galdera bakarra. Pornografiaz bestaldera heriotza dago, besterik ez. Gauza ezaguna da setsu-arazoak, gizatar barnerik ez duenean, HE-RIOTZARA, suizidiora alegia, daramala.

Erotismoaren kezka eta beharrak setsutasunaren teknika-mailan konpondu nahi eta uste dituztenak... ongi jaiok daude! Ez dute halakoek biziaren esperentzi ikaragarririk erakusten, alajainkoa! Erotismoa, atsegin-egarria, elkargana beharra, olerki-sena funtsean ene ustez, igurzketa-moldeen teknika huts bihurtu nahia, ez da oso... oso argitsua! Teknika guztiak eta igurzketa-mota guztiak baino aisa inportanteago eta eragileago baitira, erotismo hutsaren mailan, barne-egoera, sendimenduen azkarra, eta, hitz batez, gaur horren mespretxagarri bilakatu den «maite-min» famatu hori.

Askoz ere zorrozkiago somatu zituen gauzak Buddhak orain dela 25 mende; eta erotismoa eta atsegin-haro liluragarri hori IRUDIMENARI eta BARNE-EGOERARI dagokiela esan zuen.

Gaurko azterketa hotzak, horretara —eta pornografiak zer esanik ez— IRUDIMENARI bidea hesten dion neurrian (eta Joxe Antonio Artzek ez du besterik esan bere olerkietako batetan) atseginaren eta erotismo-giroaren beraren HILTZAILE gertatzen da; eta ez inolaz ere haren azkartzaile edo akuilatzzaile.

Teknokrazia edozertan txarra baldin bada, setsu-arazoetan txarra eta hilgarria da segurki. Honek ez du dudarik.

Otoi, beraz! Erotismoaren ederra eta olerkia maite dituzuenok (olerki soila maite duzuenok aski litzake!): izan zazue kuraia, eta esazue enekin: «EZ! Ask! da. Modan ez egoteko bildurrak ez gaitzala gal».

Aski baita; eta maila horretan Olerkiaren, Poesiaren, ilunpe eta argitasun epel sakratuak errespetarazteko deia egiteko unea iritxi baitzaigu.

Jasan moral oskurantista zapaltzaileari, dudarik gabe: EZ OSOA!

Baina modako arinkeriei, nabarmenkeria itsusiei, gezur alienatzaileei, axaleko sasi-argitasunei, OLERKIAREN IZENEAN BEDEREN: EZ!!

ZINEMAREN JOERA

(1974-VI-16)

Parisen izana naiz berriki. Eta zalantzarik gabe zinemaren joera harrigarri gertatzen da hain nabarmen topaturik. Zinemaren aldakuntza, edo zinemaren nabarmenkuntza hobeki esateko, ez baita betiko kontua. Ez, ez. Zinemak porno alde horretara orain jotzen du gero eta lotsagabekiago; eta nekez uka daiteke nabarmenkeria horrek harritu egiten duela. Joera berri hori muga ondoko Miarritze eta Hendaiaiko zineman joera dela esatea ez da bidezkoa. Europako hiri handi guztietan (hiri handietan, nik us-te, txikietan baino gizarte-freinu txikiago delako) joera berbera errepara baitaiteke.

Gaurko modaren arabera mintzatzekotan joera hori gauza «ona» dela esan behar omen da; setsu-konplejoak galtzen hasiak garela, kopetaz zabalago garela, eta abar. Hots, orain dela urtebetetsu idatzi nuena berretzeko arriskua ezaguturik ere (ikus ene «Olerki eta Ilunpe», 1973-III) kontrako neure iritzia eman nahi nuke aste honetan hemen; eta ahalean funtsatu.

Aski da Pariseko «Semaine de Paris» erostea, eta zinema-areto guztietako filmen kondua egitea. Hauxe egin dut nik artikulua hau prestatzean; eta hona hemen aurkitu ditudan zenbakiak. Aste hauetan 52 filma porno ematen ziren Parisen («sexy-érotiques» alegia, nahiz filma horiek askotan zeharo izan anti-erotiko...).

Kopuru hori handia izanik ere, egiaren parte bat baizik ez du erakusten. «Les Valseuses» filma, esate baterako, «comédie dramatique» gisa agertzen da zinema-astekari horretan; «Toute nudité sera châtiée» delakoa, berriz, «drame» gisa; eta irakurle guz-

तिक ezagutzen duten «Le dernier tango à Paris» famatua, «comédie dramatique» gisa. Harek guztiak kondatuz, beraz (alegia, 18 urtetara arte debekaturik daudenak, nolapait bigarren sail hau mugatzeko) beste 77 filma konda daitezke erdi-pornoen artean.

Hitz batez, aste hauetan Pariseko 129 *zinematan* ematen ziren filmak, edo porno ziren ofizialki («sexyérotique») edo erdi-porno bederen.

Edonori gogora datorkion galdera, horretara, hauxe da: «liberatu» egin ahal da zinema, askatu alegia; ala «alienatu» egin ahal da? Konplejoak gainditzen ari gara, ala dena gainditu-nahi horretan geure burua beste era batetara txirotzen eta kateatzen?

Ene erantzuna ez da zalantzakoa: zinemaren joera hori, kapitalista batzuen irabazpide berri izanaz gain, modako alienabide eta desgizabide berri bat baizik ez da.

Errespetu txikiegia izan behar zaio gizonari (gizasemei buruz hau egia izanik, zer esango emakumei buruz!) zinema-mota hau inoren aberasgarri gerta daitekeela pentsatzeko. Azken funtsean noiztanik dira «etxe hetxiak» bisitatzailen frustrazio-bidez besterik? Non dira mundutar esperentzia apur bat bederen izan eta hauxe aitortzen ez dutenak? Noiz idatzi izan da inon bizioa (eta setsu-saiheskeriak bereziki) gizonaren aberasgarri direnik?

Berriro ere aipatuko dut arabitar olerkari haren esakun zorrotza: «setsutasuna bera abiatuz geroztik, erotismo kitto». Hots, arabitar olerkari haren gizona eta amodioa zer diren ongi zekien; baina pornoak ezerean «gaindi-bide» izan daitezkeela uste dutenek ezer ez dakite gizonaren egiazko egarriaz, ezta egiazko Eros-ez ere. Ezen Eros ez baita (eta hau esanez Marcuse-rekin ados mintzo naiz) setsutasuna bakarrik; baina, Freud-engandik hurbilago, Bizi-Sena eta Estetika-dohaina ere bai.

Erotismoa eta Estetikaren ahalmena elkarri hertsiki loturik dauden bezala, setsukeriak eta heriotza ere loturik daude ez la-xokiago. Gizona ez baita gorputza bakarrik.

Epikteto estoikoaren esakun bortitza onartu behar izan ez arren («arrastaka eta nekez gorpu bat daraman arima ahul hauskor bat baizik ez haiz hi»), mendetan barrena geure kuntzetik atera gaitun ideia zentzugabea arbuiatzen badugu ere (alegia, «hargia gizonaren etsaia eta galbidea» dela), hau esan daiteke eta esan behar da; sakontasunik eta sendimendurik gabeko setsu-ha-

rremanak gizonaren tristagarri direla, eta ez ezertan ere ezereen «gaindi-bide». Zinemaren joera pornoa, hortaz, eta alderdi horretatik, joera kaltegarria da, eta gizonarekiko laido eta irain.

Platonismoaren ideiakera salatuta ahal izateko (eta salatu egin behar da), beste muturreko porno-aldi funsgabe hau ere salatu beharra dagò. Gizona ez baita arima hutsa, baina haragi-hezur hutsa ere ez; eta erotismoak ezer gutxi baitu ikustekorik mekanikarekin.

Erotismoa, obratu aurreko amodio-giro berezia, maitasun hositu berriaren Eros-aldia, baita barne-hutsune soila denean ere, baita olerki-egarri zorrotzaren pizgarri bakarra denean ere, baita ez-aren edo ezin-aren dei etsia denean ere, baita egiazko maitasun osotua ez denean ere, Olerki da, eta Eder-men, eta Arte-gun, eta gizonaren barne-aberagarririk gardenena eta zinezkoena. Sendimenduan eta olerkian funtsatutako harremanen askatasunaren alde, berriro ere Marcuserekin batera, esango nukeen guzti-guztia, sendimendutik eta olerkitik at oratutako tximukeria horien aurka esango nuke zinki. Eta tximuek barka nazatela...

Zinema pornoa, gizonaren sakontasunaren uko zabarra eta zozoa den aldetik, gaurko gizartearen txirogarri nabarmen iruditzen zait. Eta gizasemearen, emakumearen eta maitasunaren beraren txirogarria den aldetik nahi nuke berriro ere eta osoki lerro hauen bitartez gaitzetsi.

Goethe-ren «Werther» eta Hamsum-en «Pan» liburu zoragarrien irakurle liluratua izan naizen hau, zinema porno horrek nardatu egiten nau, jaunak. Benetan. Zu ez ala?